

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ESTUDIOS EMPRESARIALES
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Ezkutuko Ekonomia eta Paradisurik Fiskalak

Gratu Amaierako Lana

2015. urtea

Ikastegia: Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Zuzendaria: Lucía Sáez Vegas

Egilea: Irati Sesma Iruretagoyena

Aurkibidea

➤ Edukia

Sarrera.....	4
1. Atala: Ezkituko Ekonomia.....	11
1.1 Zer da Ezkituko Ekonomia?.....	12
1.2 Ezkituko Ekonomia Motak.....	14
1.3 Ezkituko Ekonomiaren Jarduerak.....	16
1.4 Ezkituko Ekonomiaren Arrazoiak.....	17
1.5 Ezkituko Ekonomia Krisi Egoeretan.....	20
1.6 Ezkituko Ekonomiaren Eboluzioa.....	22
1.7 Ezkituko Ekonomia Espainian.....	29
1.8 Ezkituko Ekonomiaren Ondorioak.....	33
1.9 Ezkituko Ekonomiaren aurkako Neurriak.....	35
1.10 Ezkituko Ekonomiarekiko Etika.....	38
2. Atala: Paradisu Fiskalak.....	41
2.1 Zer dira Paradisu Fiskalak?.....	42
2.2 Paradisu Fiskalen Ezaugarriak.....	44
2.3 Paradisu Fiskalen Erabiltzaileak.....	47
2.4 Offshore Filosofia.....	50
2.5 Paradisu Fiskalen Aukeraketa.....	53
2.6 Paradisu Fiskal Motak.....	55
2.7 Banku Zerbitzuak.....	58
2.8 Kontu-depositu eta Sozietateen Eraketa.....	62
2.9 Paradisu Fiskaletako Jarduera Nagusiak.....	66
2.10 Paradisu Fiskaletako Sozietate Motak.....	70
2.11 Paradisu Fiskalen Aurkako Neurriak.....	74
2.12 Espainia eta bere ingurua.....	78
2.13 Europa Mailan.....	83
2.14 Mundu Mailan.....	87
3. Atala: Ezkituko Ekonomia eta Paradisu Fiskalak, biak batera.....	92
3.1 Ondorioak.....	93
3.2 Ikerketa-mugak.....	96

3.3	Etorkezunerako ikerkuntza-lerroak	97
3.4	Bibliografia.....	98

➤ Grafikoak

1. Atala: Ezkatuko Ekonomia

1.1	Grafikoa: Langabezia eta Ezkatuko Ekonomia.....	21
1.2	Grafikoa: BPGarekiko Ezkatuko Ekonomiaren %	23
1.3	Grafikoa: Ezkatuko Ekonomiaren Eboluzioa	24
1.4	Grafikoa: Ezkatuko Ekonomia Europan	25
1.5	Grafikoa: Ezkatuko Ekonomia sektoreka	26
1.6	Grafikoa: Ezkatuko Ekonomia eta Presio Fiskalaren arteko erlazioa	27
1.7	Grafikoa: 2013.urteko Espainiako Ezkatuko Ekonomia autonomia erkidegoen arabera.....	31

➤ Taulak

1. Atala: Ezkatuko Ekonomia

1.1	Taula: 2009.urteko Espainiako Ezkatuko Ekonomia autonomia erkidegoen arabera	30
1.2	Taula: Ezkatuko Ekonomiaren aurkako neurriak Europa mailan	36

2. Atala: Paradisu Fiskalak

2.1	Taula: Mundu Mailako Paradisu Fiskal nagusiak	56
2.2	Taula: Espainiar Autoritateak Paradisu Fiskal kontsideratzen dituen herrialdeen zerrenda	81

➤ Mapak

2. Atala: Paradisu Fiskalak

2.1	Mapa: Espainia eta bere inguruan abantaila fiskalak dituzten lurraldeak.....	80
2.2	Mapa: Europako Paradisu Fiskalak.....	86
2.3	Mapa: Amerikar Kontinenteko Paradisu Fiskalak.....	89
2.4	Mapa: Ozeano Indiko eta Pazifikoko Paradisu Fiskalak.....	90

Sarrera

a) Laburpena

Zer da *Ezkatuko Ekonomia*? Zer dira *Paradisur Fiskalak*? Eta zein da hauen artean dagoen erlazioa? Jarraian aurkezten zaigun lan honen laburpena hiru galdera horien erantzunean aurkitzen da. Lehenik eta behin, *Ezkatuko Ekonomiaren* nolakotasunak aztertzen dira eta ondoren *Paradisur Fiskalenak*.

Honela bada, bi termino hauen ingurukoak azaltzen hasi baino lehen, bata eta besteen definizioak argitzea komeni da.

- i. Batetik, ***Ezkatuko Ekonomia*** herrialde jakin bateko Kontabilitate Nazionalak arakatu gabeko jarduera oro izango da.
- ii. Bestetik, ***Paradisur Fiskalak*** herrialde jakin bateko Kontabilitate Nazional hori aplikatzen duten Autoritateek ezartzen duten zerga-sistema baino tributazio onuragarriagoak izango dituzten herrialdeak dira.

Bi kontzeptu hauen definizioak argi izanda, ***Ezkatuko Ekonomia*** irregulartasunean oinarritzen den ekonomia izango da. Euskaraz "*Ekonomia Murgildu*" ere deitu izan zaio, murgilpen horretan agerian utzi nahi ez diren jarduera ezkatu guztiak barneratuko direlarik. Honen baitan, Lan Merkatu Beltza edo narkotrafikoa bezalako sektoreek ez dute parterik izango herrialde jakin bateko Barne Produktu Gordina bezalako datu estatistikoetan.

Gauzak honela, argitu beharra dago *Ezkatuko Ekonomiak* ez duela zertan legez kanpo egongo den zerbait izan beharrik, Legearen hutsuneen baitan sortzen diren jarduerak baizik. Modu honetan, bi motatako *Ezkatuko Ekonomiaz* ari gara berbetan: batetik, Legez kanpoko azpitaldean, penalki zigortuak dauden jarduera guztiak sartuko lirake; zergen iruzurra edo diru beltzarekin jokatzeko kasu. Bestalde, Legeak debekatu gabeko azpitaldea, abantaila fiskalekin loturikoa da batik bat; zergen ekiditea eta trikimailu fiskalak esaterako.

Ezkatuko Ekonomiaren izateari dagokionean, fenomeno ekonomiko hau arrazoitzeko hainbat faktore edo eragile daude:

- i. Batetik, Legea Fiskalak ezartzen dituen presioen ihesbide da *Ezkatuko Ekonomia*.
- ii. Bigarrenik, Legegintzan ezartzen diren erregulazio gogorrek ezkutuan jardutea eragiten dute.

- iii. Bestetik, ordea, arrazoi demografiko, ekonomiko eta etikoek ere zeresan handia dute ekonomia mota honen izatea arrazoitzeko.

Denboran zehar izandako ibilbidea aipatuz, *Ezkatuko Ekonomiaren* eboluzioak beheranzko joera izan du azken urteetan, hori lortzeko hainbat eta hainbat neurri aplikatzen baitira. Aldiz, krisi egoeretan jarduera irregularrek indarra hartzen dute eta *Ezkatuko Ekonomiaren* beheranzko joera bertan behera gelditzen da.

Hurbiltasun geografikoari jarraiki, Espainian *Ezkatuko Ekonomiak* duen garapen-maila aztertzean, autonomia erkidego batzuetatik besteetara dauden aldeak azpimarragarriak dira. Adibide gisa, Gaztela Mantxa, Andaluzia eta Kanariar Irlak dira ekonomia irregular nabariena duten autonomia erkidegoak, besteak beste.

Guzti honekin, bada, *Ezkatuko Ekonomiak* ondorio txarrak eragiten ditu orokorrean, estatistika fidagaitzak eta sistema ekonomikoaren alterazioak bezalako ondorioak ekartzen baititu. Ondorioz, kalte horiek ekiditeko helburuz, hainbat eta hainbat neurri ezarri ohi dira, neurri horien baitan arau debekatzailerik eta motibatzaileak ezberdintzen direlarik.

Ezkatuko Ekonomiaren inguruan Etikak ere badu bere iritzia, ikuspuntu honen arabera norbanakoaren jarrera baita fenomeno ekonomiko honengan gehien eragiten duen faktorea.

Lan honen bigarren alderdiari eutsiz, ***Paradisu Fiskalak*** Fiskalitatea ekiditeko paradisuak direla esan genezake, abantaila fiskalak eskaintzen dituzten herrialdeak baitira.

Ezaugarriei dagokienean, *Paradisu Fiskalen* funtsa diskrezioa izan da betidanik. Diskrezio hau banku-sekretu eta konfidentzialtasunarekin egoten da erlazionaturik, bertako bezero direnei beren ondasun eta inbertsioak ezkutuan mantentzeko abantaila eskainiz.

Horretaz gain, zerga-tasa baxuko Fiskalitateak dituzten herrialdeak izaten dira, kanbio eta diru-mugimenduen inguruko askatasun zabalak emanez gainera. Bestetik, egonkortasun ekonomiko eta politiko sendoa izaten dute eta mundu mailako komunikazio-ahalbide zabalak garatu ohi dituzte.

Honela bada, *Paradisu Fiskalen* erabiltzaile den orok ezaugarri guzti horiek bilatuko ditu bere dirua eta inbertsioak kudeatzeko herrialdea aukeratzerako garaian. Erabiltzaile honek bere herrialde lokalean duen dirua Fiskalitate onuragarriagoa duen beste batera mugitu nahiko du.

Ondorioz, erabiltzaile honek *Offshore* Filosofia eramango du aurrera, bere ondarearekiko segurtasuna, diskrezioa eta pribatutasuna bilatuz.

Aurrera eginez, bada, *Paradisu Fiskalen* aukeraketa egiterako orduan hiru eragile izango dira kontutan hartu beharrekoak: batetik, faktore orokorrak aztertu beharko dira; bigarrenik, inbertitzailearen faktore eta ezaugarriak ezagutu beharko dira; eta azkenik, herrialdearen faktore bereziak zeintzuk diren ikertu beharko da.

Modu honetan, bi motatako *Paradisu Fiskalak* ezberdintzen dira orokorrean: bata abantaila fiskal egokiak dituzten herrialde guztiek osatzen dute, eta bestean, berriz, espezializazioan oinarritzen diren herrialdeak sartzen dira. Azken hauek inbertitzailearen ezaugarri eta helburuen arabera zerbitzuak eskaintzen dituzten herrialdeak izaten dira.

Bestalde, banku bat ala bestea aukeratzekoan ere entitate finantzarioaren ezaugarriak ikertzea komeni da. Ezaugarri horien artean bankuaren kaudimena, komunikazio eta sarbide aukerak, eskaintzen duen zerbitzu-multzoa, inbertsioengatiko kargu eta komisioak, eta bere jarduerak aurrera eramateko dituen baldintza eta printzipioak aipa daitezke.

Honela bada, ezaugarri horien baitan hiru banku mota bereizten dira: banku txikiak, banku handiak eta *Offshore* bankuak. Banku moten eraginpean, hauetariko bakoitzak zerbitzu mota ezberdinak eskaintzen ditu, baina kontu-deposituak banku guztiek eskaintzen dituzten zerbitzuak dira, hauen baitan ere hiru mota ezberdintzen direlarik: Bistako kontuak, kontu-korronteak eta epe finkoko kontuak.

Honen ondoren, *Paradisu Fiskaletan* gehien ematen diren jarduerak kontu-deposituak irekitzea eta sozietateak eratzea dira. Kontu-deposituak eratzean, herrialde lokaleko dirua *Paradisu Fiskaletan* mantentzeko helburua betetzen da. Sozietateen bitartez, berriz, diru-funtsak inbertitu eta jarduera finantzario eta komertzial ugari egiteko aukera sortzen da. Ondoren, sozietate horien eraketaren bitartez, *Paradisu Fiskalen* munduan nahi adina mugimendu egiteko ahalmena lortzen da.

Gaur egun sozietate mota ezberdinak sortu daitezke *Paradisu Fiskaletan*, sozietate horiek eratzeke hainbat estrategia erabiliz; gaur egun *Holding* bidezko sozietateak oso famatuak dira eta baita *Trust* bidezkoak ere.

Honekin bada, aipaturiko abantaila guzti horien atzean *Paradisu Fiskalen* parte-hartzaile ez direnen artean desabantailak ere sortzen dira eta desabantaila horiek abantaila bihurtu nahian, *Paradisu Fiskalen* aurkako neurri ugari erabili ohi dira gaur egun. Neurri horien adibide ezagunenak herrialdeen arteko informazio-partekatzeak eta zergapen bikoitzak ekiditeko hitzarmenak izan daitezke. Hala bada, neurriok ezartzeko hainbat organismo aritzen dira lanean, guztiek helburu bera partekatzen dutelarik.

Paradisu Fiskalekin bukatzeko, bada, ikerketa geografikoa dugu egiteke. Alde batetik, Espainia ez da *Paradisu Fiskal* kontsideratzen den herrialdea, eskualde batetik bestera abantaila hobek eta okerragoak bilatu ahal diren arren; aldiz, 48 dira Espainiar Autoritateen iritziz *Paradisu Fiskal* deritzen herrialdeak, denboraren poderioz zerranda hori murrizten ari den arren.

Bestalde, Europar mailari dagokionean, Suitza eta Luxenburgoko bezalako herrialde dezente dira Fiskalitate onuragarria eskaintzen dutenak.

Azkenik, mundu mailako ikuspegia arakatu, Kontinente Amerikarra da *Paradisu Fiskal* modura indar handien duen lurraldea, egunetik egunera Asiarrak gero eta boteretsuago bihurtzen ari diren arren.

Guzti honekin, bada, lanaren bi atal nagusiak amaitutzat emanda, lan hau osatzen duten bi kontzeptuen artean erlazio hertsia dagoela esan daiteke, *Ezikutuko Ekonomian* aritzen denak *Paradisu Fiskalen* erabiltzaile izateko aukera handiak izaten baititu. Aldiz, ez du beti hain erlazio zuzena izan beharrik, posible baita *Ezikutuko Ekonomiaren* baitan egon eta *Paradisu Fiskalen* erabilerarik ez egitea.

Honen ildotik, lege kanpoko jardura ekonomiko guztiak *Ezikutuko Ekonomiaren* barne daudenez gero, jardura horietan lortutakoak ez du beti *Paradisu Fiskalen* bidea hartzen. Adibidez, prostituzioa lege kanpoko jardura da Espainian, eta ondorioz, bertan sortzen den diru-kapital guztia *Ezikutuko Ekonomia*, *Ekonomia Murgildua* edo *Ekonomia Irregularra* izango da. Gauza bera esateko hiru modu besterik ez dira.

Hala, prostituzioan aritzen den emakume batek irabazten duen “soldata” Kontabilitate Nazionalak erregulatu gabea izango da, eta beraz, *Ezikutuko Ekonomian* sartuko dugu. Aldiz, emakume honek ez du orokorrean bere dirua inongo *Paradisu Fiskal*etara bideratuko, bizirauteko erabiliko duen dirua izango baita bere “soldata” hori. Kasu honetan, *Ezikutuko Ekonomiaz* hitz egiten ari garen arren, ez dugu zertan *Paradisu Fiskalen* aipu eginik.

Bestalde, bada bi termino hauek erlazio zuzenik ez izateko beste kasu bat ere: *Paradisu Fiskal*etan dirua, ondasunak eta inbertsioak egitea posible da *Ezikutuko Ekonomia* izateko beharrik gabe. Zergapen-sistema baxuko herrialde batean inbertsioak egitea erabakitzen duen norbanakoak, inbertsioa egin aurretik bere herrialde lokalean egin beharreko aitortpen guztiak egiten baditu, ez da *Ezikutuko Ekonomiaren* baitan egongo.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago mota honetako adibideak ez direla oso ohikoak izaten, eta ondorioz, *Ezikutuko Ekonomiaz* ari garenean *Paradisu Fiskalak* aipatu beharko ditugu gehienetan, eta *Paradisu Fiskalez* aritzean *Ezikutuko Ekonomia* agertuko da kasu gehienetan.

b) Helburuak

Behin laburpena eginda, lan honekin lortu nahi ditugun helburuak azalduko ditugu, helburu nagusia eta bigarren mailako helburuak ezberdinduz:

i. Helburu Nagusia

Lan hau burutzerakoan bilatzen den helburu nagusia *Ezkatuko Ekonomia* eta *Paradisu Fiskalen* kontzeptuak ulertu eta hauen arrazoiak eta ondorioak garatzea da, aldi berean bi fenomeno ekonomiko hauen arteko erlazioa ikertzea ere bilatuz.

ii. Bigarren Mailako Helburuak

Helburu nagusiak zeintzuk diren jakinda, badira helburu horiek lortzeko garatu beharreko zenbait azpi-helburu, helburu nagusia lortzen errazten digutenak.

1. *Ezkatuko Ekonomiak* gaur egun gure gizartean duen garrantzia aztertu beharko da, urteetan zehar izan duen eboluzioa kontutan hartu edota guzti honen inguruan Etikaren kontzeptuak duen zeresana azaldu.
2. *Paradisu Fiskaletan* ere mundu-mailan hauek izan ditzaketen garapen-maila ezberdinak ezagutzea ezinbestekoa da, *Paradisu Fiskalen* kontzeptua ulertu ahal izateko. Eta nola ez, praktikan *Offshore* herrialde hauen erabilera egiteko prozesu eta aukeren ideia orokorra izatea ere.

Ondorioz, arestian aipaturiko ideia nagusira iritsi ahal izateko, bigarren mailako hainbat helburu jorratu behar izan ditugu bidean.

c) Metodologia

Lan hau burutzeko garaian, bi kontzeptu nagusien inguruko analisia edota azterketa egin dugu, egindako azterketa horren inguruko emaitzak laburbildu ahal izateko bukaeran. Modu honetan, erabilitako metodologia *analitiko-sintetiko*a izan da, analisiaren bitartez sintesi bat egitea lortu baitugu (Rodriguez, 2006) eta (Soldevilla, 1995).

Denbora luzean jorratu dugun lan hau burutzeko arestian aipatu ditugun azpi-helburu horietako bakoitza landuz joan gara, bukaeran helburu nagusira iritsi ahal izateko. Horretarako, bada, bibliografian aipatzen ditugun liburu, artikulua eta txostenak izan ditugu eskura, Internet bidez izan ditugun bigarren mailako informazio-iturri guztiez gain.

Guzti hori egin ondoren, bai *Ezkatuko Ekonomia* eta bai *Paradisu Fiskalen* gaia osatzeko faktore guztiak aztertu ondoren, guzti horien arteko erlazioa bilatzea lortu dugu bukaerako sintesi edo laburpenaren bitartez.

d) Estructura

Esan bezala, *Ezkatuko Ekonomia* eta *Paradisu Fiskalen* inguruan sortutako lana da honako hau, eta ondorioz, hiru atalez osaturiko lana den arren, bi atal izango dira nagusienak: lehenengo atalean *Ezkatuko Ekonomiari* buruzko guztia jorratuko dugu, eta bigarrean, aldiz, *Paradisu Fiskalen* esanahia izango da jakituria nagusia.

Hala bada, *Ezkatuko Ekonomiari* buruzkoa den **lehen atalean**, honi buruzko hainbat alderdi izango ditugu aztergai: lehenik eta behin, fenomeno ekonomiko hau zertan datzan, zein mota ezberdin ezberdintzen diren eta bertan ematen diren jarduera nagusiak zein diren deskribatuko ditugu.

Honen segidan, *Ezkatuko Ekonomia* agertzearen arrazoiak, krisi egoeretan izaten duen jarrera eta urteetan zehar izan duen eboluzioa arakatuko ditugu, grafiko eta taula ezberdinen bidez.

Horretaz aparte, *Ezkatuko Ekonomiak* eragiten dituen ondorioak eta Espainian duen indarra zenbaterainokoa den aztertuko dugu, autonomia erkidegoen arteko ezberdintasunak azpimarratuz.

Atal honekin bukatzeko, *Ezkatuko Ekonomiaren* aurka aplikatzen diren neurri garrantzitsuenen aipamena egingo dugu eta fenomeno ekonomiko honen aurrean Etikak duen zer esana ere azalduko dugu.

Ikusten denez, lehen atala bigarren mailako lehen helburua lortzeko egin dugu.

Guzti honen ondoren, **bigarren atalean** murgilduko gara *Paradisu Fiskalen* inguruko gaietan aztarna utziz. Gaur egun termino hain ezagun bilakatu den *Paradisu Fiskalak* zer diren eta hauen ezaugarri nagusiak deskribatuz emango diogu atal honi hasiera.

Ondoren, *Paradisu Fiskalen* erabiltzaileak nolakoak izaten diren eta *Offshore* filosofiaren printzipio nagusiak azalduko ditugu. Guzti hori jakinda, *Paradisu Fiskalak* deritzen herrialderen batean inbertsioa egiterako orduan, zein herrialde hautatu ahal izateko hiru faktore nagusiak jorratu ditugu. Hiru faktore hauen baitan, inbertitzaileak bere inbertsioak egiteko aukeraketa egokia egitea lortuko luke.

Atal honen baitan, *Paradisu Fiskalen* munduan egon daitezkeen mota ezberdinen sailkapena ere beste eginbeharretako bat izango da, eta baita *Paradisu Fiskalak* horietan kokatzen diren bankuek eskaintzen dituzten zerbitzuen deskribapena egitea ere. Zerbitzu horiek zer nolakoak diren jakin ondoren, gaur egun erabilienak diren zerbitzuen eraketa egiteko eman beharreko pausuak azalduko ditugu. Bi zerbitzu dira

gaur egun *Paradisu Fiskaletan* indar handiena dutenak: bata kontu-deposituak eratzea izanik, eta bestea, berriz, sozietateen eraketa.

Atal honen azken orrialdeetara iristear gaudenean, *Paradisu Fiskaletan* eman ohi diren jardura nagusiak zer nolakoak izaten diren azalduko dugu eta baita bertan osatzen diren sozietateak zein motatakoak izan daitezkeen ere.

Ezkutuko Ekonomiaren atalean egin moduan, *Paradisu Fiskalekin* ere, hauen aurka ezartzen diren neurriak jorratuko ditugu, neurriok zein organismok bultzatzen dituzten ere esanaz.

Paradisu Fiskalen atala amaitu aurretik, gaur egun ezagunenak diren *Paradisu Fiskalen* aipamena egingo dugu, hiru esparrutako banaketa eginez: lehenik, Espainiak duen egoera azalduko dugu eta baita Espainiaren ikuspuntutik *Paradisu Fiskalak* deritzen herrialdeak zein diren ere. Ondoren, Europa mailan *Paradisu Fiskal* moduan ezagutzen diren herrialde ezagunenak zein diren aztertuko ditugu, eta azkenik, mundu mailara zabalduz gero, finantza-zentro moduan jarduten duten herrialdeak zerrendatuko ditugu.

Bi atal nagusiak bukatutzat eman ondoren, hirugarren atalean ondorioei buruz jardungo gara batik bat, bi kontzeptu nagusien inguruan ondoriozta daitekeen guztia azalduz. Horretaz gain, lan hau burutzeko garaian izandako mugez ere jardungo gara, eta azkenik, etorkizunerantz begira lan honen inguruan egin daitezkeen ikerketa-aukerak proposatuko ditugu.

Guzti honen ondoren, lanaren irakurmena hastear delarik, emandako informazio guztia fede onez eman dela esan, ahalik eta datu objektibo eta eguneratuenetan oinarrituz. Honenbestez, egileak hutsegite posible guztiengatik barkamena eskatzen du.

1. Atala: Ezkatuko Ekonomia

1.1 Zer da Ezkutuko Ekonomia?

Ezkutuko Ekonomia ohiko bide eta moduetatik at egiten diren, eta ondorioz, Kontabilitate Nazionalean barneratu gabeko aktibitate eta jarrera multzo bezala definituko bagenu, historian zehar bai Espainia eta baita munduko hainbat eta hainbat herrialdetan ere ageri izan den fenomeno da (Jimenez, 2013).

Ezkutuko Ekonomiaren inguruan nahi adina definizio aurki genitzake, horietako bakoitzak ikuspuntu eta esamolde ezberdinak erabiltzen dituelarik; modu honetan, Euskaraz ere kontzeptu bera azaltzeko “**Ekonomia Ezkutu**” edo “**Ekonomia Murgildu**” terminoak dira jorratzen ari garen gaia azaltzeko modu ezagunenak.

Hala eta guztiz ere, fenomeno honi deitzeko erabiltzen den terminoa ez da garrantzi handien duena, **Ekonomia Ezkutu** hitzen barnean arakatu ondoren lortuko ditugun eduki eta ondorioak ahalik eta argi eta zehatzenak izatea baizik.

Honela bada, *Ezkutuko Ekonomiari* buruzko definizio zehatza bilatzea ez da lan erraza, ez baitago termino honen inguruko guztia modu objektiboan biltzen duen esanahirik. Argi dagoena, *Ezkutuko Ekonomia* aspaldidanik herrialde askotan biziraun duen fenomeno delako da, herrialde horietako irizpide Makroekonomikoak distortsionatzen dituelarik.

Arestian aipatu moduan, Kontabilitate Nazionalean barneratu gabeko edonolako jarduera *Ezkutuko Ekonomiaren* barne dago eta honek Estatistika Ofizialetan jarduera hauen existentzia ez agertzea dakar. Ondorioz, Barne Produktu Gordina (BPG), Errenta Nazionala, Kontsumo-tasa, Aurrezki-Koefiziente edota Desenplegu-tasek adierazten dizkiguten zenbaki eta datuak ez dira inoiz errealitatearekin bat etorriko.

Bestalde, Fiskalitatean ere hainbat gorabehera sorrarazten ditu *Ezkutuko Ekonomiak* Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) eta enpresen irabazi edota Sozietateen Mozkinen gaineko Zergak ez baitira errealitatearen pareko izango.

Guizti honekin, bada, ezin genezake jakin egoera ekonomiko jakin baten aurrean hartutako erabaki ekonomikoak egokiak izanen diren, aztergai dugun egoera ekonomiko horren zehaztasun-maila zenbaterainokoa den ez baitakigu.

Hori argi izanda, beraz, azken urteetan bi taldeetan banatu daitezkeen definizioak ditugu aztergai (Benito, 1988):

- i.* Batetik, **izaera juridikoa** dutenak dira, zuzenbide arloarekin erlazio zuzena izango dutenak. Honen baitan Estatuak zuzendutako Sistema Ekonomikotik at geratzen diren jarduera guztiak dira *Ezkutuko Ekonomia* osatzen dutenak.
- ii.* Bestetik, aldiz, **izaera ekonomikoa** duten esanahiak ditugu, kontabilitate arloaren ikuspuntutik *Ezkutuko Ekonomiak* Ekonomia osoaren zein zati, ehuneko edo garrantzi duen aztertzen dutelarik.

Guzti honen harira, ***Ezkutuko Ekonomiaren*** baitan aurkitu daitezkeen mota ezberdinak aztertzeari ekingo diogu hurrengo puntuan (1.2 atala).

1.2 Ezkatuko Ekonomia Motak

Ezkatuko Ekonomiaren baitan aurki daitezkeen azpitaldeak azaldu aurretik, argi utzi beharko litzateke *Ezkatuko Ekonomia* bera Ekonomia Orokorren zati bat dela, lehen esan bezala erregistratu edo kontrolatu gabeko Ekonomiaren zatia izanik. Hori horrela, *Ezkatuko Ekonomia* terminoa lehen aldiz entzutean esangura negatibo batekin aurkitu garela esango genuke guztiok edo ia guztiok, "Ezkutu" hitzak dioen moduan, agerian ez dagoen zerbait delako eta ondorioz legez kanpoko ekintzekin lotzeko joera dugulako.

Aldiz, ***Ezkatuko Ekonomia*** aztertzerako orduan, bada zertan debekatua egon behar ez duen zatia ere. Honekin loturik, lehenik aipatu beharreko bi azpimultzoak honakoak dira: batetik, guztioi ezagun egiten zaizkigun guztiz debekatuta eta legez kanpo dauden jarduerak dira eta, bestetik, legalki onartuak dauden jarduerak dira, erregulazioen marjinetatik at geratzen diren arren (Benito, 1988):

1. Lehenengo azpitaldea ***penalki zigortuak*** izan daitezkeen jarduera guztien multzoak osatzen du, herrialde bakoitzaren legeen ezberdintasunen baitan. Jarduera hauen adibide esanguratsu bat aipatu nahiko bagenu, prostituzioa eta drogekin erlazionatutako jarduerak dira Espainiaren kasuan behintzat legearen ikuspuntutik guztiz debekatuta daudenak biak. Ondorioz, gaur egungo bi adibide hauen kasu guztiak *Ezkatuko Ekonomiaren* barne egongo lirateke.
2. Bigarren azpitaldeari dagokionean, Fiskalitate eta tributazio gaiekin erlazionaturiko ekintzak dira. Kasu honetan, Ekonomiak ikusten ez dituen edo arakatzen ez dituen tarteei probetxua ateratzeko ekintzak dira, legalki ***debekatu gabekoak*** baina moralki onargarriak izango ez liratekeenak. Beraz, azpitalde honen ekintzarik ohikoena errenta edo irabazia sortzen duten jarduerari dagokien zergen aitortpena ekiditeko trikimailuak erabiltzea da.

Azpitalde honen barne egongo liratekeen jarduerak zer nolakoak diren argitzeko esan beharra dago badirela Fiskalki legez kanpo geratzen diren hainbat eta hainbat jarduera edota jarrera ere, ondorioz guzti horiek lehenengo azpitaldean sartuko liratekeelarik; hala nola, diru beltzarekin jardutea, fakturak ekiditea edota zergekin iruzurra egitea. Aldiz, bigarren azpitalde honetan Fiskalitateak debekatzen ez dituen jarduerak sartzen dira, legearen errore, hutsune edota gabeziak muturreraino eramanez.

Honen harira, Fiskalitate gaien inguruan abantailak lortzen oso iaioak izan ohi dira errenta altua duten pertsona fisiko eta enpresak, legearen hutsuneei probetxua ateratzeko aholkulari oso onak izaten baitituzte.

Honela bada, Espainia mailan elite maila lortu duten kirolari famatu ugari dira beren egonlekua Espainian izan ordez zerga-tasa baxuagoak dituzten herrialdeetan finkatua dutenak. Eta gauza bera gertatzen da Espainiar jatorria duten enpresa handi askok egiten dituzten trikimailuekin ere. Hala ere, nahiz eta aholkulari fiskal oso onak izan, legearen hutsuneak urratzeak arazo judizial asko ekarri izan dizkio jende dirudun askori.

Honekin batera, espainiar komunikabideetan, eta baita mundu mailakoetan ere, ezagutzera eman den *Leo Messi* jokalariaen kasua daukagu, ustezko Fraude Fiskala egiteagatik. Espainiar Fiskalitateak ezkatuko irabaziak izatea leporatu zuen futbolari hau, *Paradisu Fiskalak* kontsideratzen diren herrialde ezberdinetan sortu omen zituen enpresei esker (El Economista, 2013).

Bestalde, bizileku edo egonlekua aldatzearen adibide ezagunen artean *Fernando Alonso* edota *Rafael Nadal* kasuak ditugu, lehenengoak Suitza izan baitu bere bizileku ofizial moduan eta bigarrenak, berriz, Euskal Herria. Biek beren benetako egonlekua zen herrian baino zerga gutxiago ordaintzea zuten helburu (Gutierrez, 2013).

Honetaz aparte, guzti honekin loturik egon daiteke ***Ezkatuko Enplegu*** deritzona ere, presio fiskalei aurre egiteko sortzen diren kontraturik gabeko lanaldiei erreferentzia eginez. Kasu honetan, enpresek zergak aurreztean lortzen dute langileei kontraturik gabeko lanaldiak eskainiz edo jarduten duten lan orduak baino ordu gutxiagoko kontratuak eginez. Honekin, Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa aurreztean lortzen dutelarik. Gaur egun, ordea, Merkatu Beltza deritzon hau guztiz debekatua dago langileen eskubideak bermatzeko helburuari jarraiki.

1.3 *Ezkatuko Ekonomiaren Jarduerak*

Ezkatuko Ekonomia zer den azaldu, definizioa eman, mota ezberdinak aztertu eta zenbait adibide ikusi ondoren, *Ezkatuko Ekonomia* deritzon jarduerak zehazki zein eta nolakoak diren jakitea falta zaigu. Beraz, *Ezkatuko Ekonomiaren* baitan sartzen diren jarduerak izendatzera ekingo diogu jarraian.

Honela bada, *Ezkatuko Ekonomian* barneratuko dugu Estatuaren Kontu Nazionalan barneratu gabe geratzen den jarduera oro.

Honako hauek dira, bada, kontabilizatzeko geratu ahal diren jarduerak (Benito, 1988):

1. Errore edo muga estatistikoen eraginpean Estatuaren Kontu Orokorretan barneratu gabeko jarduera guztiak.
2. Estatuaren Kontu Orokorrek onartzen ez dituzten legez kanpoko jarduera guztiak. Multzo honetan sartu beharko genituzke droga-ekintzak, prostituzioa, lapurtutako objektuen salerosketa, dibisen kontrabandoa eta abar.
3. Kontabilitate Nazionalak harpidetzen ez duen jarduera oro, orokorrean dirutan bihurtzen ez direnak. Kasu honen adibide izan daitezke etxeko amen egiteak, autokontsumo ekintzak eta familia edota lagunen arteko elkartrukeak, besteak beste. Guzti hauek Kontabilitate Nazionalak barneratzen ez dituen jarduerak dira, ez baitute ordainketa edo diru-fluxu mugimendurik izaten.
4. Erregistratu gabe gera daitekeen edonolako ekintza edo jarduera, agente ekonomikoek berau ezkatatu nahi izateagatik. Puntu honetan hiru motatako ekintza ezberdindu daitezke:
 - a. Kontabilitate Nazionalan aitortzeko geratzen den enpresen ekoizpena.
 - b. Legez kanpoko produktu edota zerbitzuen ekoizpena.
 - c. Legearen onarpena jaso gabeko diru-sarrerak.

Ondorioz, *Ezkatuko Ekonomiaren* barne dagoen ekintza oro aipamen egin dugun zerrenda horretako punturen batean egongo da.

1.4 Ezkatuko Ekonomiaren Arrazoiak

Argi dago **Ezkatuko Ekonomia** aztertzerako orduan hainbat ikuspuntu ezberdin ager daitezkeela, horietako bakoitzak fenomeno honen arrazoi eta ondorio ezberdinak emanaz; baina, ahalik eta objektiboen izaten saiatuz, *Ezkatuko Ekonomiaren* agerraldia eta urtez urte lortzen ari den zabalkuntza ulertzeko arrazoiak azaltzea komeni da.

Beraz, arrazoi hauek zeintzuk diren jakiteari eutsiz, bi kausa orokor ezberdintzen dira nagusiki:

- i. Batak, Estatuak herritarrari zergekiko inposatzen dion **presio fiskala** dela dio *Ezkatuko Ekonomiaren* abiapuntua.
- ii. Besteak, berriz, *Ezkatuko Ekonomia* jarduera ekonomikoekiko ezarri diren **legegintzako erregulazioek** edota murrizketek eraginda sortu dela dio.

Aipatu ditugun bi arrazoi nagusi hauek hobeto azaltzeko, zehaztasun handiagoko kausak aztertzeari ekingo diogu jarraian (Benito, 1988):

i. Presio fiskalaren eragina

Esan bezala, bai pertsona fisikoei eta baita pertsona juridikoei ere, enpresei alajaina, ezarritako Fiskalitatea da *Ezkatuko Ekonomiaren* arrazoi nagusienetakoa. Urtez urte Estatuari Ogasun Publikoaren bitartez eta beste administrazio-organoen bitartez ordaindu beharreko zerga-tasak handiagotu egiten dira eta honek klandestinitatearen jolasari irekitzen dio atea. Zergen hazkuntzari dagokionean, ordaindu beharreko edozein tributazioz ari gara, bai BEZ¹, bai PFEZ², bai sozietateen MGZ³ eta baita Gizarte Segurantzari⁴ ordaindu beharrekoak ere.

¹ Balio Erantsiaren gaineko Zerga: kostu bidez egindako ondasun eta zerbitzuen transferentzietan aplikatzen den zeharkako zerga da, azken erabiltzaile edo kontsumitzaileek ordaintzen dutelarik.

² Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga: izaera pertsonala eta subjektiboa duen zuzeneko zerga da, pertsona fisikoen errenta zergapetzen duena.

³ Sozietateen mozkinen gaineko zerga: sozietateen errenta nahiz gainerako erakunde juridikoenena zergapetzen duen tributu zuzen eta pertsonala da.

⁴ Gizarte Segurantza: nortasun juridiko propioa duen Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioari atxikitutako Erakundea da, prestazio ekonomikoen kudeaketa eta administrazioan jarduten dena.

Argi dago, edonolako zergen ezarpenak zerga horiek ordaindu behar dituenari diru murrizketa bat suposatzen dioela eta ordainketa hori ekidin edo murrizteko aukera *Ezkatuko Ekonomia* da.

ii. Legegintzako erregulazioak

Beste alde batetik, fiskalki egon daitezkeen presioez gain, Legeak ezartzen dituen mugak direla esan ohi da *Ezkatuko Ekonomiaren* beste arrazoi nagusienetako bat. Alde batetik, legeak onartzen ez dituen jarduerak daude eta beste alde batetik legeak debekatzen ez dituen arren, erregulazio zorrotzak ezartzen zaizkien jarduerak:

a) Legez kanpoko jarduerak

Aurreko atalean aipatu moduan, badira Legeak debekatzen dituen hainbat jarduera, drogen salerosketa kasu, baina debekatuta egoteak eskaera murrizten ez duenez, debekatuta dagoen orok sortzen duen diru-mugimendua *Ezkatuko Ekonomia* izango da.

Aipatu beharra dago legez kanpoko jardueren zerrenda ez dela berdina izango herrialde guztietan, zerga ezarpenak herrialde batetik bestera ezberdinak diren moduan.

b) Legezkoak diren jardueren erregulazioa

Hasieran aipatu moduan, Legearen baitan ezartzen diren erregulazioak dira *Ezkatuko Ekonomia* sortzearen arrazoi nagusienetako bat. Legearen onarpenen barne egon arren, badira legezko jarduerak kontrolatzeko helburua duten erregulazio ugari, *Ezkatuko Ekonomiari* ateak irekitzen dizkietenak. Modu honetan, edozein enpresak egunerokotasunean bere ekoizpena aurrera eramateko egin beharreko pausuetan sortzen zaizkion oztopoez ari gara berbetan. Adibide batzuk ematearren, arantzelen sistema, kanbio-politika, interes-tasak eta diru-politikari buruzkoak izan dira betidanik erregulazio gogorrenetarikoak.

Honela bada, gaur egun ezagunena izan daitekeen adibidea lan-kontratazioei buruzkoa da: Estatuak langileen eskubideak defendatzeko helburuz hainbat erregulazio ezartzen ditu eta honek enpresentzat beren gastuen hazkuntza suposatzen duenez, Lan Merkatu Beltza sortzen da. Modu honetan, langile asko kontraturik gabe edo behar bezalako kontraturik gabe aritzen dira lanean.

Bestalde, ekonomiak mundu mailan garatzeko duen grinak ere erregulazio edota baldintza gero eta zorrotzagoak sorrarazten ditu eta hauek ezin bete edo ez betetzearren, ekonomia irregularrerako bidea zabaltzen da kasu askotan.

Nolanahi ere, bi arrazoi nagusi horiez gain, badira *Ezkatuko Ekonomiari* eragiten dien beste hainbat faktore ere, jarraian azalduak direnak:

iii. Arrazoi Demografikoak

Aurretik aipatu dugun Lan Merkatuaren gaiarekin erlazionatu genezake immigrazioa ere, kanpotik etortzen den jende xumearen egoeraz baliatuz, kontraturik gabeko lanaldiak ugaritu egiten baitira. Kasu honetan, *Ezkituko Ekonomiaren* arrazoiak azaltzerakoan, demografia edo gizarte arrazoi batez ariko ginateke berbetan.

iv. Arrazoi Ekonomikoak

Azken urteetan bizitzen ari garen Globalizazioari esker, herrialde jakin bakoitzeko ekonomiak mundu mailakoarekin gero eta erlazio zuzenagoa ari du sortzen. Guzti horrek mundu mailako Ekonomia bakar bat sortzea dakar, herrialde batean edo batzuetan gertatzen denak mundu osoan eragina izanaz. Hori horrela izanik, ekonomiaren nazioartekotze honek *Ezkituko Ekonomiarengan* ere eragina izan lezake, ekonomia mota honen eragina eta mugikortasuna ere haztea lortzen baita Globalizazioari esker.

v. Arrazoi Etikoak

Ezkituko Ekonomiaren arrazoi moralitate edo etika falta dela diotenak ere badira, zuzen eta garbi jokatzeko aukera hautatu beharrean, ekonomikoki egoera onena lortzeko aukerez baliatzeko bideak nahiago izaten baitira askotan. Hala bada, hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan (*1.6 atalean*), aztertzen ari garen fenomeno honen agerraldia herrialde batean edo besteetan ez da berdina izanen eta honen arrazoietako bat gizartearen ikuspuntua, etika edo izateko era dela esan ohi da.

Hau guztia azaldu ondoren, *Ezkituko Ekonomiari* buruz orain arte azaldutako arrazoi nagusienak erabat instituzionalak izan dira, baina badira fenomeno hau bultzatzen duten arrazoi estrukturalak ere, guztiak edo ia guztiak ekonomia egoerekin erlazionatutakoak. Horretaz, bada, hurrengo puntuan hitz egingo dugu (*1.5 atala*), krisi ekonomikoak fenomeno honengan duen eragina zer nolakoa den azaltzera ekingo diogularik.

1.5 *Ezkatuko Ekonomia* *Krisi Egoeretan*

Aurreko puntuan *Ezkatuko Ekonomiaren* arrazoiak azaltzen jardun garenean aipatutako kausa guztiak laburbiltzeko honako hau esan genezake: *Ezkatuko Ekonomia* mozkin ahalik eta handienak izateko helburua bilatzen denean sortzen da; edo beste modu batean esanda, kostuak ahalik eta txikienak izatea bilatzen delako sortzen da *Ezkatuko Ekonomia* (Círculo de Empresarios, 2010).

Hala ere, badira hori baino arrazoi gehiago ere fenomeno hau bultzatzen dutenak, aurreko atalean azaldutako guztiak kasu, eta jarraian aztertuko dugun Krisi Egoerak esaterako.

Ezkatuko Ekonomia fenomeno estatiko moduan aztertzeak ez luke inolako zentzurik izango, urteetan zehar duen eboluzioa baita benetan gu aztertzen ari garen gaia hobekien definitzen duena.


Honekin loturik bada, krisi egoerek *Ezkatuko Ekonomiarengan* eragin sakona izan ohi dute. Batetik, krisi egoeretan zerga-sistemak estutzearen aldeko Politika ekonomikoak jartzen dira martxan Estatuaren aurrezkoa handitzeko helburuarekin.

Bestetik, enpresen egoerek krisi egoeretan okertzeko joera izan ohi dute eta horrek mozkinak gutxitzea suposatzen duenez, klandestinitatean jokatzeko abantailak eman ohi ditu, gastuak murrizteko helburuarekin.

Horretaz gain, langabezian egotearen amorruak edonolako lanak egitera bultzatzen du herritarra, diru beltzean kobratzeko baldintza onartu beharko balu ere. Kasu honen adibide errazena aurreko atalean (*1.4 atala*) azaldutako kanpotarrena da; immigratzaileek bere herrialde ez den beste batera iristean edonolako lanak onartzeko joera izan ohi dute beren larritasun egoerak bultzatuta (*Ezkatuko Ekonomiaren* arrazoi demografikoak).

Ilido beretik jarraituz, krisi ekonomikoen ondorioak bistaratzen diren heinean, *Ezkatuko Ekonomiaren* datuek goranzko joera hartu ohi dute gehienetan, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

1.1 Grafikoa: Langabezia eta Ezkutuko Ekonomia



Iturria: GESTHA, 2011.

Grafiko honek, 2011. urtean mundu mailako hainbat herrialdek lortutako datuak erakusten dizkigu. Modu honetan, krisi ekonomikoen ondorio latzenetako bat izaten den langabezia, eta *Ezkatuko Ekonomiaren* arteko erlazioa aztertzen du, argi eta garbi ikus daitekeelarik bi fenomeno ekonomiko hauek guztiz lotuta daudela, bien arteko erlazioa zuzena baita.

Mundu mailako herrialde guztietan, langabezia hazten doan heinean, *Ezkatuko Ekonomia* ere handitu egiten da, eta alderantzizko kasuetan ere gauza bera gertatzen da; bi fenomeno hauen goranzko eta beheranzko joerak elkarrekin joan ohi dira gehienetan.

Gainera, egoera ekonomiko desatseginetan beti gertatu izaten den moduan, legez kanpoko substantzien salerosketak hazkuntza bat izan ohi du, horrek ere *Ezkatuko Ekonomiak* Barne Produktu Gordinarekiko duen pisua handituz.

Guzti hori dela eta, herrialdeen arrazoi estrukturalak *Ezkatuko Ekonomiari* bultzadaxoa eman ohi diote, Ekonomia Orokorra ondo ez doanean beste mota bateko *Ezkatuko Ekonomia* joan ohi delako hobekien. Kausa-ondorio efektua dela esan genezake, hurrengo atalean (1.6 atala) aztertuko dugun *Ezkatuko Ekonomiaren* eboluzioari buruzko atalean ikusiko dugun moduan.

Hasieran esan bezala, *Ezkatuko Ekonomia* fenomeno dinamikoa gisa aztertzea komeni da, urteen poderioz gure ekonomietan duen eragina baita benetan garrantzia duena. Gauzak honela, urtez urte eta batez ere krisiaren eraginez, fenomeno honek lortzen duen boterea benetan esanguratsua dela ondorioztatuko dugu *Ezkatuko Ekonomiaren* eboluzioari buruzko atalean (1.6 atala).

1.6 *Ezkatuko Ekonomiaren Eboluzioa*

Atal honi hasiera eman aurretik, lehenengo aipatu behar litzatekeena *Ezkatuko Ekonomiaren Eboluzioaren* azterketa hau 2013. urtean Friederich Schneider irakasleak eginiko AT Kearney ikerketan oinarriturik dagoela, 2012. urterainoko datuak erabiliz; “The Shadow Economy in Europe” izeneko lanean (Schneider, 2013).

Hori jakinik, ikerketa honi lorturiko datuek diotenez, **2,1 bilioi euro** izan ziren Europako *Ezkatuko Ekonomiaren* estimazioa 2012. urtean. Honen baitan, Europako jarduera ekonomikoaren %18,5 inguru suposatzen zuen *Ezkatuko Ekonomiak*.


Jakina denez, Europako gobernatzailleen Politikak duen helburu nagusietako bat fenomeno honen murriztapena bermatzea da, kontu-publikoak orekatuz, *Ezkatuko Ekonomiaren* aurkako neurri gogorak jarritz eta jarduera ezkatuak egiteagatik isunak gogortuz, besteak beste.

Hala bada, guzti horretaz hurrengo puntuetan hitz egingo dugun heinean, argi dago oraindik badela zer egitekorik *Ezkatuko Ekonomia* gutxitzea nahi bada behintzat.

Jarraian, bada, hainbat grafiko aztertuko ditugu *Ezkatuko Ekonomiaren* tamaina aztertu, urteen poderioz izan duen aldaketa behatu eta gaur egun duen pisua modu errazagoan ulertzeko asmotan.

Lehenengo grafiko honetan (*1.2 grafikoa*), 2012. urtean *Ezkatuko Ekonomiak* Europako herrialde ezberdinetan zuen pisuaren azterketa egiten ari gara.

1.2 Grafikoa: BPGarekiko Ezkatuko Ekonomiaren %



Iturria: ATKearney txostena/ VISA 2013

Datuetan ikus daitekeen moduan, Europa osoko *Ezkatuko Ekonomiak* duen 2,1 bilioi horien bi herenak bost herrialdetan daude kontzentratuta **termino absolutuak** erabiliz gero: Alemania, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Espainia dira bost herrialdeok. Aldiz, **termino erlatiboan** baitan Bulgaria, Kroazia, Lituania eta Estonia bezalako ekialdeko herrialdeek beren BPGaren ia %30a dute *Ezkatuko Ekonomia*.

Kontrako egoeran, Austria eta Suitza dira datu baxuenak dituzten herrialdeak, beren BPGAen %7 eta %8ko *Ezkatuko Ekonomia* soila baitute.

Ikerketa honen arabera, **Espanian 196.000 milioitan** laburbiltzen da aitortu gabeko Ekonomia honen zifra estimatua, BPGaren %18,6a suposatzen duelarik, hau da, Europako batz bestekoaren antzekoa (%18,5).


Aldiz, Alemaniarekin konparatuz gero, honek %13ko datua lortu du eta zer esanik ez Austria, Holanda edo Suitza bezalako herrialdeekin alderatu nahiko bagenu, azken hauen *Ezkatuko Ekonomia* BPGaren %10etik behera baitago. Frantzia eta Erresuma Batuek ere Espainia baino egoera hobea dute zentzu honetan, BPGaren %10 inguruan baitaude aztertzen ari garen fenomeno hau.

2012. urteko datuak zer nolakoak diren ikusi ondoren, *Ezkatuko Ekonomiaren* eboluzioa aztertzeari ekingo diogu, azken hamar urteak nondik norakoak izan diren behatuz.

Europako *Ezkatuko Ekonomiak* azken hamar urteetako datu baxuena du 2012an, 2003.urtean zuen BPGaren %22,4tik %18,5era jaistera lortu baitu.

Hala bada, jarraian aztergai dugun grafikoan (1.3 Grafikoa) Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeen gorabeherak ikusten ditugu, 2003tik 2012rako epean.

1.3 Grafikoa: Ezkatuko Ekonomiaren Eboluzioa



Iturria: Schneider, 2013.

Lehenengo begirada batean, 2003tik 2008.urtera arte *Ezkatuko Ekonomiaren* tamaina murrizketa argia ondorioztatu daiteke baina, aldiz, 2008tik aurrera datuak aldakortasun handirik gabe daudela ikusten da.


Espainiaren kasua aztertuz, orokorrean esan daitekeen antzerakoa esan genezake, 2008ra arte murrizketa argia ikusten den arren, handik aurrerako urteetan egoera berdintsua mantendu baita. Gogoratu beharra dago, gaur egun bizi dugun krisiak 2007an egin zuela eztanda eta Espainian 2008tik aurrera izan dela beherakada ekonomikoa gehien nabarmendu den epealdia. Beraz, aurreko atalean (1.5 atala) aipatu dugun moduan, krisi ekonomikoek mesede egiten diote *Ezkatuko Ekonomiari*,

2008ra arte urtetik urtera txikiagotzen ari zelako eta krisiaren eraginez murrizketa hori desagertu egin delako.

Depresio edo egoera ekonomiko txarretan sortu ohi diren arazoez aitortu gabeko jarduerak egitera bultzatzen du norbanakoa. Gaur egun bizi dugun egoera bezalakoetan, non langabezia, diru-sarreraren murrizketa eta etorkizunarekiko ziurgabetasuna diren nagusi, *Ezkatuko Ekonomiaren* baitan egongo diren jarduerak egiteko joerek indarra hartzen dute, langabeziaren ondorioz galdutako diru-sarrerak berreskuratzeko asmotan. Eta horixe bera da aurreko grafikoan ikusten den 2008.urtetik aurrerako bilakaeraren arrazoia.

Aurrera jarraituz, arestian aipaturiko grafikoan (1.3 Grafikoa) *Ezkatuko Ekonomia* aztertzeke ehunekoak erabili ditugun heinean, oraingo honetan termino absolutuak aztertzeke ekingo diogu, beharbada ondorioak ez baitira guztiz berdinak izango.

1.4 Grafikoa: Ezkatuko Ekonomia Europan⁵



Iturria: A.T.Kearney analisia, 2013.

1.4 Grafikoan ikus daitekeenez, termino absolutuei erreparatuz gero, 2003.urtetik 2008ra arte *Ezkatuko Ekonomia* hazkunde jarraitua izan du. 2009.urtera iristear gaudenean, krisi egoera herrialde guztietan orokortu zen urtea, *Ezkatuko Ekonomia* pittin bat murriztu zen baina ekonomia jarduera ere gutxitu egin zen. Hurrengo urtetik aurrera, berriz ere jarrera gorakorra hartu zuen eta tamaina antzekoa mantendu du gaur arte.


Atal hau osatzeko asmotan, *Ezkatuko Ekonomia* sektoreka aztertzea gelditzen zaigu, batetik bestera dauden ezberdintasunak azalduz.

⁵ Europar Batasuneko 27 herrialdeez gain, Norvegia, Suitza, Kroazia eta Turkia ere barne.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan (1.5 Grafikoa), erregulazio handienak dituzten sektoreek dute *Ezkatuko Ekonomian* parte-hartzerik txikiena, elektrizitate eta finantza zerbitzuak bezalakoek esaterako. Hauek formalizazio-gradu altua dutenez, kontratazio arau zorrotzagoak dituzte eta hornitzaile edota bezeroekin sorturiko edonolako erlazio profesionaltasunez egin ohi dira orokorrean.

Beste muturrean, aldiz, kontrol gutxiago duten sektoreek dute nagusitasun handiena *Ezkatuko Ekonomian*, beharbada zailagoa delako modu honetako lanaldiak kontrolpean izatea. Adibide gisa, eraikuntza, manufakturen sektorea eta handizkako enpresen salerosketak dira fenomeno hau bizirik mantentzen duten lan mota esanguratsuenak.

1.5 Grafikoa: Ezkatuko Ekonomia sektoreka⁶




Iturria: A.T.Kearney analisia, 2013.

1.5 Grafikoa aztertu eta berriz ere krisiarekin erlazioa sortuz, Espainian 2008.urtean nabarmendu zen krisiak eraikuntza sektorea zapaldu zuela denok dakigu eta sektore honek *Ezkatuko Ekonomiarekiko* duen pisua zer nolakoa den jakinik, ulertzekoa da 2008an Ekonomia irregularra deritzogunaren murriztapena jasan izatea, pisu gehien zuen sektorea ere bertan behera gelditu baitzen.

Azkenik, *Ezkatuko Ekonomiaren* eboluzioari amaiera ematearren, fenomeno honek herrialdeen presio fiskalarekiko duen erlazioa aztertuko dugu.

⁶ Europako sei herrialdeei dagokio: Alemania, Italia, Espainia, Polonia, Errumania eta Turkia.

1.6 Grafikoa: Ezkutuko Ekonomia eta Presio Fiskalaren arteko erlazioa



1.6 Grafiko hau aztertzerako orduan, hasiera batean esango genukeena ezeztatuko dugu beharbada honako arrazoi honengatik: datu hauen arabera, ez dago presio fiskala eta *Ezkutuko Ekonomia* egotearen erlazio zuzenik, presio fiskal handia duten herrialdeek *Ezkutuko Ekonomia* mugatua baitute zenbait kasutan.

Modu errazagoan ulertzearren adibide batzuk aipatuz, zera esan genezake: Austria, Danimarka, Finlandia, Frantzia eta Suedia bezalako herrialdeetan presio fiskala oso altua da, baina bere *Ezkutuko Ekonomia* batz bestekoaren azpitik dago. Esaterako, Austriak %42,7ko presio fiskala duen heinean, bere *Ezkutuko Ekonomia* %9,7 inguruan dabil.

Kontrako adibidea hartu nahiko bagenu, Erresuma Batuak aurreko herrialdeek baino presio fiskal txikiagoa du, %34,9 zehazki, eta %12,5eko *Ezkutuko Ekonomia* dauka.

Guzti hau esan ondoren, teorikoki presio fiskala *Ezkutuko Ekonomiaren* arrazoietakoa bat den arren, argi dago bi hauen arteko erlazio zuzenik behintzat ez dagoela, beste baldintza batzuk egonen baitira fenomeno hau herrialde batzuetan besteetan baino gehiago nagusitzen dutenak.

Espainiaren kasuan ere, bertako presio fiskala Erresuma Batuekin baino txikiagoa den arren, gaur egun dugun *Ezkutuko Ekonomia* aurreko guztiena baino handiagoa da.

Ondorioz, denbora luzez aztertzen ari garen fenomeno honen arrazoiak ez dira presio fiskalari mugatzen, horrekin erlazonatutako beste hainbat baldintza fiskalek edota Lan Merkatuko erregulazioek zeresan handia baitute guzti honetan. Gainera, herrialdeen

arteko konparaketak egiterako orduan, batetik bestera dauden ezberdintasun nagusienetakoak etikaren ingurukoak dira herrialde batzuetan trikimailu ekonomikoak egiteak bere xarma izan dezakeen bitartean, beste batzuetan zeharo gaizki ikusia dagoen jarrera baita. Esate baterako, Espainia litzateke lehenengo kasuaren adibide argia eta Austria kontrako ideian oinarritzen den herrialdea izango litzateke; izan ere, Austria bezalako lurraldeetan, herrialde osoaren onura norbanako bakoitzarena baino lehenagokoa izaten da, Etika moralari jarraiki (1.10 puntu aztertuko dugu).

1.7 Ezkatuko Ekonomia Espainian

Ezkatuko Ekonomiak Europa mailan izan duen eboluzioa zer nolakoa izan den aztertu ondoren, Espainian fenomeno honek duen pisua eta herrialdeko ekonomian duen garrantzia behatzea komeni litzateke, hurbiltasunari jarraiki, Espainiar estatuaren egoera baita gehien interesatzen zaiguna.

Hala, GESTHA⁷ izeneko Ogasun Ministeritzako Teknikoen erakundeak eginiko 2009 eta 2014.urteko txostenetan oinarriturik egingo dugu Espainiako *Ezkatuko Ekonomiari* buruzko analisia.

Honela bada, Espainia mailan 2012.urteko *Ezkatuko Ekonomiak* BPGarekiko zuen ehunekoak %18,6koa zela esana dugu jada, 196.000 milioitako balore absolutua zuelarik. Aldiz, 2013.urtean, espainiar Estatuaren *Ezkatuko Ekonomiaren* datuak %29,1 izatera iritsi ziren eta horrek fenomeno ekonomiko honen goranzko joera nabarmentzen du.

Hala bada, espainiar Estatuak Europako zenbait herrialdek baino askoz ere irregulartasun handiagoa duela ere aipatu dugu jada, baina eskualdeen araberako analisia egingo bagenu, erkidego batzuetatik besteetarako zenbait ezberdintasun daudela ohartuko ginateke, herrialde honetako *Ezkatuko Ekonomia* ez baitago leku guztietan berdina zabaldua.

⁷ GESTHA: espainiar Estatuko Ogasun Ministeritzako teknikarien sindikatua.

1.1.Taula: 2009.urteko Espainiako Ezkatuko Ekonomia autonomia erkidegoen arabera (milioi eurotan)

Autonomia Erkidegoa	BPGarekiko %	Balio Absolutua
Katalunia	%22,3	43.704
Madril	%19,6	36.556
Andaluzia	%24,0	34.182
Valentziako Autonomia Erkidegoa	%24,3	24.707
Galizia	%26,3	13.917
Gaztela eta Leon	%25,0	13.652
Euskal Autonomia Erkidegoa	%20,6	13.560
Kanariar Irlak	%28,7	11.653
Gaztela Mantxa	%26,5	9.253
Aragoi	%25,5	8.356
Murtzia	%24,3	6.546
Balear Irlak	%19,2	5.060
Asturias	%20,2	4.633
Nafarroa	%20,0	3.575
Extremadura	%19,2	3.474
Kantabria	%23,7	3.206
Errioxa	%31,4	2.432

Iturria: Elaborazioa propioa, Eurostat-eko datuetatik abiatuta

1.1 Taula balio absolutuen arabera ordenaturik dagoen heinean, ikus daiteke Katalunia dela *Ezkatuko Ekonomia* handiena duen eskualdea, Madril eta Andaluziak ere balio oso altuak dituztelarik.

Aldiz, argi dago erkidego guztiek ez dutela tamaina bera ez eta BPG bera ere. Ondorioz, datu erlatiboetan oinarrituz, Errioxa da bere Barne Produktu Gordinarekiko irregulartasun handienak dituen eskualdea, autonomi erkidego handienetarikoa ez den arren. Errioxari jarraiki, Kanariar Irlak eta Gaztela Mantxa dira ehuneko handienetarikoak aurkeztu dituzten autonomia erkidegoak.

Hala bada, datu hauek jakinik, *Ezkatuko Ekonomiari* aurre egiteko neurriak non edo non diren beharrezkoago ikusi ahal izan dugu.


Bukatzeko, aipagarria da, Errioxa ehunekoaren arabera *Ezkatuko Ekonomia* larriena duen eskualdea dela, baina balore absolutuetan, bertan pairatzen diren irregulartasunek ez dute ia pisurik beste eskualdeekin alderatuz gero. Honen arrazoia Errioxako ekonomiak bertako jarduera ekonomikoekin sortzen duen BPGa, beste eskualdeena baino dezente txikiagoa dela da.

Gaur egungo datuak hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako BPGa 62.780 milioi eurotako izan zen 2013.urtean; aldiz, Errioxak 7.765 milioi eurotako BPGa sortu

zuen. Ikus daitekeen moduan, eskualde batetik besterako aldea izugarria da eta horrek eragiten du *Ezkatuko Ekonomiarekiko* ehunekoak Errioxan oso altuak izatea; Errioxak duen Barne Produktu Gordin txikiarekiko sortzen den *Ezkatuko Ekonomia* izugarria delako.

Jarraian, ordea, 2009.urteko datuak aztertu ondoren, 2013.urtekoak erreparatzera pasatuko gara egon daitezkeen aldaketei erreparatu eginez.

1.7 Grafikoa: 2013.urteko Espainiako Ezkatuko Ekonomia autonomia erkidegoen arabera



Iturria: GESTHA, 2014

1.7 Grafikoan ikusten den moduan, 2009.urteko *Ezkatuko Ekonomiaren* datuetatik hona ez da aldaketa handirik izan Espainiako autonomia erkidegoen baitan. Datuok diotenez, 2013.urtean Extremadura, Andaluzia eta Gaztela Mantxa izan dira fenomeno honen datu erlatibo handienak lortu dituztenak.

Datu aipagarri moduan, Errioxa lehen postuan egotetik *Ezkatuko Ekonomia* baxuenetarikoa izatera pasatu da, eta aldiz, Asturias eta Murtzia bezalakoek gero eta irregulartasun handiagoak dituzte beren ekonomietan. Honekin loturik, Extremadura eta Andaluziak ere gero eta arazo handiagoa dute fenomeno honekin, azken urte honetan batz bestekoaren artean egotetik muturreko datuak lortzera pasatu baitira.

Bukatzeko, Madril hiriburuak *Ezkatuko Ekonomia* baxua izaten jarraitzen du, honen arrazoia enpresa askoren zerga inposaketak bertan zergapetzen direla izan

daitekeelarik. Beste muturrean, Kanariar Irlek *Ezkatuko Ekonomiaren* arazo gero eta latzagoak dituztela ikus daiteke.

Hau guztia esanda, Espainiar estatuaren *Ezkatuko Ekonomia* %29,1ean kokatu zen urtean, datu hori gaintu zuten autonomia erkidegoak Andaluzia, Extremadura eta Gaztela Mantxa izan ziren batik bat. Hala, argi dago lurralde batzuetatik besteetarako aldea nahiko esanguratsua dela, eta beraz, Espainiar estatuaren baitan ere, autonomia erkidego batzuek besteek baino ika-mika handiagoak dituztela *Ezkatuko Ekonomia* deritzogun fenomeno ekonomiko honekin.

1.8 Ezkatuko Ekonomiaren Ondorioak

Aurretik azaldutako guztiak sor ditzakeen ondorioak aztertzea baino ez zaigu falta *Ezkatuko Ekonomiari* buruzko azterketa hau amaitzeko. Jarraian, bada, fenomeno ekonomiko honek bideratzen dituen egoerez arituko gara (Benito, 1988).

1. Estatistika fidagaitzak

Estatu edo Europa mailan egiten diren estatistika eta kalkulu estimatuek Ekonomia Errealari buruzko azterketak egin ohi dituzte, baina datu horietan ez da *Ezkatuko Ekonomiaren* pisua kontutan hartzen. Honekin bada, benetako Ekonomia kalkulu edo estatistikek adierazten dutena baino handiagoa izango da.

Gainera, BPG edo Errenta Nazionala bezalako adierazleak ez dira errealitatearen pareko izango, Kontabilitate Nazionalak uste duena baino jarduera ekonomiko handiagoa baitugu. Honekin batera, kontsumo eta aurrezki-tasak ere ez dira zehatzak izango. Langabetuen tasarekin ere gauza bera gertatuko litzateke, posible baita langabetuen taldean sartuta dagoena lanaldi irregularretan aritzea.

2. Politika ekonomiko desegokiak

Aurrekoarekin guztiz erlazionaturiko ondorioa da politika ekonomiko desegokiarena. Edonolako egoera ekonomiko baten aurrean, herrialde jakin bateko ekonomiaren arduradunek egoera horri buruzko azterketak egiten dituzte lehenik eta ondoren, azterketa horien arabera erabakiak hartzen dituzte. Hala bada, *Ezkatuko Ekonomiak* zehaztasun hertsirik gabeko azterketa ekonomikoak egitea eragiten du, eta ondorioz, horren arabera erabakiak ere ez dira guztiz egokiak izango.

Adibide bat ematearren, inflazio-tasa benetan dena baino gehiagoan estimatua balego, inflazio altuko egoeren politikak jarriko lirateke martxan eta horrek kalteak eragingo litzuke ekonomian, benetako inflazioa ez litzatekeelako hain altua izango.

3. Sistema ekonomikoaren funtzionamenduaren alterazioak

Ezkatuko Ekonomiaren bizirauteak, erregulatutako Ekonomiaren distortsioa sortzen duela jakina da dagoeneko. Honela bada, zergak eta betebeharrak fiskalak betetzen dituzten herritarrak benetan behar luketenak baino gutxiago diren heinean, Fiskalitatea gero eta gogorragoa izaten da ageriko ekonomian soilik jarduten dutenentzat; fraude fiskalaren parte hartzaileen ondorioz, presio fiskala gero eta handiagoa baita frauderik egiten ez dutenentzat. Guzti honek bada, sistema ekonomiko desorekatua sorrarazten du, Estatuaren Urteko Kontuetan eragin negatiboa izanaz.

Kontuan izan behar da gainera, *Ezkatuko Ekonomiak* Fiskalitatea ekiditeaz gain, karga sozial eta lan-kostuak murriztea ere bilatzen duela. Honela, beren jardura ekonomikoa legea guztiz errespetatuz egiten dutenek merkatu mailako lehiakortasuna galtzeko arrisku handia izan ohi dute, prezio eta zerbitzu bera emateko aukerarik ez baitute ekonomia erregulatutik atera gabe.

4. Langile- baldintzen okerreratzea

Ezkatuko Ekonomiaren arrazoiak azaldutako atalean (1.4 atala) esan bezala, krisi edo egoera desatseginetan Ekonomia mota hau indartu egin ohi da, langabeziak suposatzen dituen arazoak direla eta. Hala, kontraturik gabe edo kontratu desegokiak onartzeko lanaldiek ez dituzte langileen baldintzak babesten normalean, aurretik lortutako baldintzak gogortu baizik. Aldiz, *Ezkatuko Ekonomiari* dagozkien lanaldiak onartzeak zein ondorio ekartzen dituen edonork dakigun arren, egoera benetan txarra dutenek lan egin eta nola edo hala diru-sarrerak lortzea besterik ez dute buruan, eta guzti horretaz probetxua atera ohi du bere kostuak murrizteko helburua duenak.

Ondorio nagusi hauek aipatu ondoren, *Ezkatuko Ekonomiak* zein eragin nabarmen izan ditzakeen azaldu ditugu, orokorki hitz eginez, ondorio onik ekartzen ez duela esanaz.

Aldiz, *Ezkatuko Ekonomiak* izan ditzakeen abantailak aztertzea ere komenigarria litzateke, bertan parte hartzen dutenen ikuspuntua ulertzearen. Horri buruz aurrerago sakonduko dugu (1.10 atala), lehenik Ekonomia mota honen iraupena eta presentzia mugatzeko ezartzen diren neurriez hitz egingo baitugu.

1.9 Ezkatuko Ekonomiaren aurkako Neurriak

Ezkatuko Ekonomia gaur egun edozein herrialdeen ardura den heinean, Europako herrialde ezberdinek beren kabuz eta baita Europar Batasunaren baitan ere, neurri ezberdinak aplikatzen dituzte fenomeno honen desagerpena lortzeko helburuarekin. Argi dago, bada, epe luzera lortzeko helburua izango dela, mota honetako arazoak ez baitira egun baterik bestera konpontzekoak.

Lehenik eta behin, Europa mailako neurriak jorratuz, *Ezkatuko Ekonomiaren* inguruko neurriak garatzeaz arduratzen den erakundea *Eurofound*⁸ dela aipatu beharra dago. *Eurofound* Europar Kontseiluak sorturiko erakundea da, Europa mailako lan eta bizi baldintzak hobetzeko helburua betetzeko sortu zena.

Erakunde honek, bada, bi motatako neurriak sortu ditu *Ezkatuko Ekonomia* desagerrarazteko (Jimenez, 2013).

- i. Batetik, **debeku-neurriak** aplikatu ditu, legea errespetatzen ez duen oro isuntzean oinarritzen direnak.
- ii. Bestetik, aldiz, **motibazio-neurriak** jarri ditu, konpromiso sozialaren aldeko Europa sortu nahian.

⁸ <http://www.eurofound.europa.eu/>

1.2. Taula: Ezkatuko Ekonomiaren aurkako neurriak Europa mailan

NEURRIAK	MOTAK	JARDUERAK
Debekatzaileak	Kontrola	Datuen konprobaketa Erakundeen arteko kooperazioa
	Isunak	Legea ez betetzearen eta Fiskalitatea ekiditearen kontrako penalizazioak
Motibatzaileak	Prebentzioa	Legedia sinplifikatzea
		Laguntza teknologikoa ematea
		Lan mota berriak sortzea
		Enpresa txikiei laguntzak ematea
Hobekuntzak	Hobekuntzak	Fiskalitate erraztasunak
		Dohaineko aholkularitza
		Zergapen-sistemen berrikuspena
Konpromisoa	Konpromisoa	Aitortutako lanaldien promozioa
		Hezkuntza
		Justizia
		Etika morala

Iturria: Elaborazio propioa, Eurofound 2013.

2.1 Taula honetan azaldu moduan, bi motatako neurriak pairatzen ditu *Eurofound* erakundeak. Lehen esan bezala, lehenengo neurriak debeku moduan ezartzen direnak dira, *Ezkatuko Ekonomia* kontrolpean eduki ahal izateko edonolako enpresa edo norbanakoen gain egiten diren ohiko kontrolak eta inspektzioak eginez. Hala, ekonomia zuzenetik at dagoen oro isuntzean datza neurri mota hauek aplikatzea.

Neurri mota hauen adibide gisa, 2015.urte hasieran *Ezkatuko Ekonomiaren* aurkako kanpaina jarri du martxan Espainiar estatuak, helburu nagusiak diru-laguntzak kobratuz ilegalki lanean ari diren langileak salatzea eta kontraturik gabeko langileak dituzten enpresak isuntzea delarik (*El Diario Vasco* 2015).

Bestalde, *Ezkutuko Ekonomia* baztertzeko neurri motibatzaileen artean, hiru azpitalde sortzen ditu Europar erakunde honek. Batetik, *Ezkutuko Ekonomiaren* parte-hartzaile ez izatera bultzatzen duten neurriak aplikatzean oinarritzen diren prebentzioak; hala nola, Legedia betetzeko erraztasunak emanaz, teknologikoki lor daitezkeen abantailak ezagutaraziz edota Legedia betetzen duten lan mota berriak eskainiz.

Bigarrenik, Ekonomia Errealak hobe izan dadin lagunduko duten neurriak ere aplikatzen ditu *Eurofound* erakundeak, zergapen-sistema errazagoa, sinpleagoa eta aholkularien presentzian oinarrituriko sistema ezartzea proposatuz.

Azkenik, *Ezkutuko Ekonomia* parte hartzen dutenekiko estrategia morala proposatzen du, hezkuntza eta justizia sailetan konpromiso sozialaren aldeko jarrera hartuz.

Guzti honekin, bada, Europar erakunde honek *Ezkutuko Ekonomiaren* aurka egin daitekeena proposatzen du, ondoren herrialde bakoitzak neurri hauek modu batera edo bestera aplikatu ahal izango dituelarik.

1.10 Ezkutuko Ekonomiarekiko Etika

Ezkatuko Ekonomia batzuei kalte egiten dien bitartean beste batzuen onurarako izaten den fenomenoa izanik, bada ekonomia mota hau defendatzeko argudioak lortzen dituenik ere. Orain artean esan dugunarekiko, Etika-falta da *Ezkatuko Ekonomiaren* arrazoietako bat eta hau bera da fenomeno hau desagerrarazteko beharko genukeen ezaugarrietako bat.

Aldiz, Etikak bi zentzu izan ohi ditu beti, eta ikuspuntu batetik txarto egina deritzonak beste muturretik kontrakoa dirudi zenbait kasutan.

Hala bada, puntu honetan *Ezkatuko Ekonomiak* izan ditzakeen funtzio moralak aztertzeari ekingo diogu (CC.OO, 1994):

Orokorrean, agente ekonomiko guztiek edo ia guztiek *Ezkatuko Ekonomiak* sor ditzakeen ondorio negatiboak zein diren ezagutzen dituzten arren, batzuek bertan parte hartzeko alderdi positiboa bilatu ohi diote fenomeno honi. Hauen ustetan, Estatuak ezarritako presio fiskalari eta Lan Merkatuaren erregulazio zorrotzei aurre egiteko irtenbidea da, merkatuan arrakasta lortu ahal izateko. Gainera, gaur egun bizi garen mundu liberalaren parte bezala ikusten dute *Ezkatuko Ekonomia*, beraiekiko eragiten dituen ondorio kaltegarriak onurakoak baino txikiagoak izanik.

Bestalde, ordea, badira ideia horien guztiz kontrakoa diotenak ere. Administrazio publikoa, sindikatuak eta erakunde progresista bezalako erakundeek *Ezkatuko Ekonomia* iraganerako pausu atzerakor moduan ikusten dute, gutxiren joera okerrak beste askoren kaltea dakarrela esanaz.

Horrela bada, gizarte-talde ezberdinen iritziak tartekatuko bagenitu, hainbat ondorio lortuko genituzke:

1. **Herritarrek orokorrean fenomeno honekiko jarrera toleratzailea dutela esan genezake.** Bakoitzak bere interes propioen arabera jarrera hartu ohi du, orokorki *Ezkatuko Ekonomiak* duen garrantzia kontuan hartu gabe. Hala ere, egia da azkenaldian entzun ohi ditugun korrupzio berriek haserre publikoa sorrarazten dutela, dirudunek fraude egiteak min handiagoa egiten baitu herritar xumeak egin ditzakeen “trikimailuek” baino. Honen harira *Urdangarin*

kasua dugu aipagai, hurrengo atalean azalduko ditugun *Paradisu Fiskalen* inguruko fraude fiskal ugari leporatu dizkiotelako.

2. **Enpresarien perfila Ezkutuko Ekonomiaren aldekoa**, edo guztiz kontrakoa behintzat ez dela esan genezake. Kasu honetan ere, enpresa mota eta egoeraren arabera helburuen inguruan bakoitzak dituen interesak defendatzen ditu. Aurreko ataletan azaldu moduan, kostuak murriztu eta etekinak hobetzearren egin litekeen guztia egin ohi du enpresari ugari, legea modu estrategikoan urratuz.
3. **Sindikatuena** da *Ezkatuko Ekonomiaren* inguruan sortzen den hirugarren gizarte-taldea. Hauen kasuan, **fenomeno honen aurkako pertsonaia nagusiak** dira, jardura irregularren inguruan sor daitezkeen nolakotasun guztiak salatuz. Hala ere, argi dago, hauen defentsa nagusia langileen eskubideak bermatzea dela.

Hau guztia esanik, *Ezkatuko Ekonomiaren* inguruan egon daitezkeen jarrera ezberdinak hiru motatakoak direla esan genezake orokorrean:

1. Lehenengo aukera fenomeno honen **kontrako jarrera** da, sindikatu eta administrazio publikoek defendatzen duten ikuspuntua delarik.
2. Bigarrena, *Ezkatuko Ekonomiari* **probetxua ateratzen diotenen jarrera da**, eta ondorioz, fenomeno honen desagertzea beren helburuetatik at gelditzen da.
3. Azkenik, **tolerantzia jarrera** da *Ezkatuko Ekonomiaren* ez alde, ez aurka egoteko aukera. Kasu honetan, momentu edota egoeraren arabera jarrera hartzea izaten da ohikoena.

Ondorioz, *Ezkatuko Ekonomiarekiko* Etikari buruz esandako guztia esan ondoren, Etika ikuspuntuaren arabera gaia dela esan daiteke. Moralki zuzenena *Ezkatuko Ekonomiarik* ez egotea litzatekeela dakigun arren, Etika guztiok nork bere buruari aplikatu beharko geniokeena da eta hori gaur egun ezinezkotzat jo genezake.

Aurreko atalean aztertu dugun eboluzioari jarraiki, azken urteetan *Ezkatuko Ekonomiak* ez du beharrezko joerarik izan eta beraz, Etikari esker fenomeno hau gure ekonomiatik desagerraraztea lortzen bada, epe luzera izango da.

Gauzak honela, teorikoki moralitateak gauza bat esaten duen arren, errealitatean beste modu batera jokatzeko aukera da benetan arrakasta lortzen duena askotan. Egia da, askok modu zuzen eta adeitsuak jokatzeko duten bitartean, beste askok beren

interesen aldeko Etika aplikatu ohi dutela; beraz Etikaren erabilera ez da beti berdina izaten, *Ezkutuko Ekonomiaren* kasuan behintzat.

Honetaz gain, aipatu beharra dago, Etikaren kontzeptua herrialde batzuetatik besteetara oso aldakorra dela, guretzat toleragarriak izan daitezkeen ekintzak Austria moduko herrialdeetan zentzugabekeriatzat jotzen baitituzte. Ondorioz, Etikarekiko ikuspuntu ezberdintasunek *Ezkutuko Ekonomiaren* datuetan diferentzia nabarmenak islatzen dituzte.

Azkenik, egia da Etikaren kontzeptua oso kaltetua dagoela azken urteetan, herritarron erreferentzia moduan jokatu beharko luketen politiko eta gobernariak ez baitute fenomeno ekonomiko honen aurkako jarrerarik erakusten, guztiz kontrakoa baizik.

“Eredugarri izatea ez da besteengan eragiteko bide garrantzitsuena; bide bakarra baizik” (Albert Einstein).

2. Atala: Paradisu Fiskalak

2.1 Zer dira Paradisu Fiskalak?

Aurreko gaietan *Ezkatuko Ekonomiari* buruz jardun garenez, fenomeno honekiko erlazio zuzena duten **Paradisu Fiskalak** jorratuko ditugu hurrengo lerroetan. *Paradisu Fiskal* deritzonak esanahi ugari izan ditzake, ikuspuntu positibo edo negatibotik begiratzen denaren arabera. Aldiz, ahalik eta objektiboen izateko helburuarekin, modu honetan defini daitezke *Paradisu Fiskalak*: anglosajoiien hitzei erreparatuz, “**Tax Haven**” hitzekin ematen zaie esanahia *Paradisu Fiskalei*. Espresio honek “babesleku fiskala” esan nahi du, beraz *Paradisu Fiskalak* pertsona fisiko edota juridikoek abantaila fiskalak lortzeko aukera duten lekuak izango dira, bertan ezartzen diren zerga fiskalak oso txikiak edo nuluak direlako.

Abantaila fiskal hauek, zergak ekiditean oinarritzen dira batez ere eta nazioarteko hitzarmen fiskalak uniformeak ez izateagatik sortzen da *Paradisu Fiskalen* aukera hau (Chambost, 1978).

Hala, bada, orokorrean *Paradisu Fiskal* gisa jarduten duten herrialdeak industria gutxi garatu duten herrialde txiki eta turistikoak izan ohi dira, urtez urte gero eta herrialde handiagoak ere *Paradisu Fiskal* bihurtzen ari diren arren.

Honela bada, *Paradisu Fiskal* deritzen herrialdeek Legedia Fiskal egokia izan ohi dute bertakoak ez diren dirudunentzat eta hauek beren dirua “ezkutuko” kontuetan gordetzen duten heinean, herrialdeak dibisetatik irabaziak lortzen ditu.

Aurrerago guzti honetaz modu zehatzagoan hitz egingo dugula jakinik, orokorrean **Paradisu Fiskal** hitzak aipatzen direnean guztioi bururatzen zaizkigun lehen herrialdeak Suitza, Kaiman Irlak edo Jersey Irla izan daitezke. Guzti hauek **Offshore Finantza-Zentro** bezala ezagutzen dira, eta **diskrezioa** *Paradisu Fiskalen* funtzionamendurako punturik garrantzitsuena dela partekatzen dute.

Paradisu fiskalez hitz egiterakoan, gai honek bi alderdi nagusi dituela esan genezake:

- i. Batetik, nazioarteko finantzekin erlasionaturiko **herrialde turistikoetan** kokatzen gara, guzti horrek bere xarma izan dezakeela onartuz.
- ii. Bestalde, ordea, fiskalki ihes egiteko aukera eman ohi duten herrialdeetan nazioarteko **delinkuentzia eta krimen organizatuak** agertu ohi dira eta beharbada hau izan liteke *Paradisu Fiskalen* paradisuurik beltzena.

Nolanahi ere, aipaturiko azken gai horri inolako garrantzirik kendu nahi ez diogun arren, gure kasuan finantza arloarekin zerikusia duena interesatzen zaigunez, *Paradisu Fiskalak* **ekonomikoki, kontableki edota fiskalki** zer eta nolakoak diren jakitea dugu helburu.

Zergak aurreztu edo ekiditeko jarrera atzo goizeko kontua ez dela jakinik, herrialde guztiek dute batzuentzat, batez ere enpresa handientzat, abantaila fiskalik lortzeko ihesbidea. Gaur egun ***Offshore Mundua*** Nazioarteko Ekonomiaren parte da eta Finantza Sistematan gero eta nagusitasun handiagoa ari da lortzen. ***Ezikutuko Ekonomiarekin*** gertatzen den zentzu berean, Globalizazioak eta teknologiak ematen dizkiguten abantailak ***Offshore Munduari*** ere aukera positiboak ematen dizkiote eta horrek sektore honen indartzea dakar.

Lehen aipatu moduan, anglosajoiak “Tax Haven” deituriko honi hainbat eta hainbat izen eman zatzaizkio hizkuntza eta ikuspuntuaren arabera. *Offshore*, gai honi buruz hitz egiterakoan, gero eta ezagunago bihurtzen ari den hitza da eta ***“tributazio baxu”*** esan nahi du. Horretaz gain, ***“Fiskalitate oasia”*** ere deitu izan zaio; aipaturiko guztiek, gu geuk *Paradisu Fiskalak* bezala izendatuko ditugun hauek, abantaila fiskalak lortzeko leku bezala definitzen direlarik.

Esan beharra dago, ez dela munduan *Paradisu Fiskal* perfekturik edo hoberena dela esan genezakeenik, norbanakoak dituen helburuen arabera herrialde bat edo besteak ematen dituen abantailak hobeak baitira. Ondorioz, aurrerago ikusiko dugun moduan (2.6 atalean), inbertitzaile moten araberrako *Paradisu Fiskalak* sortzen dira.

2.2 Paradisu Fiskalen Ezaugarriak

Aurretik esan bezala, **Paradisu Fiskal** bezala ezagutzen dugu zergak ez ordaintzeko edo zerga gutxiago ordaintzeko abantaila ematen duen herrialde oro, baina horrek ez du esan nahi zergak ez ordaintze hori edo zerga gutxiago ordaintze hori guztiei eragiten dien zerbait denik. Badira herrialdeak, bertakoak ez direnentzat zerga ordainketa oso baxuak dituzten arren, bertakoentzat zerga inposaketa altua dutenak.

Honela bada, *Paradisu Fiskal* guztiek izan ohi dituzten ezaugarriak azaltzeari ekingo diogu jarraian (Martínez Selva, 2009):

- **Zerga-tasa baxuak.**

Paradisu Fiskal gehienetan bertako ez direnek ez dute inolako zergarik ordaintzeko betebeharririk izaten, inskripzio eta mantenu-tasei dagozkienak kenduta. Ondorioz, hau izaten da *Paradisu Fiskalen* erabilera egiteko arrazoi nagusia, posibleak handitu edota kostuak murrizteko helburuarekin egiten baitira mota honetako jarduerak.

- **Lege bidezko sekretu bankario eta komertziala.**

Herrialde askotan kartzela bidezko zigorra ezartzen da banku eta merkataritza gaien inguruko sekretuak zapaltzeagatik. Ondorioz, hau da *Paradisu Fiskalek* ematen duten abantaila nagusienetako bat, honi esker beren inbertsioen segurtasuna bermatzea lortzen baitute inbertitzaileek.

- **Legedia Fiskal eta komertzial erakargarria.**

Erakargarritasun hau sozietateak sortu eta diru-fondoan onarpenerako baldintza errazak edo hutsalak ezartzearekin dago erlazionatua. Hau ere norbanakoak dirua bere herrialdetik atera eta erakargarriagoak diren herrialdetan finkatzeko arrazoi nagusienetako bat izan ohi da.

- **Kanbio-kontrolik ez egotea eta diru-mugimenduak egiteko askatasun osoa.**

Ezaugarri hau bakoitzak bere dirua batetik bestera ibiltzeko aukera izatea da, Estatu edo gobernuari inolako azalpenik emateko betebeharririk izan gabe. Askatasun zabal eta kontrol-gabezia honek agerian egoterik nahi ez den gutzia gordetzea edo ezkutuan mantentzea errazagoa izatea ondorioztatzen du.

- ***Administrazio kontrol eta erregulazio eza.***

Ezaugarri honek ez du esan nahi *Paradisu Fiskalak* garatu gabeko Legedia edota Fiskalitate xumea duten herrialdeak direnik, guztiz kontrakoa baizik. *Offshore* ingurune deritzon herrialdeek fiskalki oso espezializatuak dauden bankuak izan ohi dituzte, eskaintzen dituzten zerbitzu guztien arrakastaren arrazoia zein den inork baino hobeto dakitelarik.

Aldiz, herrialde hauetako Estatuak fiskalki beste herrialdeetan egon daitezkeen erregulazioak ezartzea ekiditen dute, beraiek ere *Paradisu Fiskal* izatetik abantaila lortzen dutelako.

- ***Sistema juridiko malgua.***

Paradisu Fiskal moduan ezagutzen diren herrialdeek ez dute Legedia zorrotza izaten Fiskalitateari dagokionean. Inbertitzaileei beren diruarekin nahi dutena egiteko askatasuna emategatik dira ezagunak herrialde hauek; bai sozietateak eratu, herentziak partekatu edota kapitalen mugimenduak egiteko malgutasun handia ematen baitute.

- ***Egonkortasun ekonomiko eta politikoa.***

Mundu mailako *Paradisu Fiskal* guztientzat ezinbesteko ezaugarria da egonkortasunarena, inbertitzaileei beren diruarekin jokatzeko segurtasuna ematea behar-beharrezkoa baita. Ekonomikoki eta politikoki orekatuak ez dauden herrialdeek fiskalki izan dezaketen erakargarritasun guztia galtzen dute, ez baitiote inbertitzaileei segurtasunik bermatzen.

- ***Zerga-sistema zorrotzak dituzten herrialdeekin informazio fiskala partekatzeko hitzarmenik ez egotea.***

Paradisu Fiskala izan daitekeen herrialde batek, abantaila fiskalik ematen ez duen beste bati inbertitzaileen inguruko informazioa emateko aukera egoteak arazoak ekar dakizkioke zerga lokalak ez ordaintzearen dirua beste toki batera bidali duen norbanakoari. Ondorioz, hau ere kontutan izateko ezaugarria da, gaur egun, zerga-ekiditeak murrizteko hitzarmen ugari sinatzen baitira herrialde ezberdinen artean, eta honek, lehen erakargarria zirudiena orain kontrako muturrean kokatzen baitu.

- ***Komunikazio-ahalbide zabalak.***

Gaur egun ditugun teknologia aurrerapenei esker, herrialde gehienek duten komunikazio-ahalmena egokia da, baina *Paradisu Fiskalek*, are eta hobea izan ohi dute, orokorrean. Finantza munduan boterea duten herrialdeek edozein momentutan kontaktuan jartzeko zerbitzua eskaintzen diete beren bezeroei, eguneko 24 ordutan eta urteko egun guztietan. Horretaz gain, hizkuntza ugari jakin ohi duen finantza munduan espezializatutako pertsonala izan ohi dute.

Komunikazio ahalbideei buruzko ezaugarri honetan azpimarratu beharra dago, gaur egun, Internet sortu eta garatu zenetik komunikazio-ahalmen egokiak izateko aukerak askoz zabalagoak direla.

Guzti honekin bada, mundu mailako *Paradisu Fiskalek* izan ohi dituzten ezaugarriak azaldu ditugu modu orokor batean, aurrerago mota honetako herrialde bakoitzak eskaintzen dituen abantaila eta aukerak modu zehatzagoan emango ditugularik (2.12 ataletik aurrera).

2.3 Paradisu Fiskalen Erabiltzaileak

Offshore inbertsioen mundua oso zabala eta irekia da. *Paradisu Fiskalen* inguruan nazioarteko enpresa internazionalatik hasi eta enpresa txiki eta ertainetarainoko guztiak bildu daitezke. Elite mailako kirolariak, edozein motatako enpresak, inbertitzaile txikiak edota herentzia handiak biltzen dituzten familiak izan daitezke *Paradisu Fiskalen* erabiltzaile. Guzti hauek, abantaila fiskalak bilatzeko eta zergen ordainketa murrizteko helburua izango dute, eta zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta aukera gehiago izango dute *Paradisu Fiskalen* munduan.

Orokorrean, *Paradisu Fiskalen* munduan murgiltzeko helburua duen orok honako jarduera hauek burutu ohi ditu (Martínez Selva, 2009):

- **Aholkularitza bilatu.**

Fiskalitate gaietan espezializatua dagoen norbaitekin kontaktuan jartzea gaur egun ia ezinbesteko egiteko bihurtu da inbertitzaileentzat; dirua ondo administratu ahal izateko aholkulari egokia izatea garrantzitsua baita, beti ere azken hitza bezeroarena izango den arren. Hala, aholkularitza honek dirua modu zuzen eta seguruan mugitzeko eman beharreko pausuak zehaztu beharko dizkio bere bezeroari.

- **Dibertsifikazioa.**

Egindako inbertsioarekin, emaitza onak lortzea edo gutxienez jarritako dirua mantentzeko helburua duen orok, ezin du dibertsifikazio-estrategia alde batera utzi; hau baita arriskua murrizteko aukerarik hoberena. Inbertitzaileak bere inbertsioa zatitzea da aukera egokiena, diru guztia produktu, zerbitzu edo dibisa berdinetan murgildu beharrean, mota ezberdinetako inbertsioak eginez. Modu honetan, inbertsioren bat porrotean amaitzen bada, dibertsifikazioari esker, beste inbertsioekin oreka puntua lortuko luke inbertitzaileak.

- **Diruaren kanporatzea.**

Diru pilaketa jakin bat duen norbanakoak diru hori herrialdetik ateratzeko erabakia har dezake, modu horretan *Paradisu Fiskalek* eskaintzen dituzten abantaila probetxua ateratzeko helburuarekin. Honek ez du esan nahi atzerriko herrialderen batean inbertsioa egiterik, dirua beste herrialde batera bidaltzea baizik; atzerrian kokatua dagoen bankuren batean kontu-korrante bat irekiz adibidez.

- **Ondasunak ezkatzea.**

Paradisu Fiskalen erabiltzaile izateko aukera onartzen duen orok bere ondasunak ezkatzea bilatzen du, benetan dena baino botere edo aberastasun txikiagoa duela erakutsi nahian. Hala, horretarako estrategiarik onena dituen ondasunak gordetzea da, *Paradisu Fiskalen* erabilerari esker.

- **Herentzia.**

Herentzia bat eskuratzeak jasan ohi dituen zergen inposaketak ekiditea ere *Paradisu Fiskalen* erabiltzaileen helburuetako bat izan daiteke, herrialde jakin batean ordaindu beharrekoa aurreztu baitaiteke herentzia jakin bat beste herrialde batean kudeatuz gero.

Honela bada, *Paradisu Fiskaletan* parte hartu ohi duten erabiltzaileek egiten dituzten jarduerak azaldu ondoren, esan beharra dago erabiltzaileak orokorrean beren herrialdearekiko gertutasunagatik egiten dutela *Paradisu Fiskalen* aukeraketa.

Orokorrean hizkuntza eta kultura antzekotasun handienak dituzten herrialdeak bilatu ohi dituzte inbertitzaileek beren diruaren administrazioa non kudeatu erabakitzeko garaian.

Hala bada, **britainiarrek** Kaiman Irlak, Gibraltar, Bahamak edota Birjina Irla britainiarrak aukeratu ohi dituzte; beren herrialdeak antzinan izandako koloniak baitira guzti hauek.

Frantziarren kasuan, Monako, Andorra eta Suitza dira *Paradisu Fiskal* ohikoenak eta **holandarrek** Aruba eta Antilla holandarrak dituzte gustukoak. **Alemaniarrek** Suitza, Luxenburgo edota Liechtestein aukeratzen dituzte orokorrean eta **iparamerikarrek**, aldiz, Estatu Batuetako Birjina Irlak, Marshall Irlak, Bahamak edo Bermudasak.

Ikus daitekeen moduan, herrialde guztiek edo ia guztiek gertutasunaren irizpidea erabili ohi dute beren Paradisu Fiskalak aukeratzeko orduan; gaur egun hain garatu dugun Internet bidezko komunikazioarekin, gertatutasuna ezaugarri erlatibo bihurtzen ari den arren. Interneti esker, *Paradisu Fiskalen* merkatuak azkartasuna, erraztasuna eta maila garatuagoa izatea lortu du, berehalako zerbitzua eskaintzeko aukera ematen baitu.

Paradisu Fiskalen atal honi amaiera emateko, erabiltzaile **espainiarrak zer nolako joera** izan ohi duen aipatzea besterik ez zaigu gelditzen.

Lehenik eta behin, dirua kudeatzeko estrategia nagusi bilakatu den *Paradisu Fiskalen* mundua zabaltzen ari den heinean, Espainian ere gero eta enpresa, bai handi eta bai txiki, gehiagok du *Paradisu Fiskaletara* jotzeko jarrera. Hala bada, enpresa finantzario

edo ez-finantzario direnak inbertsioak egiteko, finantzapena lortzeko edo mozkinak handitzeko jarduerak bilatzen saiatzen dira *Paradisu Fiskalen* bidearen baitan.

Kokalekuari dagokionean, **Espainiar** erabiltzaileak Andorra, Gibraltar, Luxenburgo, Kanal irlak edota Suitza aukeratu ohi ditu *Paradisu Fiskal* modura. Berriz ere gertutasunari dagokion irizpidea erabiltzen du Espainiak ere, dirua zenbat eta urrunago eramateak segurtasun eza sorrazten baitu zenbait kasutan.

Hala eta guztiz ere, esan bezala, Internet komunikabideak urruntasuna ezabatzea lortzen du, gaur egun *Offshore* jarduerak etxetik bertatik egin eta kudeatu ahal baitira. Bestalde, badira gertutasunaren ildoaz gain *Paradisu Fiskala* aukeratzeko orduan kontutan hartu beharreko zenbait esapide, aurrerago(2.5 atalean) jorratuko ditugunak.

2.4 Offshore Filosofia

Jadanik aipatu dugun moduan, *Offshore* munduan parten hartze duen edo parte hartzeko intentzioa duen orok bere herrialdea eta atzerrikoen erregimen fiskalen artean dauden ezberdintasunei probetxua ateratzeko helburua izango du nagusiki.

Paradisu fiskaletan murgiltzearen jarduerarik sinpleena atzerriko herrialde batean kontu-korrente bat irekitzea da. Beraz, hortik aurrerako jarduera guztiek konplexutasun maila handiagoa izango dute eta horrek suposatzen duen arriskuak ere garrantzi handiagoa izango du. Ondorioz, atzerrian inbertsio plan bat egiteko aukera ongi aztertu beharreko kontua izango da, gehienetan aholkulari espezializatuen beharra izanik eta epe jakin batera lortu nahi dena ahalik eta modu zehatzenean aztertuz.

Honela bada, zein inbertsio egin, non egin eta zenbat denborarako egin nahi den erabakitzeaz gain, ondoren inbertsio horren jarraipena egitea komeni da.

Jarraian bada, atzerrian inbertitzea erabakitzen duen orok jakin beharreko arau edota printzipioak azaltzera ekingo diogu (Spitz, 1999):

1. Inbertitzailearen herrialdea kenduta, **munduko herrialde asko izan daitezke Paradisu Fiskalak**, atzerriarrentzako abantailak bertakoentzakoak baino hobeak izaten baitira orokorrean. Bertakoa ez den batentzat *Paradisu Fiskala* den herrialdea bertakoa den herritararentzat Tributazio edo Zerga-Sistema altuko herrialdea izan daiteke. Modu honetan, Espainia ere bertakoak ez diren jubilatu edo turistentzat *Paradisu Fiskala* izan daiteke, ez beren herrialde ez eta Espainiako Ogasunaren kontrolik gabe daudelako. Honekin bada, herrialde bakoitzak ezaugarri berezi batzuk dituen heinean, batzuk gertutasunagatik dira *Paradisu Fiskal* onak, besteak enpresak sortzeko abantailak ematen dituztelako eta beste batzuk, berriz, bertan inbertitzeko edota egonlekua finkatzeko Legedi aproposa dutelako.
2. Aurreko atalean azaldu moduan, *Paradisu Fiskalen* inbertitzaileek beren **dirua ahalik eta seguruena gordetzea** bilatzen dute, beren herrialdean izan ditzaketen oztopo fiskal, legal edota ekonomikoak ekiditeko helburuarekin. Hau jakinik, bada, *Offshore* filosofiaren ustetan, diru kantitate garrantzitsu bat duen edonork izan beharko luke *Offshore* munduan parte-hartzerik, gaur egungo ingurune aldakorrek ekar ditzakeen gorabeherak leuntzeko helburuarekin.

3. *Paradisu Fiskaletan* iaioa den edonork emango lukeen aholku nagusietako bat **diskrezio** hitza izango litzatekeelako zalantzarik ez dago. Diskrezioa teorikoki errazen ulertu daitekeen aholkua da, baina praktikan betetzea gehien kostatzen dena ere bai. Arau orokor moduan, *Offshore* munduan izan litezkeen parte-hartzeek inori berririk ez ematea da gomendagarriena. Egia da baina, ekonomikoki egoera onean egotea eta hori ez adieraztea ez direla bat etortzen; diru asko duenak kotxeak, etxeak edo dena delakoak erosi nahiko dituelako eta hori diskrezioarekin ez datorrelako bat. Hala ere, boteretsua izan eta irudi hori ez ematea zaila den arren, botere hori zenbaterainokoa den ez erakustea aholkatu ohi da, eta noski, *Paradisu Fiskalekin* izan daitekeen zerikusiarri buruzko aipamenik ez egitea.
4. Aurreko puntuan azaldutako *diskrezioarekin* erlazioa sortuz, *Offshore* jarduera bat egitean **ahalik eta pribatutasun handiena mantentzea** da aholkua. Hala, aurreko ataletan aipaturiko aholkularien beharra garrantzitsua den arren, ahalik eta aholkulari, bankero edota administratzaile gutxien izateko saiakuntza egin beharko litzateke; *Offshore* jardueren berri zenbat eta jende gehiagok izan, pribatutasunak gero eta indar txikiagoa izango baitu. Gainera, inbertsioen kudeaketan parte hartzen duen jendeak inbertitzailearengan gastua suposatzen duela medio, ahalik eta jende gutxiena izatea komeni da, bai kostu eta baita konfidentzialtasun ikuspuntutik ere.
5. Konfiantzari dagokionean, benetan kontuan hartu beharreko puntua da honako hau, inbertitzaileak bere **aholkulari eta administratzaileekiko erabateko konfiantza** izatea ezinbestekoa baita. Inbertitzailea nolakoa den, zer helburu dituen eta noraino iritsi nahi duen jakin beharko du bere inguruan lanean dabilen orok, modu hori baita arrakasta izateko aukera bakarra. Honela bada, inbertitzaileak arriskuarekiko duen joera ezkorra edo neutrala den jakin beharko da, zein inbertsio mota egin nahi dituen eta zenbateko epean jokatu nahi duen, besteak beste.
6. Inbertsioa egin nahi den **herrialdearen baldintza sozial, politiko eta ekonomikoak** ere kontutan hartzeko gaiak dira. *Offshore* filosofiak ahalik eta herrialde egonkorrena bilatu nahiko du beti, bertakoa ez den inbertitzailearentzat aldaketa edo ondorio sakonik ekarriko ez duen herrialdea. Ildo honetatik, bada, mundu mailan ezagunak diren *Paradisu Fiskalek* gobernu orekatua izan ohi dute eta hain orekatua ez izanda ere, atzerriko inbertitzaileekiko baldintzak aldatzeko probabilitate gutxiko herrialdeak izan ohi dira.

Guzti honekin, bada, *Paradisu Fiskalen* munduan jarduten duen inbertitzaile orok izan beharreko printzipio multzoa aipatutzat joko dugu, baina azpimarratu beharra dago esandako sei puntu hauez gain, **Legeen inguruan egon litezkeen aldaketen berri** izatea eta aldaketa horien araberako estrategiak aplikatzea ere ezinbestekoa dela.

Horretarako, nazioarteko prentsa irakurtzea, *Offshore* lurraldeak deritzenak ezagutzea eta ekonomiaren ibilbidea zer nolakoa izaten ari den aztertzea gomendatu ohi da.

Azkenik esan, Finantza-munduaren gaurkotasuna mantentzea errazagoa dela gaur egun, aurretik jada aipatu dugun Interneti esker.

2.5 Paradisu Fiskalen Aukeraketa

Offshore munduaren baitan murgiltzeko erabakia hartzen denean, ongi aztertu beharreko hainbat faktore eragile hartu behar dira kontutan (Chambost, 1978):

1. Batetik, **faktore orokorrak** dira lehenik aztertu beharrekoak.
2. Bigarrenik, **inbertitzailearen faktore espezifikoak** zein diren jakin behar da.
3. Azkenik, aukeratu nahi den **herrialdearen faktore bereziak** ere ikertu behar dira.

Hala bada, jarraian *Paradisu Fiskala* aukeratzeko orduan behatu beharreko faktore hauek azaltzera ekingo diogu:

1. Faktore Orokorrak.

Faktore orokorrak inbertitzailea eta inbertsio-lekuaren xehetasun handirik ezagutu beharrik gabe aztertu beharreko faktoreak dira. Modu honetan, *Paradisu Fiskala* izango den herrialdeak onarpen politiko eta ekonomikoa izan behar du, garraio eta komunikabide egokiak dituena, ekonomikoki egoera egonkorrean dagoena, kanbio-tasekin aldaketa sakonik izaten ez duena eta gizarte egitura sendoduna. Ezaugarri guzti hauek aurretik jada aipatuak ditugunak dira guztiak, edonolako inbertsiorik egiteko eskatu beharreko gutxieneko baldintzak direlarik.

Hala, bada, faktore orokor hauek betetzen dituen herrialde ugari egongo da, baina ondoren, beste bi motatako faktoreak ezartzen ditugun heinean, *Paradisu Fiskal* modura erabiltzeko herrialde multzoa gero eta txikiagoa izango da.

2. Inbertitzailearen Faktoreak.

Aurretik azaldu dugun era berean, ez dago *Paradisu Fiskal* hoberen moduan izendatu daitekeen herrialderik, lortu nahi diren helburuen arabera lekuak baizik. Inbertitzaileen faktoreak izango dira, beraz, *Paradisu Fiskal* egokiena aukeratzeko aztertu behar diren ezaugarriak. Modu honetan, inbertitzaileak ezertan hasi baino lehen duen egoera zer nolakoa den jakin behar da, zein helburu lortu nahi dituen aztertu, eta horretarako erabili nahi duen denborak duen luzapena kalkulatu.

Informazio guzti hori biltzea lortzen den unean inbertitzailearentzat herrialderik egokienak zein diren jakitea lortuko dugu, herrialdearen faktore espezifikoak zein diren jakitea falta zaigun arren.

3. Herrialdearen Faktoreak.

Offshore zerbitzuen jarduerak martxan jarri aurretik, aztertu beharreko azken faktoreak herrialde berak dituenak dira. Kasu honetan, gure herrialdearen eta atzerrikoen artean dauden ezberdintasunak zer nolakoak diren begiratzea da egin beharreko zeregin nagusia, ezberdintasun horietatik atera daitezkeen abantailak ezagutze aldera. Modu honetan, inbertitzailearen ezaugarrien arabera, Legedia Fiskal erakargarriena duen herrialdea aukeratu beharko litzateke, arriskua ere kontutan izanik.

Hiru faktore mota horiek aztertu ondoren, *Paradisu Fiskal* bat edo bestea aukeratzeko lana eginga izango genuke eta hurrengo pausua, egin daitezkeen inbertsio motak aztertzea izango litzateke. Aldiz, hori egin aurretik bada azpimarratu beharreko zerbait: **Paradisu Fiskal** terminoak berak ematen duen Paradisu ikuspuntua ez da inoiz erabat perfektu eta liluragarria izango. *Offshore* jarduerak egiteak baditu bere **desabantaila** batzuk ere, jarduera hauek egin edo ez egin erabaki aurretik kontutan izan beharrekoak.

Honela bada, *Paradisu Fiskaletan* inbertitzeak bere zailtasun eta arriskuak izango ditu beti:

1. Batetik, finantza-jarduerak **ulertzea** ez da lan erraza edonorentzat eta finantza-munduak mugitzen duen guztiaz jabetzea ere ez.
2. Bestetik, ulermen maila hori hobetzeko erabili ohi diren aholkulariak izateak suposatzen duen **kostua** ere kontutan hartzekoa da, eta ez hori bakarrik; *Offshore* zerbitzuek izaten dituzten komisio eta banku-gastuak altuak izan ohi dira.
3. Azkenik, edonolako inbertsioak egiteak dakarren **arriskua** neurtzea ere ezinbesteko lana da.

Ondorioz, *Paradisu Fiskaletan* murgildu eta norberaren dirua bertan kudeatzeko egitasmoa epe luzerakoa izatea komeni da, sortzen dituen gastu eta arriskuak amortizatzeko nahikoa denbora izan dezan. Gainera, epe luze hori batez ere inbertitzeko funts nahikoa duenarentzat egongo da zuzendua.

2.6 Paradisu Fiskal Motak

Aurreko ataletan, *Paradisu Fiskal* orok izaten dituen ezaugarriak zein diren aipatu ditugu eta baita *Paradisu Fiskal* bat aukeratzeko orduan kontutan izan behar diren faktoreak ere. Hala bada, mundu mailan egon daitezkeen *Paradisu Fiskal* motak zer nolakoak diren azaltzera ekingo diogu jarraian.

Orokorrean, bi taldeko banaketa egin daiteke mundu mailako *Paradisu Fiskalak* aztertzerako orduan:

1. Batetik, atzerritarrentzako **orokorrean abantaila fiskal egokiak** eskaintzen dituzten herrialdeak ditugu.
2. Bestetik, inbertitzailearen **ezaugarri eta helburuen arabera** *Paradisu Fiskalak* ditugu aztergai.

Lehenengo taldean, *Offshore* herrialdeetat hartzen diren guztiak sartzen dira, eta bigarrenean, guzti horietako bakoitza zer edo zertan espezializatua dagoenaren arabera sailkapena egiten da (Martínez Selva, 2009).

Hori jakinik, gaur egun *Offshore* herrialde kontsideratzen direnen zerrenda honako hau da:

2.1 Taula: Mundu Mailako Paradisu Fiskal Nagusiak

EUROPA	BRITAINIAR IRLAK	KARIBE	PAZIFIKOA
Andorra	Alderney	Angila	Hong Kong
Austria	Guernesey	Antigua eta Barbuda	Cook Irlak
Txipre	Man Irla	Antilla holandarrak	Marshall Irlak
Gibraltar	Jersey	Aruba	Samoa Irlak
Holanda	Sark	Bahamak	Labuan
Liechtenstein	Irlanda	Barbadoak	Nauru
Luxenburgo		Bermuda	Singapur
Madeira		Kaiman	Vanuatu
Malta		Granada	
Monako		Birjina irla britainiarrak	
Suitza		Birjina irla iparamerikarrak	
		Nevis	
		Turk eta Kaikos	

Iturria: Elaborazio propioa, Selva (2009)an oinarriturik.

Gauzak honela, aurreko 2.1 taulan aipaturikoak dira gaur egun ditugun *Paradisu Fiskal* ezagunenak; Abu Dhabi, Arabia Saudi, Qatar, Jamaika eta Shangai bezalakoek ere gero eta agerraldi nabarmenagoa duten arren. Guzti hauek beraz, bertakoak ez direntzako abantaila fiskalak eskaintzen dituzten herrialdeak dira.

Bestalde, herrialde horietako bakoitza zerbitzu mota ezberdinak eskaintzean dago espezializatua, inbertitzaileak nahi duenaren arabera, herrialde batera edo bestera joko duelarik. Hala, bada, jarraian aurkezturiko zerrenda honetan ematen dituzten zerbitzuen arabera *Paradisu Fiskalak* sailkatzen dira:

- **Banku tradizionalak:** betidanik egon izan diren banku abantailadunak dira honako hauek. Suitza, Liechtenstein, Luxenburgo edo Kaiman Irlatan egon ohi direnak.
- **Banku-sekretua:** Diskrezio eta pribatutasunean oinarritzen diren bankuak dira. Austria eta Luxenburgo dira ezaugarri hau gehien errespetatzen dutenak.
- **Ondasunen gordelekua:** balio handiko ondasunak gordetzeko edo agerian ez izateko erabili ohi diren herrialdeak Suitza, Andorra edota Monako izan ohi dira, besteak beste.
- **Sozietateen ezarpena:** zerga-sistemari aurre egiteko sarritan ezarri ohi diren sozietateak kokatzeko lekuri proposenak Gibraltar, Kanaleko Irlak edo Birjina Irla britainiarrak dira.

- **Fundazioak:** fundazio moduko sozietateak eratzeko herrialderik egokienak Austria, Jersey eta Bermuda Irlak, Panama edo Liechtenstein izan ohi dira.
- **Inbertsio funtsak:** inbertitzaileak funtsa bidezko zerbitzua bilatzen bada, Bermudak eta Kaiman Irlak edo Luxenburgo aukeratzea aholkatzen da.
- **Merkataritza elektronikoa:** Internet bidezko jarduerentzat hoberen prestatutako herrialdeak Gibraltar, Jersey Irla eta Luxenburgo bezalakoak dira.
- **Offshore Bankuak:** hurrengo 2.7 puntuan azalduko ditugun banku mota hauentzako kokapen hoberenak Bahamak edo Kaiman Irlak izan daitezke.

Guzti honekin, bada, *Paradisu Fiskal* ezagunen zerrenda betea dugu jada, horietako bakoitza zein helburu betetzeko den hobe ere esan dugularik. Horretaz gain, azpimarratu beharra dago, ez dela komenigarria izaten eskandalu finantzarioak izateagatik famatua den herrialderik hautatzea.

Kasu hauen adibide izan daitezke ***Cook edo Kaiman Irlak***. Ustelkeria edo narkotrafikoarekin erlazioa izateko aukera duen herrialdeak ez du segurtasunik bermatzen, beraz inbertsioen arriskua nabarmena izango da.

Beste muturrean, segurtasun handiko herrialdeak diruditenak dira ***Austria eta Luxenburgo***, esaterako; diskrezioa mantentzen nagusi izateaz gain, arazo larririk gabeko herrialdeak direlako irudia aurkezten baitute. Gainera, herrialde bakoitzaren espezializazioak zein diren ikusi dugunean, Luxenburgo zerbitzu ezberdin askoren zerrendetan agertu da, abantaila esanguratsuak ematen baitizkie bertan inbertitu nahi duten atzerriko inbertitzaileei.

Azkenik, mundu mailan dauden *Paradisu Fiskalei* buruz hitz egin ondoren, badira hauen inguruan sortutako hitzarmen famatu batzuk, *Offshore* herrialdeek bezain abantaila onak emateko ahalmena izan dezaketenak. Hitzarmen hauek ***Inposaketa bikoitzeko hitzarmenak*** dira.

Hitzarmen hauek bi herrialde edo gehiagoren artean sinatzen direnak izaten dira, beren herrialdeetan jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoei inposaketa-karga murrizteko helburuarekin. Modu honetan, bi herrialde horietako batean kokatua dagoen enpresaren mozkinen gaineko zerga ekiditeko aukera sortzen da, beste herrialdean zerga-inposaketa hori ezarri bada aurretik.

Neurri fiskalei buruzko 2.11 atalean honi buruz gehiago jorratuko dugun heinean, aipaturiko hitzarmen hauek abantaila esanguratsuak eman dakizkieke enpresei kasu askotan.

Europar Batasunean murgilduz, gaur egun enpresa bateko matrizea denak ez du zertan bere filialek lortutako mozkinen gaineko zergarik jasan beharrik; ondorioz, Europar Batasunaren barne dauden herrialdeek beste herrialdeekiko dituzten fiskalitate maila ezberdinei esker, abantaila handiak lor ditzakete zenbait enpresek.

2.7 Banku Zerbitzuak

Paradisu Fiskalen parte-hartzaile bihurtzen den edonor bertako Banku Zerbitzuen erabiltzaile izango da nahi eta nahi ez, *Offshore* sistemaren oinarriko instrumentuak baitira banku zerbitzuak.

Honela bada, atal honetan *Paradisu Fiskaletan* kokatzen diren banku ezberdinak azaldu eta hauek ematen dituzten zerbitzuak bereiziko ditugu (Martínez Selva, 1998).

Diru-kapitalen kudeaketarako banku bat edo beste aukeratzea herrialdea bera aukeratzea bezain garrantzitsua da, banku guztiek ez baitituzte zerbitzu berdinak eskaintzen, ez eta aukera berdinak ematen ere.

Hau jakinik, bada, bankua aukeratzeko orduan bost dira kontutan hartu beharreko faktore nagusiak:

1. **Bankuaren kaudimena** zenbatekoa den jakin beharko litzateke, hau baita banku horrek eman lezakeen segurtasuna aztertzeko irizpidea. Egia da baina, segurtasun osorik emateko bankurik ez dela existitzen, baina banku batetik besterako arrisku-diferentziak kontutan hartu beharko dira beti.

Ildo honetatik jarraituz, segurtasunarekin batera joan ohi den ezaugarria konfiantzarena da; zenbat eta konfiantza gehiago transmititu, orduan eta segurtasun handiagoa izaten baita banku horrengan.

2. Herrialdearen aukeraketa egitean gertatzen zen moduan, **komunikazio eta sarbide aukera onak** dituen bankua izan beharko da, sor daitezkeen hizkuntza-ulermen arazoak kontutan izanda. Hala ere, *Offshore* bankuek hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duen langileria izan ohi dute, mundu osoko bezeroak erakartzeko helburuarekin.

Honetaz gain, urruntasunak sor ditzakeen arazoak ere kontutan izatea komeni da, urrun egoteak gertutasunak ekiditen dituen komunikazio arazoak ekar baititzake kasu askotan. Adibide gisa, Hong Kong-en soilik jarduten duen bankua ez da egokia izango espainiar batentzat, ordutegi aldaketek eta gertutasun faltak arazoak sor baititzkieke inbertitzaile espainiarrari.

3. Bankuak eskaintzen duen **zerbitzu-multzoarena** da hirugarren faktorea. *Offshore* banku batek banku lokal batek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eskaini ohi ditu. Aldiz, inbertitzaileei gehien interesatzen zaizkienak ez dira ohiko zerbitzuak, erraztasun eta askatasun-maila handiagoa ematen duten zerbitzuak baizik.

Arau orokor moduan, *Offshore* bankuen ezaugarrietako bat bertan murgiltzen den diruaren irabazien gaineko interes-ordainketarik ez eskatzea da. Honen baitan, ordaintzen diren interesak merkatu monetarioaren arabera aldatzen direnak dira, baina inoiz ez irabazien arabekoak. Hala bada, bankuen negozioa ez datza zerga ordainketen kudeaketa egokian, bezeroari bere herrialdean baino abantaila fiskal hobek ematean baizik.

4. **Isilpen printzipioa** da kontutan hartu beharreko laugarren faktorea. Askotan, *banku-sekretu* moduan ezagutzen den hau, bezeroari buruzko informazio guztia konfidentzialtasun osoz mantentzeko duen ahalmenarekin dago erlazionatuta. Banku bat edo bestearen aukeraketa egiterako orduan, banku horrek isilpen printzipioari egiten dion jaramona izan behar da kontutan; *Offshore* banku guztiek errespetatu nahi izaten duten printzipioa den arren.

Hala ere, herrialde batzuetan lege bidezko printzipioa dela jakitea garrantzitsua da, nahiz eta autoritate polizial eta judizialen eskumenek lege hori hautsi ohi duten, legez kanpoko jarduerak gertatzen ari direlako susmoa izanez gero. Legez kanpokoak izan eta aztertzen diren jarduera nagusiak narkotrafikoa, ustelkeria politikoa, terrorismoa eta diru zuritzeekin erlazionaturikoak izaten dira.

Espainiak ez du inoiz bankuen isilpen legerik izan eta orain arte Suitza eta Austria bezalako herrialdeak printzipio honen adibide nagusi izan diren arren, *Paradisu Fiskalen* kontrako neurriek isilpen hori alde batera uztera behartu dituzte.

5. Bankuak ezartzen dituen **kargu eta komisioena** da azken faktorea. Banku zerbitzu askok, banku lokalekin gertatzen den moduan, kostu batzuk izan ohi dituzte eta kostu horiek ez dira berdinak izaten banku guztietan. Ondorioz, banku bat edo bestea aukeratzeko orduan, kontutan izan behar da aplikatzen diren komisioei buruzko informazioa ere; zenbat eta komisio baxuagoak izan, orduan eta merkeagoa izango baita inbertsioa.

Azaldu ditugun faktore hauen baitan, bada, **hiru motatako *Offshore* bankuak** bereizi ditzakegu:

1. **Banku txikiak:** bezeroaren herrialdean sukurtsalik ez duten bankuak izaten dira, mundu mailan botere handirik gabekoak. Banku mota hauen ezaugarri bereizgarriena bezeroari ematen dioten pribatutasun eta babesa izan ohi dira. Aldiz, eskaintzen duten zerbitzu-multzoa ez da oso zabala izaten, *Paradisu Fiskaletan* parte hartzen duen edonork eska ditzakeen oinarritzko zerbitzuak soilik.
2. **Banku handiak:** bezeroaren herrialdean filialak dituzten banku handiak dira honako hauek. Banku mota hauek eskaintzen duten zerbitzu-multzoa oso

zabala izaten da, bezeroaren nahi guztiak betetzeko aukerak eskaintzen dituztelarik. Aldiz, bezeroaren herrialde bertan filialen bat izate horrek konfidentzialtasun arazoak sor ditzake, *Paradisu Fiskalean* kokaturiko matrizeari bezeroaren datuak eskatuz gero, abantaila fiskal guztiak galtzeko arriskua baitu bezeroak.

3. **Offshore banku-pantailak:** *Paradisu Fiskala* izan daitekeen tributazio baxuko herrialderen batean banku estrategikoak ezartzean datza. Modu honetan, tributazio altuko herrialdeetan kokaturiko enpresen gain sortzen diren irabazi guztiak banku hauen bitartez kudeatzen dira, diru asko aurrezteko bidea izan daitekeelarik. Aipatu beharra dago, banku mota hauek diru zuritzeekin erlazionatutako jardueretan agertzen direla kasu askotan. Hauen helburu nagusia edonolako ondasun edo inbertsioen azken onuraduna nor den ezkutuan mantentzea izaten da, inbertitzaileei pribatutasun eta konfidentzialtasun baldintzak bermatuz.

Aurrera jarraituz, orokorrean *Paradisu Fiskaleako* bankuetan eskaintzen diren zerbitzuak honako hauek izaten dira:

- **Kontu-deposituak:** gehien erabiltzen diren banku-zerbitzuak dira honako hauek, jarraian azalduko ditugunak.
- **Sozietateen eraketa.** Sozietate mota ezberdinak eratzeko zerbitzua ematea *Paradisu Fiskalen* ohiko zerbitzua da, *2.8 atalean* azalduko dugun moduan.
- **Ondasunen babesteak:** ondasun hauek dokumentuak, baloreak, urrea, bilduma ospetsuak edo dena delakoak izan daitezke.
- **Segurtasun-kaxak:** bezeroarentzako eskuragarri izaten diren eta segurtasun maila osoa bermatzen duten banku-zerbitzuak dira.
- **Mundu mailako burtsa-inbertsioak:** inbertsio hauek bankuaren edo bezeroa ez den beste baten izenean egin ohi dira.

Aipatutakoez gain, banku batzuek, zerbitzu zabalak eskaintzen dituztenek, honako aukera hauek ere ematen dituzte:

- **Inbertsio-funtsak:** errentagarritasuna lortzeko egiten diren inbertsioak dira aktibo monetario, akzio, bono edota beste instrumentu finantzarioen bitartez.
- **Aurrezki-plan eta pentsioak:** etorkizunean pentsio-errenta bat eduki ahal izateko egiten diren aurrezki-metodoak dira, epeka eginiko ordainketen bitartez.
- **Bizitza-aseguruak:** heriotza kasuetan aseguruaren kargura dauden pertsonak indemnizazio bat kobratuz babesteko ezartzen diren aseguruak dira.
- **Gaixotasun, istripu eta bidaiak aseguruak:** gaixotasun, istripu edo bidaietan izan ahal diren arazoak babesteko aseguruak dira.

- **“Maildrop” postontziak:** Posta jasotzeko ezartzen den zerbitzua da, bezeroak erabakitako posta, berak nahi duen tokira iritsi dadin.

Aipaturiko oinarritzko nahiz bigarren mailako zerbitzu guztiak norbanakoa den herrialde bertan ere eskuratu daitezke baina *Paradisu Fiskaletan* atzerritarrentzako abantaila nabarmenak ematen direnez, nahiago izaten da *Offshore* lurraldeetara joan.

Esan bezala, banku-zerbitzu nagusia kontu-deposituena da eta jarraian zerbitzu honek izan ditzakeen ezaugarri ezberdinak azaltzeari ekingo diogu:

Kontu-depositu Motak

Banku guztiek eskaintzen dituzten lehen zerbitzuak kontu-deposituak izaten dira. Hala bada, hiru dira bezeroak aukeratu ahal izaten dituen kontuak banku bateko bezero egiten denean:

1. **Bistako kontuak:** ingelesez “Deposit Accounts” edo “Saving Accounts” moduan ezagutzen direnak dira. Kontu hauek dibisa ezberdinetan eskaintzen diren kontuak dira, beren sorrerarako diru-kantitate handirik eskatzen ez dutenak. Orokorrean 20.000€tik aurrera kontu mota hauek sortzeko aukera egoten da eta beren desabantaila nagusia likidezia-epe luze xamarrak izaten dituztela da; dirua eskatu eta lortzerako epeak lau astera luza daitezke kasu batzuetan.
2. **Kontu-korronteak:** ingelesez “Current Accounts” edo “Checking Accounts” bezala ezagutzen direnak dira. Kontu-korronteena edozein bankuk eskaintzen duen zerbitzu tradizionala da eta bistako-kontuekiko duen ezberdintasun nagusia, hauek kreditu-txartela erabiltzeko aukera eskaintzen dutela da. Gainera, kontu-korrontea izateagatik ordaindu beharreko interes-tasak baxuagoak izaten dira eta berehalako likidezia eskaintzen dute orokorrean.
3. **Epe finkoko kontuak:** “Fixed Term Deposit Accounts” deituriko kontu hauek epe jakin baterako dirua gordetzekoak dira, epe horretan diru horrek interesak sortzen dituelarik. Modu honetan, zenbat eta diru gehiago ezarri eta zenbat eta epe luzeagoa izan, lortzen diren interesak altuagoak izaten dira. Kontu mota hauek ezarritako dirua behar ez duen bezeroarentzat dira egokiak, epea amaitu baino lehen dirua berreskuratu nahi izateak penalizazioak sortzen baititu.

Guzti honekin, bada, banku zerbitzuen inguruko ideia nagusiak jorratutzat emango ditugu, hurrengo atalean (*2.8 atala*) banku-zerbitzu hauen sorrerarako eman beharreko pausuak zeintzuk diren azalduko ditugularik.

2.8 Kontu-depositu eta Sozietateen Eraketa

Paradisu Fiskaletako parte hartzaile izatea erabakitzen denean, non eta nola inbertitu argitu ondoren eta inbertsioari buruzko ezaugarriak zehaztu ondoren, azken pausua ematea faltako litzateke: *Offshore* lurraldeen barnean sartzea. Horretarako bada, bi dira gehien erabiltzen diren bideak (Martínez Selva, 2009):

1. Lehen aukera **Kontu-depositu** bat irekitzea da.
2. Bigarren bide nagusia **Sozietate** bat edo gehiago sortzea da.

1. Kontu-Deposituaen Eraketa

Paradisu Fiskaletan kontu-depositu bat irekitzea gehien erabiltzen den jarduera da, ez baita enpresagile edo dirudun boteretsu izan beharrik hau egin ahal izateko. Gainera, gaur egun atzerriko herrialderen batean kontu bat sortzea etxetik bertatik egin daitekeen jarduera da, Internet bidez banku ezberdinek ematen dituzten aukerak aztertu baitaitezke eta transferentzia bidez eskatzen den diru-kopurua atzerrian txertatu ahal delako.

Bestalde, Interneten bidea oso zabaldua dagoen arren, badira aurrez aurreko harremana nahiago duten inbertitzaileak ere; aldiz, hori horrela izanda ere, ez da nahi eta nahi ez atzerrira joan beharrik kontu-depositu baten eraketa martxan jartzeko, *BBVA* edo *Santander Bankua* bezalako erakunde finantzarioek *Offshore* herrialdeetan sukurtsalak izaten baitituzte, eta ondorioz, berauek egiten baitute beharrezko tramitazio eta gestio guztia. Esate baterako, **BBVak** Hong Kong, Panama, Uruguay, Suitza eta beste hainbat herrialdeetan ematen du bere zerbitzua; eta **Santander Bankuak**, berriz, Bahamak, Gibraltar, Hong Kong, Kaiman Irlak, Luxenburgo, Panama eta Suitzan ditu atzerriko gestioak egiteko kokaleku nagusiak.

Honela bada, kontu-depositu bat irekitzerako orduan derrigorrezko baldintza ez den arren, gaur egun *Paradisu Fiskaletan* jarduten dutenen gehiengoak ingelesez “*Trustee*” deituriko kudeatzaile fiskalak izan ohi dituzte jarduera fiskaletan ahalik eta abantaila handienak lortzearren. Modu honetan, “*Trustee-ak*” bezeroaren izenean jokutzen du, eta ondorioz, ez da jakiten nor den inbertsioen benetako onuraduna.

Hala eta guztiz ere, orain arte hain zorrotza ez zen baldintza bat ari da zabaltzen, jada Suitzan beharrezko exijentzia delarik; gero eta herrialde gehiagotan inbertitzen den

diruaren azken onuraduna nor den jakitea eskatzen da, honek informazio gardentasuna bultzatzen duelarik. Hala bada, erregulazio hau ez da oso abantailatsua inbertsio ezkutuetan egin nahi dituenarentzat.

Bestalde, kontu-depositu bat irekitzerako orduan argi utzi beharreko puntuak dira heriotza kasuek, herentzia tramiteek, bizileku berri baten finkapenak edota Legedia aldaketek izan ditzaketen eraginak. Horregatik, kasu horietako bakoitzean nola jokatu nahi den argi uzteko konfiantzazko pertsona bat izateak asko lagundu dezake.

Tramitazioei dagokienean, honako hauek dira kontu depositu bat irekitzeko eskatzen diren **agiriak**:

1. Datu pertsonalak, NAN zenbakia eta Pasaportea.
2. Bizileku pertsonala eta posta zenbakia.
3. Lanpostua, enplegua eta enpresaren izena eta egonlekua.
4. Firma autorizatua
5. Normalean erabiltzen den banku edo bankuen izenak.

Atzerrian kokalekua duen bankuak datu guzti horiek izanez gero, ez du inolako arazorik izango kontu-depositu bat norbanako jakin baten izenean eratzeko. Hala, kostuei dagokienean, 500 euro inguruko kostua suposatzen du azaltzen ari garen jardura hau burutzeak.

Hau guztia jakinik, kontu-depositu bat irekitzea erabakita izanda, *2.7 atalean* azaldutako kontu mota ezberdinak daudela ere kontutan izan behar da. Honekin loturik, edonolako kontu-depositurik sortzeko honako zerbitzu hauek eskaintzen dituen bankua aukeratu izanaren ziurtasuna izatea komeni da:

1. Jarduera internazionalak egiteko **dibisa** nagusietako batean mantendu kontua: eurotan, EEBBetako dolarretan, libra esterlinetan edo yenetan.
2. Erosketak munduko edozein lekutan egin ahal izateko **txartela** izatea.
3. Dibisa bat edo gehiagotarako **txekeen aukera** izatea.
4. Interes-tasek **merkatu monetarioekin erlazioa zuzena** izatea.
5. Ordainketa eta erreziboen **helbideratzeak egiteko aukera** bermatzea.

6. **SWIFT⁹ sistema** modukoen bitartez transferentziak egiteko aukera izatea.

Gaur egun sei puntu horiek banku guztiek edo ia guztiek eskaintzen dituzten zerbitzuak dira, finantza munduan jokatzeko ezinbestekoak bihurtu baitira.

2. Sozietateen Eraketa

Zerga-ordainketa baxuko herrialdeetan sozietateak eratzeak jarduera finantzario eta komertzial ugari egiteko aukera ematen du. Hau egiteak ematen duen abantaila nagusia edonolako ondasunak norbanakoaren izenean egon beharrean, sozietate baten izenean egotea da. Hala, bankuetako kontuak, inbertsioak edo dena delakoak sozietate baten izenean jartzea izaten da sozietateen eraketen helburu nagusia.

Zerga ordainketen aurrezte ikuspuntutik begiratura, norbanakoak ez du zergarik ordainduko bere izenean ez dagoen ezergatik; eta sozietateak atzerriko herrialdeetan kokaturik daudenez, hauek ere ez dute zergarik ordaintzeko derrigortasunik izango, ez behintzat norbanakoaren herrialdean. Gainera sozietateen eraketaren bitartez segurtasun eta pribatutasun handiagoa lortzen da orokorrean, zailagoa baita azken onuradunaren identitatea ezagutzea.

Gauzak honela, sozietatearen egonleku eta kokapen irizpidearen arabera, bi motatako sozietateak bereizten dira nagusiki:

- 1. Helbidedun sozietateak:** enpresa mota hauek Fiskalitate baxuko herrialdeetan sortzen dira eta berau izango da beren helbidea. Aldiz, enpresaren jarduera komertzial guztiak beste herrialde batzuetan egingo direnez, ez du zerga-ordainketarik jasango. Orokorrean, enpresa kontrolatu eta kudeatzen duten zuzendariak ez dira enpresaren helbide bereko herrialdean biziko. Enpresa mota honen adibide ezagunena **IBC** siglekin izendatzen diren Nazioarteko Negozioen Konpainiak dira, ingelesez “International Business Companies” deiturikoak. Konpainia hauei buruzko zehaztasunak aurrerago ikusgai den sozietate moten inguruko *2.10 atalean* emanak dira.
- 2. Sozietate salbuetsiak:** enpresa hauek ere Fiskalitate baxuko herrialdeetan sortuko dira, baina horretaz gain, bere egoitza nagusia ere bertan izango dute kokatua. Enpresa mota hauek ere lortzen dituzten irabaziak egonlekua duten herrialdetik at lortutakoak izango dira eta enpresaren arduradun eta onuradunak atzerritarrak izango dira. Mota honetako enpresek ere zerga-ordainketak ekiditea lortzen dute, bertakoak ez direnek osatzen baitute enpresa eta irabazi guztiak herrialdetik kanpo lortzen baitituzte.

⁹ Society for Worldwide Interbank Financial Telecommunication: banku eta entitate finantzarioen arteko erlazio finantzarioak errazteko mundu mailako sozietatea da, bertako kideak direnenez soilik.

Bi enpresa mota hauen ezberdintasun nagusia egoitzaren kokalekua da: helbidedun sozietateek ez dute egoitzarik kokatzen Fiskalitate baxuko herrialdean eta sozietate salbuetsiek, aldiz, bai. Enpresa mota bat edo bestea eratzeko arrazoi ezberdinak egon daitezke, baina orokorrean, zenbat eta jarduera komertzial zabalagoak izan, orduan eta ohikoagoa izaten da sozietate salbuetsiak sortzea. Edonola ere, *2.10 atalean* sozietate bakoitzak dituen ezaugarrien eta ematen dituen abantaila fiskalen araberako sozietate mota ezberdinak sailkatzen direla ikusiko dugu.

Guzti hau jakinik, atzerrian sozietate bat eratzeko eman beharreko pausuak ez dira bertako herrialdean sortzen diren enpresek ematen dituztenen ezberdinak; sozietate oro sortzeko inskripzioa egin behar izaten da dagokion erregistroan eta atzerriko sozietateak eratzeko ere gauza bera egin behar da. Aipatu beharra dago, badirela enpresak sozietateak eratzten jarduten dutenak, eta beraz, sozietate bat eratzeko egin beharreko tramitazio guztiak beren esku geratzen dira.

Horretaz gain, kontu-deposituekin gertatzen zen bezala, gaur egun sozietateen eraketa Internet bidez, etxetik mugitu gabe, egin daitekeen jarduera da, nahiz eta inskripzioa egiteko erregistrora joan beharra egoten den.

2.9 Paradisu Fiskaletako Jarduera Nagusiak

Orain arte esandako guztiarekin argi dago *Paradisu Fiskalak* abantaila fiskalak emateagatik direla ezagunak eta hori lortzeko giltzarria **Opakutasuna** da. Hala bada, Opakutasun hori lortzeko era efikazena sozietateen eraketa egitea da.

Espainiaren kasuan, atzerrian sozietateak sortzeko ez dago inolako debekurik, beti ere Ogasun Publikoari sozietate horien bitartez lorturiko mozkin eta irabazi guztiak aitortzen bazaizkio.

Orokorrean, *Offshore* herrialdeetan jarduera ekonomikoak egiten dituztenek honako eskema hau jarraitu ohi dute (Chambost, 1978):

1. Beste baten izenean *Offshore* **sozietate bat eratu** atzerriko herrialderen batean, *Paradisu Fiskaletan* bezero izango den norbanakoa onuradun nagusia izanik.
2. Sozietate honen izenean **kontu-depositu bat ireki** atzerriko herrialdean, sozietatearen administratzaileak bezeroari kudeatze-boterea emanaz.
3. Bezeroak bere herrialde lokaletik **dirua transferitzen** du sozietatearen izenean irekitako kontu horretara.
4. Kontu horren bitartez nahi adina **inbertsio egiten** dira, Fiskalitate baxuko beste edozein herrialdeetan.

Pauso horiek emanez gero, Fiskalitate handiko herrialdean lorturiko dirua zerga-tasa baxuak dituen beste batera mugitzen da, eta hortik, tributazio baxua duen beste herrialde batean inbertsioak egiten dira. Edonola ere, egiten diren jarduera guztiak sozietatearen edo kudeatzailearen izenean eginikoak izango dira, eta ez benetan dirua jarri duenaren izenean. Modu honetan, inbertsioen benetako onuraduna denaren identitatea gordepean mantendu ahal izango da.

Orain arte aipaturiko guztia Legeak onartzen dituen jardueren barne dago, beti ere egin beharreko aitortpen eta zerga-ordainketa guztiak egiten badira. Aldiz, benetako onuraduna, jabea edo akzioduna nor den ezkutatzek, zergapen obligazioak ekiditeak edota ondasunak isilpean gordetzeak arazoak ekarri dakizkioke horrelako zerbaite egiten duenari edo egiten saiatzen denari; guzti horiek Legeak dioenetik at geratzen dira, **Ezkutuko Ekonomiaren** zati izanik. Modu honetan, 2.11 atalean aipatuko ditugun neurriek guzti hori ekiditeko helburua izaten dute.

Aurrera jarraituz bada, *Paradisu Fiskaletan* jarduera ugari egiten dira, guztiak abantaila fiskalak lortzeko estrategiak izaten direlarik. Jarraian bada, *Offshore* herrialdeetan gehien ematen diren **jarduerak** azalduko ditugu:

- ***Ondasunak ezkatzea***

Norbanako baten ondasunak ezkatzeko gehien erabiltzen den estrategia *Offshore* sozietateen eraketa da, ondasunak sozietatearen propietate izatera pasatzen diren momentutik ondasun horiek benetan norenak diren ezkatzeko aukera sortzen delako. Modu honetan, norbanakoak bere herrialdean, Fiskalitate altua izango duena, ezarriko zaion zerga-inposaketa oro ekiditen du. Gainera, sozietatearen bitartez ondasun horiek berrinbertitu ahal izango ditu, guzti horrekiko aitortpenak *Paradisu Fiskalean* eginez, eta beraz, zerga gutxiago ordainduz.

Ondasunak ezkatatu nahi izatea ez da Legeak onartzen duen jokabidea, ezkatatu nahi izatea ez baita modu argian jokatzea. Aldiz, herrialde lokaletik dirua eta ondasun guztiak eraman aurretik, Ogasunari egin beharreko aitortpen guztiak egiten badira, ondasunen transferentzia hutsa izango litzateke eta hori bai da legezkoa. Nolanahi ere, ohikoa izaten da aitortpen horiek ekidin nahi izatea edo ondasun horien benetako jabea nor den ezkatatu nahi izatea; eta Legeak ez du horrelakorik onartzen.

- ***Eragiketa triangularrak***

Eragiketa triangularrak esportazio eta inportazio jarduerak egiterakoan erabiltzen diren estrategiak izaten dira. Prezioetan aldaketak eginez, salgai garestiak inportatzen dira eratutako sozietate batetik, eta ondoren, merke esportatzen dira beste sozietate baten bitartez.

Ondorioz, *Paradisu Fiskalen* batean kokatzen den sozietate batek oso garesti saltzen dizkio salgaiak herrialde lokalean dagoen enpresari, eta honek, prezio hori gastu moduan aitortuko dio Ogasunari. Ondoren, salgai horiek erosi baino merkeago salduko zaizkio beste *Paradisu Fiskalen* batean sortu izan den sozietateari.

Guzti honekin, mozkin handienak *Paradisu Fiskaletan* dauden sozietateek izango dituzte eta Fiskalitate altuko herrialde lokalean dagoen enpresak, aldiz, mozkin txikiak izango ditu.

Kasu honetan, prezioen alterazioak nahi bezala mugitzea ez du onartzen Legeak. Aldiz, enpresa askok eta askok gaur egun egiten duten moduan, ekoizpen-katea Fiskalitate baxuko herrialde batean kokatzea Legeak debekatzen ez duen jokabidea da.

- **Finantza erabilerak**

Offshore sozietateen bitartez egin ohi diren beste erabilera batzuk finantza arlokoak izaten dira. Kasu hauen adibide ezagunena maileguena da: Fiskalitate altuko herrialdean dagoen enpresa lokalak atzerrira bidaltzen ditu diru-funtsak, *Paradisu Fiskalean* kokaturiko sozietatearekiko zor bat sortuz. Modu honetan, zor horrekiko ordaindu beharko dituen interesak gastu moduan aitortu ditzake.

Mailegu mota hauei *auto-mailegu* deitzen zaie, nor bere buruari ematen dizkion maileguak baitira azken finean. Mailegu hauek legezkoak izango dira, beti ere herrialde lokaletik atzerrirako mugimendu guztiak era argi eta Legearen baitan egiten badira.

- **Adimen jabetasunak**

Patente, *royalty* edo irudi eskubideekin erlazionatutako jabetasunekin egiten diren eragiketak dira hauek. Fiskalitate altuko herrialderen batean egonlekua duen edonork *Paradisu Fiskalean* sozietateren bat eratzen badu, jabetasun hauek sozietate horri transferitzen dizkio. Hori eginez gero, abantaila fiskalak lortzeko aukera egongo litzateke, norbanakoak berekiko ez lukeelako jada jabetasunik izango, eskuratutako jabetasunak sozietatearen izenean egonik.

Modu honetako eragiketetan Ogasunak kontrol handia ezarri ohi du, zergen ordainketa ekiditeko trikimailu oso ohikoa baita. Kasu honetan ere jabetasunen transferentzia Legeak debekatzen ez duen arren, eragiketa hori egiteko modua da gehienetan Legea urratzen saiatzen dena, eta ondorioz, arazoak sor ditzakeena.

- **Zerbitzuen prestazioa**

Fiskalitate altua izaten duen herrialde lokalaren eta *Paradisu Fiskalean* kokatzen diren sozietateen artean sortzen diren zerbitzuen hartu-emanak oso ohikoak izaten dira. Zerbitzu hauen inguruan gehien ematen diren kasuak aholkularitza zerbitzuenak dira. Fiskalitate altuko enpresak aholkularitza lan bat eskatzen dio *Offshore* herrialdean duen enpresari eta lan hau egiteagatik hainbesteko diru bat ordaintzen dio.

Ondorioz, eragiketa honen bitartez diru transferentzia bat egitea lortzen da, zerga ordainketa altuko herrialdetik Fiskalitate baxua duen herrialdera.

Hala ere, azpimarratu beharra dago, zerbitzu hauek guztiz legezkoak direla baina beti ere egiazkoak badira; hau da, zerbitzuen prestazioak benetan eman direla egiaztatu behar izaten da Ogasunak hala eskatuz gero, eta baita zerbitzu horiengatik ordaindutako prezioa merkatuak dioenaren parekoa dela ere.

Adibide honetaz gain, badira beste hainbat kasu enpresarentzako beharrezkoak diren instrumentu, makineria edota ekipamenduak atzerriko

sozietateen izenean edukitzeko helburuarekin egiten direnak. Hala, berauek *leasing* bidezko kontratuekin zerbitzu horiek erabiltzeko boterea eskuratzen dute, baina jabetza sozietatearen izenean mantenduz. Hau ere Legeak onartutako eragiketa izango litzateke.

- ***Irudi eskubideen kudeaketa***

Jarduera hau oso ohikoa izaten da *Paradisu Fiskaletan*, irudi eskubideek ez baitute PFEZen atxikipen fiskalik jasaten, baina lan-errentak aldiz bai. Ondorioz, irudi-zerbitzuak edota publizitate-jarduerak egin ohi dituzten kirolari askok beren diru-sarrera gehienak irudi eskubide gisa izendatzen dituzte, modu honetan zerga-ordainketak ekidinez.

Gainera, atzerrian sozietateak eratzen dituzte eta egiten dituzten lanengatiko ordainketak sozietate horretara bideratzen dira. Hala bada, sozietateren izenean lortutako mozkinak herrialde lokaleko zerga-sistematik at geratzen dira.

Edonolako eskubideen kudeaketa egitea ez da legez kanpoko izaten, beti ere ezkutuko trikimailurik egiten ez bada behintzat. Aldiz, kudeaketa hauetan ohikoa izaten da lan-errenta moduan irabazi dena irudi-eskubide gisa aitortu nahi izatea.

Horretaz gain, herrialde lokalean irabazitakoa atzerriko sozietateren baten izenean kobratzeak arazoak ekarri ditzake, herrialde lokaleko autoritate fiskalek bertan lortutakoarengatiko zerga-ordainketa eska dezaketelako.

Guzti honekin bada, *Paradisu Fiskaletan* eman ohi diren jarduera ezagunenak aipatutzat joko ditugu. Ikusi dugun moduan, herrialde hauetan egiten diren eragiketa nagusi guztiak sozietateen eraketa bitartekoak izaten dira, sozietate hauen bidez lortzen baitira abantaila fiskal garrantzitsuenak. Ondorioz, sozietateen garrantziari jarraiki, jarraian jorratuko dugun *2.10 puntuan Paradisu Fiskaletan* egon ohi diren sozietate mota ezberdinak zer nolakoak izaten diren azaltzeari ekingo diogu.

2.10 Paradisu Fiskaletako Sozietate Motak

Atal honetan *Paradisu Fiskaletan* ohikoenak diren sozietate motak azalduko ditugu, beren ezaugarri eta abantaila fiskalen arabera sailkapena eginez. Hala bada, horietako bakoitzaren nolakotasunak zehaztuko ditugu, bakoitzak izan ditzakeen abantaila eta desabantailak aipatu eta sozietate mota batetik besterako ezberdintasun nagusiak zein diren azpimarratuko ditugu (Martínez Selva, 2009):

- **Nazioarteko Negozioen Konpainiak (IBC)**

Sozietate mota hauek ingelesez “International Business Company” edo “Non Resident Company” deiturikoak dira eta *Offshore* sozietate erabilienak dira gaur egun.

Orokorrean IBC sozietatea *Paradisu Fiskala* den herrialderen batean kontu-korronte baten titularra izaten da, bezeroa kontu-korrontearen kudeaketa-boterea duen azken onuraduna izango delarik.

Offshore sozietate hau enpresa ezarri duen pertsonak administratuko du, enpresako kudeatzaile nagusi izango delarik eta zuzendari moduan izendatua izanik. Hala, sozietatearen benetako onuraduna nor den ez azalaraztea da helburu nagusia.

Zuzendariari dagokienean, enpresa ezartzen den herrialdeko abokatu edo aholkulariak izaten dira, bezeroak berak aukeratutakoak noski. Komenigarria izaten da konfiantzazko pertsona bat izendatzea, pribatutasuna hautsiko ez duena eta edonolako arazoren aurrean bezeroa defendatuko duena.

IBC sozietateak eratzeko tramitazioak oso denbora laburrean egin daitezke gaur egun; enpresa oro moduan erregistratu egin beharko dira, baina enpresa sortzeko jarduera guztiak egun bakarrean egin daitezke gaur egun.

Sozietate mota hauen beste abantaila bat kasu askotan Urteko Kontuak aurkezteko derrigortasunik ez dela egoten izaten da, ez eta titulartasun-aldaketei buruzko berririk ematea ere. Ikusten denez, beraz, Legedia nahiko xumea izan ohi dute sozietate hauek, finantza-munduan jokatzeko askatasun handia ematen dutelarik.

Abantaila fiskalei jaramon eginez, ezaugarriak esanguratsuen zerga-ordainketak egitetik salbu geratzen direla da, beti ere urteko tasa nominala ordainduaz. Abantaila hau lortzeko baldintza, zergapen-sistema baxuko herrialdean jarduera ekonomikorik ez egitea da.

Esan bezala, IBC sozietateek kontu korronte bat izaten dute *Paradisu Fiskalen* batetan beren izenean, eta horren bitartez, hainbat eta hainbat eragiketa

burutu ditzakete finantza-munduan: burtsan inbertsioak egin, ondasun higiezinaren jabetasuna izan edota mundu mailako negozioak sortu, erregistratuta dauden herrialdean izan ezik.

Kostuen zenbatekoari erreparatuz, honelako sozietate bat eratzeko aukera egon daiteke 1.200€ ingurutik aurrera, erabiltzen diren abokatu eta baliabideren arabera prezioa askoz altuagoa ere izan daitekeen arren. Kapital minimoari dagokionez, orokorrean ez da gutxiengo funtsik eskatzen, mota honetako sozietateak sortzeko erabakia hartzen dutenek diru-kantitate handiak inbertitzeko joera izaten duten heinean.

Aipatutako guzti honekin, IBCak *Paradisu Fiskaletan* nagusi diren sozietateak direla esan dezakegu, ematen dituzten abantailak oso onuragarriak baitira.

- ***Erantzukizun Mugatuko Sozietateak***

Erantzukizun Mugatuko Sozietateak guztiok ezagutzen ditugun sozietate motak dira, Fiskalitate altuko herrialdeetan ere oso erabiliak baitira. Ingelesez “Limited Liability Companies” moduan ezagutzen dira eta hauekin abantaila fiskalak lortzeko aukera ez da herrialde guztietan lortzen.

Sozietate hauek osatzen dituzten bazkideek erantzukizun mugatua izango dute, sozietatearen egoera txarrean ere soilik hasieran egindako ekarpenak galtzeko arriskua izanez. Kasu honetan, akziodun eta onuradun guztien identitatea ezkutuan mantentzea zailagoa izaten da, baina abantaila fiskalak lortzen aritzeko susmoak ere txikiagoak izaten dira.

Mota honetako sozietateak *Paradisu Fiskaletan* ezarriz, zerga-sistemak inposatzen dituen ordainketak murriztea lortzen da soilik. Aldiz, abantaila moduan, *Paradisu Fiskaletan* trikimailuak egitearen susmagarri izateko probabilitateak ere murriztagoak izan ohi dira.

Sozietate hauek eratzerako orduan ezarri beharreko kapital minimoa 3.000€takoa izaten da Espainiaren kasuan, herrialde batetik bestera gorabeherak egon daitezkeen arren; hala ere, esan beharra dago diru-kantitate minimo hori ez dela asko *Paradisu Fiskal* batean sozietate bat eratu nahi duenarentzat.

Desabantaila nagusi moduan, konfidentzialtasun edo pribatutasuna mantentzeko aukera txikiagoak ematen dituen sozietatea dela esan genezake, finantza-munduan espezializatuak direnek informazioa sekretupean mantentzeko trikimailu dezente ezagutu ohi dituzten arren.

- ***Atzerrirako Salmenten Enpresak***

Atzerrirako Salmenten Enpresak terminoak berak adierazten duen moduan, atzerrian salmentak errazago egin ahal izateko sortzen diren sozietateak dira. Ingelesez “Foreign Sales Corporations” deituak izaten dira eta beren helburua nazioarteko merkatuan sartu eta mundu mailan produktu edota zerbitzuak saltzeko bidea irekitzea da.

Honela bada, sozietate hauek atzerriko herrialdeetan egoten dira kokatuta eta bertan lortutako mozkin eta dibidendu guztiak zerga-ordainketa egitetik salbu geratzen dira. Zerga-ordainketen aurrezteak da sozietate hauen abantaila nagusia, abantaila hauek lortu ahal izateko beren produktu edota zerbitzuen elaboraziorako hornikuntzen %50a herrialde horretan eginikoa bada.

Sozietate mota hauek enpresa internazionalak eratu ohi dituzte, beren produktu edota zerbitzuen salmenta mundu mailako merkatuan errazago garatzeko.

Sozietate hauekin jokatzeko duten enpresek trikimailu fiskal ugari egin ohi dituzte modu honetan: zerga-tasa baxuak dituzten herrialdeetan mozkin handiak biltzen dituzte eta zergapen-sistema handikoetan, berriz, ahalik eta txikienak.

Modu honetan, Nazioarteko enpresek lor ditzaketen abantaila fiskalak izugarriak izaten dira mota honetako sozietateak eratzerakoan.

- ***Zelula Babestuko Konpainiak***

Sozietate mota hauek eratzeko helburu nagusia enpresaren departamentu edo sail ezberdinetan lortutako mozkinak bereiztea izaten da. *Zelula* deituriko sail bakoitzean lortzen diren mozkinak indibidualki kudeatzen dira eta sail batean gertatzen denak ez du eraginik izango enpresa bereko beste sailetan.

Modu honetan, *zelula* batean galerak izateak ez du eraginik izango besteekiko; adibide gisa, inbertsio-funtsa batean inbertitzea *zelula* bat izango litzateke eta honek emaitza txarrak ekarri gero, ez du inolako eraginik izango sozietateak egindako beste inbertsioetan.

Sozietate mota hauen bitartez, zuzendari eta helbide bera izango dituzten hainbat enpresa sortzen dira, Legearen ikuspuntutik bata bestearekin zerikusirik izan gabe. Ondorioz, sozietate hauek eratzean lortzen den abantaila nagusia segurtasuna da. Mota honetako sozietateak eratzeko dituzten inbertitzaileak arriskuarekiko zeharo ezkorrak izaten dira, ahalik eta galera-arrisku txikienak hartzen baitituzte.

Guzti hau esan ondoren, *Paradisu Fiskaletan* ezagutzen diren sozietate mota ohikoenak deskribatu ditugun heinean, jarraian sozietate horiek eratzeko gaur egun gehien erabiltzen diren estrategia edo modu bi azalduko ditugu (Martínez Selva, 2009):

1. ***Holding Sozietateak***

Beren aktiboa batez ere beste entitate edo enpresetako partizipazioekin osatzen duten sozietateak dira *Holding* delako hauek. Beren helburu nagusia beste enpresa bat edo gehiagoren kontrola lortzea da, modu honetan eragiketa finantzarioak errazago burutu ahal izateko. Eragiketa horien artean finantzazioa lortzea, dibidenduak kobratzea edo hornikuntza eskubideak lortzea bezalakoak daude, besteak beste.

Enpresa mota hauek garrantzi handia hartu dute Nazioarteko Ekonomian, gero eta *Holding* sozietate gehiago eratzen baitira herrialde ezberdinetan jarduten duten enpresen aldetik.

Sozietate hauek eratzean lortzen diren abantaila nagusiak mozkinengatikozerga-ordainketa ekiditea eta berrinbertsioak egiterako orduan zergapenik ez jasatea dira.

Mota honetako sozietateak eratzeko, herrialde batzuek besteek baino abantaila hobeak ematen dituzte; orokorrean Europar Batasunak Legedia nahiko onuragarria dauka sozietate hauek eratu nahi dituen inbertitzailearentzat, Batasunaren barnean kokatzen diren enpresa-talde berekoen dibidenduak zerga-ordainketa jasatetik salbu geratzen baitira, Batasunaren barneko herrialdeetan kokatuta dauden heinean.

Ondorioz, esan genezake *Holding* sozietateak banku moduan jarduteko tresna oso baliagarriak izan daitezkeela, enpresa handientzat batez ere. Horregatik, gaur egun oso erabilia den estrategia da *Offshore* herrialdeetan sozietateak eratzerako orduan.

2. Trust eta Konpainia fiduziaroak

Planifikazio eta segurtasun finantzarioa bilatzeko gehien erabilia den estrategia da Konpainia fiduziaroena. Estrategia honen bitartez, inbertitzaileak beste pertsona bati ematen dio bere izenean jokatzeko boterea. Modu honetan, *“trust”* benetan dirua jarri duena izango da eta *“trustee”*, berriz, boterea edo kudeaketa-postua luzatu zaion norbanakoa.

Estrategia hau erabiltzeko helburu nagusia konfidentzialtasuna mantendu nahi izatea da; egiten den eragiketa orotan ez baita inoiz benetako onuradunaren izena agertuko, horrek inbertitzailearengan segurtasuna bermatzen duelarik.

Estrategia honen barnean hainbat *“trust”* mota egon daitezke, baina guztiek partekatzen duten ezaugarria beren identitatea ezkutuan mantendu nahi izatea da, horretarako ezartzen duten *“trustee”* baten bidez.

Esan beharra dago, mota honetako sozietate eraketek kostu handi zamarra izan ohi dutela, baina estrategia horri esker lortzen diren zerga-aurrezkiek kostu hori konpentsatu ahal izatea ekartzen dute.

Aipatutako bi horiek dira, bada, mundu finantzarioan sozietateak eratzeko gehien erabiltzen diren estrategiak; batak banku moduan jokatzeko aukera ematen duelarik eta besteak, berriz, segurtasun-kaxen antzera jokatzeko helburua beteaz.

Aurrera jarraituz, bada, hurrengo atalean (2.11 atala) *Paradisu Fiskalen* inguruan dauden Neurri erregulatzailerei buruz hitz egingo dugu.

2.11 Paradisu Fiskalen Aurkako Neurriak

Ezkatuko Ekonomiarekin egin moduan, *Paradisu Fiskalen* inguruan ageri diren neurriak zer nolakoak diren aztertzea datorkigu orain. Argi dago, gaur egun, Fiskalitate altua duten herrialdeen arduretako bat dela *Paradisu Fiskalena*, hauei esker lortzen baitute hainbat inbertitzailek beren herrialdeko Fiskalitatea ekiditea (Chambost, 1978).

Aurretik aipatu moduan, *Paradisu Fiskalen* gaiarekin erlazionatuta dauden jarduera larrienetakoak terrorismoa, narkotrafikoa eta krimen organizatuak dira eta guzti horiei aurre egin ahal izateko ahalegin handiak ari dira egiten munduko herrialde guztiak. Aldiz, diru zuritzearen aldeko neurriei dagokienean, herrialde guztiak ez dute modu berean erantzuten.

Hau jakinik, gure kasuan *Paradisu Fiskalen* inguruan ezarri diren neurri fiskalak dira gehien interesatzen zaizkigunak. Honela bada, asko dira gaur egun ezarriak dauden neurri, norma eta erregulazioak *Paradisu Fiskalen* desagertzea bultzatzeko helburua dutenak. Mota honetako neurriak Fiskalitate altua duten herrialdeetatik etortzen dira batik bat eta beren helburua zergapen-ihesbide guztiak desagerraraztea da.

Neurrien zehaztasunari dagokionean, honako puntu hauek jorrotzen dituzte *Paradisu Fiskalen* aurkako erregulazio guztiak (Chambost, 1978):

1. Herritarren **kolaborazioa** eskatzen dute.
2. **Entitate finantzarioei gardentasuna** eskatzen zaie.
3. Kapital-mugimenduen **kontrol handiagoa** egin behar dela diote.
4. Herrialdeen arteko **hitzarmenak** sinatzea komeni da, zergapen bikoitzak ekiditeko adibidez.
5. **Informazio gardentasuna** lortu behar da zentzu guztietan.
6. **Sistema informatiko** bidezko zehaztasunak jorratu behar dira.
7. Herrialde guztiak beren banku eta **sozietate guztien inguruko informazio guztia emateko betebeharra** izateko Legea inposatzen dute.

Aipaturiko sei betebeharrak horiek dira *Paradisu Fiskalen* aurkako guduak ezartzen diren neurri guztiak partekatzen duten iritzia, gai honen inguruan sortzen diren zergapen-sistemen ihesbideek kalte handia egiten baitiete herrialdeei, Fiskalitate altuko herrialdeei batik bat.

Horrela bada, neurri guzti horiek ezarri eta aurrera eramaten dituzten erakunde edo organismo ugari daude, jarraian ezagunenak aipatzera ekingo diogularik (Martínez Selva, 2009):

- ***Diru zuritzearen aurkako finantza-taldea (FATF)***

Organismo hau 1989.urtean sortu zen garai hartako G-7¹⁰ erakundearen eskutik eta bere helburu nagusia diru zuritzearen aurkako neurriak gomendatzea da. Gai honetan nazioarteko erakunde nagusia den arren, ez dauka botere judizial edo exekutiborik; beraz, bere lana gomendioak ematea izango da, herrialdeei presioa sartuz, ezin baitu lege ezarpenik egin. Ingelesez *Financial Action Task Force* deitzen da.

- ***Egonkortasun Finantzarioaren Kontseilua (FSB)***

1999.urtean izan zen eratua, hau ere G-7 taldeari esker. Kasu honetan, organismo honen helburua diru zuritzearekin erlazionatutako jarduerak deuseztatzea baino haratago doa, finantza-munduan egon litezkeen susmo guztiak kontrolatzea baitu helburu. Modu honetan, finantza arloko aspektu desegoki guztiak aurkitu, beren jatorria zehaztu eta kontrolpean izatea bilatzen du organismo honek. Hasiera batean, organismo hau “Egonkortasun Finantzarioaren Foroa” izenarekin sortu zen, baina 2009.urtean Kontseilu izatera pasatu zen; ingelesez *Financial Stability Board* deitua.

- ***Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (OECD)***

Erakunde hau *Paradisu Fiskalen* aurkako gudua egitean oinarritzen da, herrialde hauek eskaintzen dituzten abantaila fiskalak ekidin nahian. Horretarako giltza gardentasuna, erregulazioa eta herrialdeen arteko hitzarmenak direla dio erakunde honek. Guzti hori lortzeko, bada, erakunde honek ere *Paradisu Fiskalen* zerrendetan dauden herrialdeei zenbait gomendio ematen dizkie, gomendio horiek jarraituz gero zerrenda beltz horretatik at geratuko direlarik. Ingelesez, *Organisation for Economic Co-operation and Development* bezala ezagutzen da.

- ***Nazio Batuak (UN)***

Erakunde honen proposamena herrialdeen arteko Legedia uniforme bat ezartzea da erregulazio finantzarioei dagokienean, modu honetan batean edo bestean jarduteak ez lukeelako alderik izango. Berdin izango litzateke edonolako enpresentzat Espainian ala Suitzan egon, bietan Legedia bera balego.

Egia da baina, bai Nazio Batuen erakundearen barnean eta baita Europar Batasunarenean ere, herrialdeek ezaugarri asko partekatzen dituzten arren,

¹⁰ G-7: Mundu mailan ekonomikoki, politikoki eta militariki botere handia duten zazpi herrialdek osatzen duten taldea da. Alemania, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japon eta Erresuma Batuak dira bertako kide.

batetik besterako aldeak esanguratsuak direla eta Legedia uniforme bat ezartzea ez litzatekeela lan erraza izango.

Aldiz, Legedia uniformerik egon ez arren, orain dela urte batzuetatik gaur egun arte herrialde ezberdinetan lege-berdintasunak ezarriz joan dira; honen adibide esanguratsuena gaur egun diru zuritzea munduko edozein lekutan delitu izendatzen dela izan daiteke, orain dela urte batzuk arte horrela izan ez dena.

Aipatu ditugun lau entitate hauek dira gaur egun *Paradisu Fiskalen* inguruko neurri zorrotzenak ezartzeaz arduratzen direnak, baina badira beste zenbait talde lan horretan gogor jarduten dutenak ere. Aipamen egitearren, **Egmont Group**, **Wolfsberg Group** eta **Moneyval** izenda ditzakegu gai hauetan oso iaioak diren entitateak baitira.

Bestalde, **Edwards Txostena** delakoa ere nahiko famatu egin da Fiskalitate Neurrien inguruko gaietan; gobernu britainiarrak 1998.urtean azaleratu zuen lana baita Man Irlark, Canar Jersey Irlak eta Guernsey Irlai buruzko ikerketa bat eginez.

Aurrera jarraituz, neurrien deskribapena amaitu aurretik, azpimarratu beharra dago *Ezkatuko Ekonomiaren* neurriekin gertatzen zen moduan, hemen ere mota ezberdinetako neurriak egon daitezkeela:

1. Batetik, jarduera okerra eta legez kanpokoak diren guztiak salatzeko eta zigortzeko helburua duten **neurri ezkorrak** daude. Hauek Fiskalitate altuko herrialdeek erraz hartu ohi dituzten neurriak izaten dira.
2. Bestetik, aldiz, presio fiskala murrizteko helburua duten **neurri positiboak** daude, hauen helburua gaizki dagoena okerrera joan aurretik zuzentzea delarik. Neurri positiboen artean, zergen murrizketa, amnistia fiskalak, inposaketa bikoitza ekiditeko hitzarmenak eta hauekin erlazionaturikoak izaten dira.

Hitzarmenen ildotik jarraituz, gaur egun bi dira herrialdeen artean sinatzen diren hitzarmenak, biak ere neurri positiboak direlarik:

1. **Herrialdeen artean informazioa partekatzeko hitzarmenak:** azken urteetan mundu mailako herrialde askok sinatu duten hitzarmena da hau. Honen bitartez, *Paradisu Fiskal* izenpean dauden herrialde askok Fiskalitate altua duten herrialdeekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen dute.
2. **Zergapen bikoitza ekiditeko hitzarmenak:** herrialde bat baino gehiagotan jarduten duten enpresek zenbait kasutan izan ditzaketen desabantaila fiskalak ekiditeko hitzarmenak dira. Desabantaila fiskal hauek bi herrialde ezberdinetan jarduera ekonomikoa burutzean sortzen direnak dira, zerga-sistema ezberdinak izatean inposaketa bikoitza sortzen baita. Ondorioz, hitzarmen hauen helburua herrialde batean inposatzen dena bestean salbuetsia egotea da.

Aipaturiko bi hitzarmen horiek dira nazioarte-mailan gaur egun hartzen diren neurri ezagunenetakoak. Hala, azpimarratu beharra dago, Europar Batasuneko kide direnek hitzarmen hauek betetzeko presio oso zorrotza izan ohi dutela arestian deskribatu ditugun organismoen aldetik.

Guzti honekin bada *Paradisu Fiskalen* aurka ezartzen diren neurrien aipamena egin dugu, neurri hauek zergatik ezartzen diren, nork bultzatzen dituen neurriok eta norengan eragiten duten esanaz.

Hala eta guztiz ere, teorikoki neurri hauek ongizatera bultzatzen gaituzten arren, irtenbidea ez da legeak jartzea, lege horiek nola ezarri eta zein neurritan aplikatzen diren aztertzea baizik. Horretaz gainera, neurriak neurri, gaur egun *Paradisu Fiskaletarantz* eramaten gaituzten bide ugari daude irekita, bide horiek gero eta estuagoak diren arren.

Hau esanik, aipaturiko neurriek eta neurri horien inguruan lanean dihardutenek beren helburuak betetzea lortzen dute, baina ez nahi bezain azkar, ez eta nahi bezain beste ere.

Paradisu Fiskal deritzen herrialdeen ikuspuntutik, berriz, ez da inongo herrialderen gustuko *Offshore* herrialde edo *Paradisu Fiskal* modura ezagun izatea. Ondorioz, gero eta herrialde gehiago ari dira gehitzen lehen aipaturiko organismoek ematen dituzten gomendioak aplikatzera, modu horretan izenpe hori ezabatu nahian.

Honela bada, hurrengo ataletan *Paradisu Fiskalek* herrialde ezberdinetan hartzen duten tarteak deskribatzen saiatuko gara, espainiar Estatuarekin hasiz (2.12 atala) eta Europa (2.13 atala) eta mundu mailako beste zenbait herrialderekin jarraituz (2.14 atala).

2.12 Espainia eta bere ingurua

Hurrengo ataletan *Paradisu Fiskalek* duten presentzia aztertzen jardungo gara, lehendabizi Espainiar kasua erreparatuko dugularik.

Espainia ez da *Paradisu Fiskal* kontsideratzen den herrialdea, orokorrean Fiskalitate altuko araudia baitu. Aldiz, badira lurralde batzuk besteek baino egoera fiskal onuragarriagoak aurkezten dituztenak, jarraian azalduko dugun moduan (Martínez Selva, 1998) eta (Martínez Selva, 2009):

- ***Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa***

Aspaldidanik Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak ***kontzertu ekonomiko*** bat sinatua dute estatu espainiarrarekin, non kontzertu edo kontratu honen bidez lurraldeok beren aldundien baliabideak nahi bezala kudeatzeko boterea duten.

Modu honetan, ***kupo*** deituriko urteko ordainketa bat egiten zaio espainiar estatuari, espainiar mailako zerbitzuengatikoa izango dena.

Nafarroaren kasuan, lurralde honek ere erregimen foral berezi bat du sinatua eta euskal probintzien abantaila antzekoez baliatzen da.

Aipatu ditugun hitzarmen hauen bitartez, probintzia hauek Espainiako beste guztiek baino Fiskalitate erosoagoa dute zenbait zentzutan: sozietateen gaineko zerga-tasa baxuagoa ordaintzen dute, Enpresa Txiki eta Ertaintzako (ETEak) abantaila fiskalak eskaintzen dituzte eta burtsan aritzen diren enpresentzat ere zenbait onura lortzeko aukera ematen dute.

- ***Kanariar Irlak***

Kanariar Irlak ere badituzte zenbait abantaila Espainiar penintsularekin konparatuz gero. Egia esan, penintsulagatiko urruntasunak ematen dizkie lurralde hauei abantaila nagusiak, Administrazio Zentralak ezarri ahal ditzakeen kontrolak ezin baitira modu berean aplikatu penintsulan bertan eta penintsulatik kanpo.

Ezaugarri geografiko hauei esker, Kanariar Irlak betidanik izan dute askatasun gehiago beren merkataritza eta zerga-sistemen erregimenean, eta ondorioz, bertako presio fiskala penintsulako lurraldeena baino txikiagoa izan ohi da. Presio fiskal txikiagoa dutenaren adibide esanguratsuena Kanariar Irlatan kokaturik dauden sozietateentzako zergapen-eskala beste lurraldeetan baino txikiagoa dela da.

Hala ere, esan beharra dago, Kanariar Irlatan enpresa bat aurrera eramateak bere desabantailak ere badituela komunikazio, gertutasun eta hornikuntza-

gaitasunak ez baitira Iberiar Penintsulako edozein lurraldetan izan daitezkeen modukoak, kokaleku geografikoaren kausaz; horregatik, turismoa da irla hauetan gehien garatua dagoen sektorea.

- **Gibraltar**

Gibraltar Espainiar penintsulan kokaturik dagoen kolonia britainiarra dela dakigun moduan, lurralde gutxik dituzten berezitasun horietaz baliatzen da *Paradisu Fiskal* izateko.

Gibraltar gobernu britainiarrak gobernatzen du, eta beraz, Administrazio Ingelesak ezarritako Legedia aplikatzen da bertan. Ondorioz, entitate finantzario askok eta askok bertan eraikitzen dituzte beren egoitzak, Legedia hau erabiliz espainiar lurraldean abantailak lortu ahal izateko.

Honekin loturik, gaur egun Gibraltarreko baliabide iturri garrantzitsuena finantza jarduerak osatutakoa da, bertan kokaturiko banku eta entitate finantzarioek *Paradisu Fiskaletako Offshore* banku moduan jokatzeko dutelarik.

Bertakoak diren herritar eta enpresentzat presio fiskal altuko herria den arren, atzerriko enpresentzat abantaila fiskal ugari eskaintzen ditu Gibraltarrek. Gauzak honela, enpresa ugari Gibraltar aukeratzen dute beren helbide fiskal moduan ezartzeko, eta ondoren, beren jarduera ekonomiko guztia Espainian garatzen dute. Modu honetan, enpresa hauek lortzen dituzten abantaila eta aurrezki-fiskalak beste edozein *Paradisu Fiskaletan* lortzen direnen parekoak dira.

- **Andorra**

Andorra Espainia eta Frantziaren artean kokatua dagoen herrialdea den heinean, espainiarrentzako oso eskura geratzen den geltokia da. Gainera, *Paradisu Fiskalak* aukeratzeko irizpideetan esan bezala, gertutasuna kontutan hartu beharreko ezaugarria den heinean, espainiarrek betidanik asko erabili izan duten herrialdea da Andorra.

Andorrrak abantaila fiskal dezente eskaintzen ditu, baina ez atzerriarrentzat soilik; herrialde honetan bizi diren biztanleek ez dute inolako zerga-ordainketarik egiteko betebeharririk. Honen baitan, bat baino gehiago dira beren bizilekua Andorrara aldatu dutenak zerga-inposaketak ekiditeko helburuarekin, eta horietako asko elite mailako kirolariak izaten dira.

Horretaz gain, espainiar aurreztaileentzat ere betidanik izan da toki aproposa, Andorra Espainia baino merkeagoa baita diru-funtsen gordeleku bezala erabiltzeko.

Atzeritar sozietateei dagokienean ere herrialde honek hainbat aukera eta proposamen onuragarri eskaintzen ditu, baina egia da Andorrrak baino abantaila fiskal hobeak dituen hainbat herrialde daudela.

2.1 Mapa: Espainia eta bere inguruan abantaila fiskalak dituzten lurraldeak



Iturria: Elaborazio propioa, *Google Maps* bitartez.

2.1 mapan ikus daitekeen moduan, aipatu ditugun lau esparru horiek dira Espainian eta honen inguruan aurki daitezkeen abantaila fiskaldun herrialdeak. Edonola ere, **Ceuta eta Melilla** ere Espainiako lurralde berezien artean kokatu daitezke, hauek ere Penintsulatik at geratzen baitira Kanariar Irlakin gertatzen den moduan.

Honela bada, Espainia gune turistikoetan kokatu izan diren egoiliarrentzat *Paradisu Fiskal* moduko bat izan da urteetan zehar, ez baitu kontrol egokirik izan atzerritarren joan-etorriak aztertzeko. Hala ere, urteen poderioz beste herrialde askotan bezala, araugintza eta presioa gero eta zorrotzagoak dira espainiar estatuan, bai bertakoak direnentzat eta baita kanpotarrentzat ere.

Honen guztiaren ondotik, *Paradisu Fiskalen* ikuspuntutik Espainiaren kokalekua aztertu ondoren, **Espainiak Paradisu Fiskalekiko duen ikuspuntua** zer nolakoa den adieraztea interesgarria izan daiteke. Horretarako, jarraian ageri den 2.2 taulan Espainiar Autoritateek Paradisu Fiskal izena ematen dieten 48 herrialdeen zerrenda dugu ikusgai:

2.2 Taula: Espainiar Autoritateak Paradisu Fiskal kontsideratzen dituen herrialdeen zerrenda

<i>Andorra</i>	<i>Bruneiko Sultanerria</i>	<i>Liberiako Errepublika</i>	<i>Oman-eko Sultanerria</i>
<i>Angila</i>	<i>Cook Irlak</i>	<i>Liechtenstein</i>	<i>Panama</i>
<i>Antigua eta Barbuda</i>	<i>Dominikar Errepublika</i>	<i>Luxenburgo</i>	<i>Salomon Irlak</i>
<i>Antilla Holandarrak</i>	<i>Fiji</i>	<i>Macao</i>	<i>Santa Luzia</i>
<i>Arabiar Batuen Emirerria</i>	<i>Gibraltar</i>	<i>Maltako Errepublika</i>	<i>San Marino</i>
<i>Aruba</i>	<i>Granada Irla</i>	<i>Malvina Irlak</i>	<i>San Vicente eta Granadinak</i>
<i>Bahamak</i>	<i>Guernesey eta Jerseyko Irlak</i>	<i>Man Irlak</i>	<i>Seychell Irlak</i>
<i>Bahréin Estatuaren Emirerria</i>	<i>Hong Kong</i>	<i>Mariana Irlak</i>	<i>Singapur</i>
<i>Barbadoak</i>	<i>Jamaika</i>	<i>Maurizio</i>	<i>Trinidad eta Tobago</i>
<i>Bermuda</i>	<i>Jordaniako Hachemita Erreinua</i>	<i>Monako</i>	<i>Turks eta Caicos Irlak</i>
<i>Birjina Irla Britainiarrak</i>	<i>Kaiman Irlak</i>	<i>Montserrat</i>	<i>Txipreko Errepublika</i>
<i>Birjina Irlak Amerikarrak</i>	<i>Libanesar Errepublika</i>	<i>Nauruko Errepublika</i>	<i>Vanuatuko Errepublika</i>

2012an Paradisu Fiskal kontsideratzeari utzi zioten herrialdeak

Lortutako hitzarmenei esker Paradisu Fiskal kontsideratzeari utziko dioten herrialdeak

Hitzarmenak sinatzeko prozesuan dauden herrialdeak

Iturria: Elaborazio propioa, BOE - RD 1080/91an oinarriturik (eguneratua).

Ikusten denez, 48 dira Espainiar Aldizkari Ofizialean aipamen egindako herrialdeak, baina jadanik horietako zazpi *Paradisu Fiskal* izenpean egoteari utzi diote, espainiar Estatuarekin zergapen bikoitzaren inguruko eta informazio eskualdatze hitzarmenak sinatzeagatik. Taulan ikus daitekeen moduan, honako hauek dira zazpi herrialde horiek: Andorra, Antilla Holandarrak, Arabiar Batuen Emirerria, Aruba, Jamaika, Maltako Errepublika eta Trinidad eta Tobago.

Bestalde, laranja adierazirik dauden herrialdeak ere ez dira *Paradisu Fiskal* kontsideratuko aurrerantzean, hauek ere hitzarmenak sinatu baitituzte espainiar Autoritateekin. Egoera honetan honako bost herrialde hauek daude: Bahamak, Barbadoak, Panama, San Marino eta Singapur.

Azkenik, badira beste zenbait herrialde etorkizunean espainiar ikuspuntutik *Paradisu Fiskal* izateari utziko diotenak, herrialde hauekin ere hitzarmen lorpenak egiteko prozesua martxan baita. Herrialde hauek urdinez azpimarraturik agertzen direnak dira: Bermuda, Cook Irlak, Hong Kong, Kaiman Irlak, Santa Luzia, San Vicente eta Granadinak.

Ondorioz, aipatu gabe geratzen diren beste herrialde guztiak *Paradisu Fiskal* dira gaur egun eta hala izaten jarraitzeko itxura dute, beti ere espainiar ikuspuntutik hitz egiten ari garela kontutan hartuta. Beraz, Espainiak Europa mailan *Paradisu Fiskal* moduan hartzen dituen herrialdeak Monako, Luxenburgo eta Liechtenstein izango dira, besteak beste.

2.13 Europa Mailan

Espainiar ikuspuntua alde batera utzita, Europa mailan gaur egun ezagunenak diren *Offshore* lurraldeak azalduko ditugu jarraian. Horretarako *Paradisu Fiskal* hitzekin gehien erlazionatzen ditugun herrialdeak banan-banan deskribatuko ditugu, beren ezaugarri nagusiak zein diren azalduz (Martínez Selva, 2009) eta (El País, 2014).

- **Suitza**

Suitza *Paradisu Fiskal* terminoarekin erlazionatzen den lehen herrialdetako bat izan daiteke, historian zehar Fiskalitate-munduan garrantzi handia izan duen herrialdea baita. Gauzak honela, Suitza dirudun eta boteretsuak direnen babesleku edo aterpe moduan ezagutu izan da betidanik, eta horren ondorioa herrialde honek mota guztietako enpresari eta inbertitzaileak erakartzen dituela da.

Herrialde honetako finantza sektoreak indar handia du bere ekonomian, entitate finantzarioek betetzen dituzten jarduerak oso zabalak direlako; bai bertako, eta noski, baita bertako ez direnekin ere.

Honetaz gain, *Paradisu Fiskalen* ezaugarri garrantzitsuenetako bat banku-sekretua mantentzea dela esana dugu jada eta Suitzak oso ondo bete izan du inbertitzaileek eskatu ohi duten baldintza hau. Hala eta guztiz ere, konfidentzialtasun eta pribatutasun maila hori asko murriztu da azken urteetan, Suitzak hainbat herrialderekin informazio-partekatze eta zergapen-bikoizketak ekiditeko hitzarmenak sinatu baititu.

Bestalde, atzerritarrentzako betidanik hain erakargarria izan den herrialde honek presio fiskal nahiko altua dauka bertakoak diren herritarrentzat. Gainera, herrialde honetan erakargarritasun hori urteen poderioz gero eta txikiagoa da, Fiskalitate altua duten herrialde europarrek presio handia sartu baitiote Suitzari eta presio horren ondorio dira aipatu ditugun hitzarmen horiek.

Gauzak honela, zergak ekiditeko aukerak gero eta ahulagoak dira herrialde honetan, *Paradisu Fiskalen* ikur izaten jarraitzen duen arren.

- **Monako**

Paradisu Fiskal kontsideratzen diren herrialde gehien moduan, Monako oso herrialde txikia da eta bizi-kalitate oso garestia duena gainera. Herrialde honek ez dauka industria handirik eta ez da sozietateak eratzeko abantaila fiskal onenak ematen dituen herrialdea ere. Aldiz, egonleku moduan izendatzeko aukera ona izan liteke, Monakoko herritarrek ez baitute errentaren gaineko zergarik ordaintzen, ez eta beren inbertsioen mozkinen gainekorik ere.

Hau honela dela jakinda, Monako Fiskalitate pribilegiatua duen herrialdea dela esan genezake. Edonola ere, bizilekua Monakon egokitu nahi duen atzerritar oro zergak ordaintzeaz salbuetsita egongo den arren, Monakon bizilekua izateko bete beharreko baldintzak garesti zamarrak izan daitezke; Monakon etxe bat, lokal edo dena delako bat erostea ez baita inbertsio merkea.

- **Austria**

Austria bere egonkortasun politiko eta ekonomikoagatik da ezaguna. Herrialde honek segurtasuna islatzen du eta horrek inbertitzaileak erakartzea onduzotzen du.

Horretaz gain, herrialde honek diskrezioa izan du bere finantza-sektorearen oinarritzat beti, Suitza edo Liechtenstein bezalakoek eskaini dezaketen diskrezioa baino altuagoa oraindik. Honekin loturik egongo da noski banku-sekretua ere, Europar Batasunaren barne sartze horrek ezaugarri hau ahuldu duen arren. Beste kasuetan gertatzen den bezala, Europar Batasunean sartu ahal izateko onartu beharreko baldintzek Austriak duen Fiskalitatearen onurak kaltetzen ditu, modu honetan *Offshore* lurralde izatetik at geratuz.

Ondorioz, inbertitzaileentzat Austria ez da gaur egun erabili daitekeen herrialderik egokiena, ematen dituen abantaila fiskalak txikiak baitira bertan inbertitzeak suposatzen duen arriskuaren ondoan. Hala ere, beti esan moduan, inbertitzaile bakoitzaren ezaugarri eta helburuen arabera herrialde guztiak edo ia guztiak izan daitezke *Paradisu Fiskal*.

- **Luxenburgo**

Europaren erdigunean kokaturik dagoen herrialde honek indar handia hartu du finantza-munduan, inbertsio-funts gehien ematen dituen Europako herrialdea baita; eta mundu mailan bigarrena, Estatu Batuen atzetik. Hori jakinik, eta Luxenburgo oso herrialde txikia dela kontutan izanda, Finantza munduan duen boterea oso nabaria da.

Gauzak honela, herrialde hau oso aproposa da *Holding* moduko sozietateak eratu nahi dituenarentzat, ondasunak agerian eduki nahi ez dituenarentzat edota inbertsioak egin nahi dituenarentzat. Zerga-sistema oso baxua dauka eta kapitalen mozkinen gaineko zergak nuluak dira.

Herrialde askotan aplikatzen ari diren neurriei dagokienean, Luxenburgok zergapen bikoitza ekiditeko hitzarmenak sinatuak ditu hainbat herrialderekin, baina ez da herrialdeen artean informazioa partekatzearen aldekoa.

Edonola ere, herrialde hau Europar Batasunaren barne dagoenez gero, bertako kide izan baino lehenagoko hainbat abantaila galduak ditu jada.

- **Liechtenstein**

Herrialde honentzat bere iturri ekonomiko garrantzitsuenak banku eta enpresen administrazio zerbitzuak ematearenak dira. Argi dago, bada, hau ere oso herrialde txikia izanik, atzerritarrekin finantza eta aholkularitza lan asko egiten dituen herrialdea dela.

Honela bada, eskaintzen dituen abantaila fiskalen artean bere kokaleku geografiko estrategikoa, Legedia Fiskal ona, egonkortasun politikoa, diru-kapitalen mugimenduak egiteko askatasuna eta sozietateak eratzeko ematen dituen erraztasunak daude.

Aukera guzti horiei esker, Liechtenstein gaur egun Europa mailan ageri den *Paradisu Fiskal* erabilienetako bat da bai inbertitzeko, eta baita zergak ekiditeko ere leku aproposa baita.

- **Britainiar Irlak**

Britainiar Irlak aipatzen ditugunean, hainbat eta hainbat dira gaur egun *Paradisu Fiskal* modura ezagutzen direnak, guztiek abantaila fiskal esanguratsuak eskaintzen dituztelarik.

Honela bada, Britainiar Irlen artean ezagunenak direnak Man Irla eta Kanaleko Irlak dira. Azken hauetan Jersey, Guernesey, Sark eta Alderney bezalakoak sartzen direlarik.

Britainiar Irla guztiak sozietateak eratzeko lurralde abantailadunak dira, gaur egun Jersey famatuenetarikoa delarik. Gainera, Jersey-koak direnek ez dute kapitalen irabaziengatikozko mozkinik ordaintzen, ez eta herentzien transmisioak egiteagatik ere.

- **Irlanda**

Irlanda sozietateen mozkinengatikozko zerga-tasa baxuak izateagatik da ezaguna. Herrialde honetako Fiskalitateak aparteko onurarik ez duen arren, sozietateek beren mozkinengatikozko zerga gutxiago ordaindu ahal izateko aukera horrek, Britainia Handiko enpresa ugari Irlandara joatea ondorioztatu du azken urteotan.

Aldiz, ezaugarri horretaz gain ez dauka *Paradisu Fiskalen* izenpean egoteko arrazoi handirik, Europar Batasunaren kide den heinean, herrialde honetan egin daitezkeen jarduera finantzarioak oso erregulatuta baitaude.

- **Besteak**

Europar badira beste hainbat herrialde, horietako bakoitzean abantaila fiskalak aurki daitezkeenak; adibide gisa, **Madeira eta Txipre** aipa genitzake. Hauek ere *Paradisu Fiskal* modura ezagutuak izan dira zenbait kasutan, baina ez daukate aipaturiko besteak bezain indarririk.

Zerrenda honi amaiera ematearren, **Malta eta San Marino** bezalakoan aipua ere egin daiteke, Fiskalitate altuko herrialdeek ematen ez dituzten aukerak eman izan baitzikiete inbertitzaile atzerritarrei.

Modu honetan, jarrian aurkezten den 2.2 *mapak* Europa mailan aurki daitezkeen herrialde erakargarriak erakusten ditu, irizpide fiskaletik begiratuta noski.

2.2 Mapa: Europako Paradisu Fiskalak



Iturria: Elaborazio propioa, *Google Maps* bitartez.

Hala eta guztiz ere, Paradisu Fiskalen protagonista nagusi modura ezagutzen direnak Suitza, Luxenburgo eta Britainiar Irlak bezalakoak dira, finantza-munduan lortua duten boterearen ondorioz. Hala bada, esan beharra dago herrialde eta organismo guztiek ez dituztela *Offshore* lurraldeen zerrenda berdinak aurkezten, erabiltzen den irizpide eta ikuspuntuaren arabera bata edo besteak aipatu daitezkeelako.

Espainiaren kasuan, aurreko atalean (2.12 *atala*) ikusi dugun moduan, 48 herrialde zituen bere zerrenda beltzean, gaur egun zerrenda hori txikiagotu egin den arren. Hemen aipatutakoen artetik, Espainiak Monako, Luxenburgo, Liechtenstein eta Britainiar Irlako batzuk *Paradisu Fiskal* kontsideratzen ditu gaur egun ere.

2.14 Mundu Mailan

Europar errepassoa egin ondoren, mundu mailan dauden Finantza lurralde boteretsuenak zeintzuk diren aztertzea geratzen zaigu, horretarako munduko punta batetik besterako analisi bat eginez eta agertu litezkeen *Offshore* lurraldeak behatuz (Lomba, eta Pozuelo, 1996) eta (Martínez Selva, 2009).

a) Amerikar Kontinentea

Amerikar kontinentean beren Fiskalitateagatik mundu mailan ezagunak diren lurraldeak Karibe ingurukoak dira ia guztiak. Hala, inguru honetan daude mundu mailako *Paradisu Fiskal* indartsuenetarikoak. Guztiak itsasoz inguratutako lurraldeak izan ohi dira, turismo eta finantza-munduan iaioak izaten direlarik. Hauek dira, bada, Karibeko irla interesgarrienak, ikuspuntu finantzarioaren arabera:

- i. **Bermuda Irlak:** tributazio nulua duen *Paradisu Fiskal* purua da irla hau, ez baitu inolako zerga-ordainketarik egitera behartzen inbertitzailea; ez dago ez sozietateen gaineko zergarik, ez kapitalen irabaziengatikorik, ez eta herentzien tramitazioen zergapenik ere.

Trust moduko enpresak sortzeak ez du inolako zailtasunik lurralde honetan, Legedia oso malgua baitute Bermuda Irlak. Gainera, herrialde honek eskaintzen dituen banku-zerbitzuak oso zabalak dira eta honekin munduko edozein lekutako inbertitzaileari nahi adina jarduera burutzeko aukera ematen zaio.

- ii. **Bahama Irlak:** Bahama Irlena 750 irlek osatzen duten artxipelagoa da. Karibe inguruko uhartedi aberatsena da, lurralde honetako ekonomia Estatu Batuenari hertsiki lotua baitago. Honi esker, mundu mailako finantza-zentro garrantzitsuenetako bat da, bere egoera politiko eta ekonomikoa ere egonkor mantentzen baitira.

Legedia Fiskalari dagokionean, askatasun handia ematen duen lurraldea da, bai inbertsioak eta baita sozietateen eraketarako ere.

Irla hauetan oso ohikoak izaten dira aurreko atalean deskribaturiko IBC sozietateak eratzea, *trust* bidezko estrategiak erabiliz.

- iii. **Kaiman Irlak:** *Gran Caiman*, *Pequeño Caiman* eta *Caiman Brac* irlek osatzen duten irla-hirukotea da honako hau. Lurralde hau ere mundu mailako finantza paradisu boteretsuenen artean kokatzen da, bertako zergapen sistemak ez baitu ia batere zergarik ezartzen.

Espainiar inbertitzaileek gustuko izaten duten gunea da honako hau eta baita mundu mailan finantza-jarduerak burutzen dituzten banku

handiek ere. Hala ere, gaur egun espainiar Estatuarekin informazioa partekatzeko hitzarmena du sinatua.

Edonola ere, Kaiman Irltako Legediak oso onuragarria izaten jarraitzen du aurrezki-fiskala lortu nahi duen edonorentzat.

- iv. **Birjina Irla britainiarrak:** hirurogei irlek osatzen dute artxipelago hau, horietatik hiritartuta daudenak hamasei bakarrik diren arren. Hauetan garrantzitsuena Tortolako Irla da, bertan baitago finantza mugimendu handiena. Irla hauetako autoritateen diru-sarrera garrantzitsuena *Offshore* sozietateen eskutik lortzen dutena da, turismoaren gaineratik.
Azken urteetan erregulazio ugari aplikatu dituzte irla hauetan, *Paradisu Fiskal* izenpetik desagertzeko helburuarekin, baina oraindik gardentasun eta gainbegiratze prozesu ugari dute egiteke.
- v. **Irla Turka eta Kaikoak:** *Offshore* zentro moduan jokatu ahal izateko Legedia aproposa duten irlak dira, askatasun handia ematen baitute sozietateen eraketarako. Horretaz gain, konfidentzialtasuna mantentzeagatik dira ezagunak, ezaugarri horrek atzerritarren inbertsioak erakartzen dituelarik.
- vi. **Belize:** Erdi-Ameriketako kokaturiko nazio honek ere aipaturiko beste lurraldeen abantaila antzekoak eskaintzen ditu: kostu baxuak, konfidentzialtasuna, sozietateen eraketarako azkartasuna eta finantza-jarduerak eratzeko erraztasuna, besteak beste. Aldiz, beste askoren moduan, azken urteotan banku-sekretu eta bestelako pribatutasun klausulak murrizten joan da.
- vii. **Panama:** mundu mailako banku garrantzitsuenek sukurtsalak kokatzen dituzten *Offshore* zentroa da hau ere. Finantza arloz gain, merkataritza inguruko jarduera oro egiteko ere herrialde abantailaduna dela esan ohi da.
- viii. **Antilla Holandarrak eta Aruba:** Venezuelako kostatik gertu kokatzen diren bi irla multzo dira, biak ere historian zehar *Paradisu Fiskal* gisa jardun izan direlarik. Aldiz, denboraren poderioz abantaila fiskalak gero eta murriztagoak dira lurralde hauetan, zergapen-sistema gero eta gehiago zorrotzen ari baita irla hauetan. Desabantaila hauen adibide gisa, mozkinen eta sozietateen gaineko zergak handitu egin dituztela esan genezake.
- ix. **Antigua eta Barbuda:** urteetan zehar *Offshore* bankuen ezarpenak errazteko Fiskalitate onuragarriak izan dituzten irlak dira hauek, biak Karibeko irlak direlarik. Hala eta guztiz ere, beste lurralde askorekin gertatu den moduan, urteen poderioz lurralde hauetan ere irregulartasun fiskalen aurkako neurriak aplikatuz joan dira.

Honela bada, ameriko kontinentean *Paradisu Fiskal* modura ezagunak diren herrialdeen zerrenda egin ondoren, lurralde guzti horien mapa bidezko irudi geografikoa dugu aztergai 2.3 mapan.

2.3 Mapa: Ameriko Kontinenteko Paradisu Fiskalak



Iturria: Elaborazio propioa, *Google Maps* bitartez.

Ameriko kontinenteari amaiera eman aurretik, **Uruguay** herrialdearen aipamena egin beharko litzateke, herrialde honek ere *Offshore* negozioen eraketan baduelako bere indarra. Uruguay-k malgutasun nabaria du bere Legedia Fiskala ezartzerakoan eta horrek, *IBC* moduko enpresen sorrera ekartzen du herrialde honetara.

b) Afrika

Afrikar kontinenteak ez du inoiz nagusitasun handirik izan *Paradisu Fiskalen* munduan, ez baitu atzerritarrak erakartzeko nahikoa baliabiderik. Egia da gainera, Fiskalitate garapen nahikorik ez duela mundu mailako beste lurraldeekin lehiatu ahal izateko.

c) Ozeano Indiko eta Pazifikoa

Ozeano Indiko eta Pazifikoa dira azkenik aztertuko ditugun eremuak, asko baitira *Paradisu Fiskal* modura ezagutzen diren lurraldeak, gehientsuenak iriak izango direlarik.

Lehenik eta behin, 2.4 mapa deritzon honetan Ozeano Indiko eta Pazifikoko lurralde fiskal abantailatsuenak ditugu aztergai, ondoren banan-banan guztiak azalduko ditugularik.

2.4 Mapa: Ozeano Indiko eta Pazifikoko Paradisu Fiskalak



Iturria: Elaborazio propioa, *Google Maps* bitartez.

- i. **Maurizio:** Ozeano Indikoan kokaturik dagoen irla da Maurizio, Madagaskarren ekialdean. Bertan abantaila fiskal ugari aurki daitezke, diru-kapitalen mugimenduak egiteko askatasuna eta Legedia Fiskal malgua, besteak beste.
Gaur egun enpresari hindu eta hego Afrikako bezeroak dira herrialde honek gehien erakartzen dituen inbertitzaileak, kokaleku oso egokia baitu leku horietako jendearentzat.
- ii. **Seychell Irlak:** ehun irlek osatzen duten artxipelago hau Madagaskarren iparraldean dago kokaturik. Mota guztietako *Offshore* zerbitzuen eskaintza egiten du, bai banku eta baita sozietateen aldetik ere. Bertan jarduten duten bezero garrantzitsuenak indiar jatorrikoak izaten dira.
- iii. **Persiako Golkoa:** Abu Dhabi, Bahrein, Dubai eta Qatar bezalako emirerriek ere *Offshore* zerbitzuak eskaintzen dituzte. Gaur egun Dubai da hauen artean finantza-lurralde famatuena.
- iv. **Labuan:** Ozeano Pazifikokoaren hegoaldean kokaturik dagoen irla da Labuan. Lurralde honek ere banku zerbitzu ugari eskaintzen ditu, eta

horren ondorioz, finantza islamiarretan garrantzi handia duen lurralde izatea lortu du.

- v. **Hong Kong:** mundu mailako finantzetan botere izugarria duen herrialdea da. *Paradisu Fiskal* izateaz gain, mundu mailako finantza eta merkataritza zentro lehenetarikoa da. Beren ezaugarrien artean, bankuzerbitzu oso garatuak, Fiskalitate baxua eta konfidentzialtasuna nabarmentzen dira.
- vi. **Singapur:** Legedia Fiskal onuragarria duen herrialdea da hau ere, bai sozietateak eratzeko eta baita atzerritarren inbertsioak egiteko ere. Gaur egun ematen dituen abantaileri jarraiki, Asiako aberatsen gordeleku ari da bilakatzen Singapur.
- vii. **Pazifikoko Irlak:** Ozeaniar Kontinenteko hainbat herrialde txikik ere badute beren garrantzia abantaila fiskalak lortu nahi dituztenentzat. Gaur egun gai honengatik ezagunenak diren irlak Cook, Marshall, Samoa eta Tonga izan daitezke.

Guzti hauekin, bada, mundu mailan ezagunenak diren lurraldeak laburtu ditugu, horietako bakoitzak duen garrantzia eta boterea zein mailatakoa den azpimarratuz. Argi dago betidanik izan direla ezagun Karibe inguruko Irlak eta baita Seychell Irlak ere, finantza-munduan nabariak izan baitira beti. Hala eta guztiz ere, gaur egun Singapur eta Hong Kong bezalako eremu handiagoak direnek ere botere esanguratsua dute *Paradisu Fiskalen* inguruko gaietan.

Honela bada, Espainia, Europa eta mundu osoko errebaso sakon hau egin ondoren, *Paradisu Fiskalei* buruzko atalari amaiera emateko moduan gara.

*3. Atala: Ezkutuko Ekonomia
eta Paradisu Fiskalak, biak
batera.*

3.1 Ondorioak

Atal hau hasi aurretiko orrialdeetan hitz egin dugunaren laburpena, sintesia edo ideien bilduma egiteke dago oraindik. Honela bada, azken atal honetan *Ezkatuko Ekonomia* eta *Paradisu Fiskalen* inguruko guztiak ondorioztatzen duena jorratuko dugu. Gainera, azken atal hau izango da denbora luzean azertu ditugun bi gai nagusien arteko erlazioa zehazten saiatuko dena: *Ezkatuko Ekonomia* eta *Paradisu Fiskalak*.

Honela bada, honako hauek dira bi kontzeptuon inguruan hausnartu ditugun ondorioak:

1. **Ezkatuko Ekonomia presio fiskalari eta ,batik bat, erregulazio legalei loturik dago.**

Ezkatuko Ekonomia Fiskalitatearekin eta bereziki Legalki ezarritako erregulazioekin erlazionatutako presioak eraginda sortzen da batik bat, eta herrialdeek baldintza hauek xumetzeko intentziorik ez dutenez, oso zaila izango da fenomeno ekonomiko hau guztiz ezabatzea. Horretaz gain, Etikak edo herritarren ikuspuntuak ere eragin nabarmena izaten du Ezkatuko Ekonomiaren izatean, Legedia xumea duten herrialdeetan Legedia gogorrekoetan baino irregulartasun handiagoak sortzen baitira askotan. Modu honetan, Ezkatuko Ekonomia sortzen den momentuan, Paradisu Fiskalen atea ere ireki egiten dira; Ezkatuko Ekonomian sortuko den diru-kapitalaren etxea, Paradisu Fiskal batean egon daitekeelarik.

2. **Ezkatuko Ekonomia eta Paradisu Fiskalen aurkako neurrien efizientzia kolokan dago.**

Ezkatuko Ekonomia eta Paradisu Fiskalen erabilera murriztu eta desagerrarazteko neurri-multzo zabalak dauden arren, neurri hauen efizientzia kolokan geratzen da, bi fenomeno hauen eboluzioa eta gaur egungo garapen-maila zer nolakoa den ikusita. Hala ere, urtez urte Ezkatuko Ekonomia murriztuz joan da eta hori berri ona izan daiteke honen aurkako neurriak jartzen dituzten organismoentzat. Modu berean, Paradisu Fiskalen desagertzea bultzatzeko neurri eta hitzarmenei esker ere, lurralde mota hauen existentzia gero eta kontrolatua dago, eta beraz, beren erabilera ere murriztagoa izatea espero da denboraren poderioz.

3. **Krisi egoeretan, Ezkatuko Ekonomiaren existentzia eta Paradisu Fiskalen erabilera areagotu egiten da.**

Fenomeno ekonomiko hauen urtez urteko jarraipena egiterakoan, bai jarduera irregularren erabilera eta baita Paradisu Fiskalen presentzia ere indartu egiten dira krisi egoeretan; beharbada, egoera ekonomiko larrietan Lan Merkatu Beltza indarrean egoten delako, eta bestalde, krisiari aurre egiteko Politiken beldurrez Paradisu Fiskaletara abiatzeko joera izaten delako.

4. Bai Ezkutuko Ekonomiaren, eta baita Paradisu Fiskalen eraqile nagusietariko bat Etika falta da.

Etikaren ikuspuntuari dagokionean, ongizate-gizartearen aldekoa dela arrazoitu dugu, baina ikuspuntu hori gaur egun utopiko xamarra dela ere argi geratu da; mozkinen maximizazioa oinarri duen ekonomia batean ongizate-gizarteak ez baitu tokirik izango. Aldiz, Ezkutuko Ekonomiaren faktore eragiletako bat Etika falta da eta jarrera etiko hori barneratzen ez den bitartean, ongizate gizartea lortzea ezinezkoa izango da. Honi loturik, Paradisu Fiskalen erabilera egiten duen orok abantaila fiskalak bilatu ohi ditu bere interes propioentzako, eta beraz, Etika ez da izango norbanako hauen printzipio nagusi.

5. Denboraren poderioz, gertutasun faktoreak gero eta garrantzi gutxiago dauka.

Paradisu Fiskalen aukeraketa egiterakoan betidanik erabili izan den gertutasunaren faktoreak indar dezente du galdua, gaur egun ditugun komunikazio eta informazio-teknologiei esker; Internet adibide gisa hartu daitekeelarik. Gaur egun gehien estimatzen diren faktoreak banku-zerbitzuenak eta konfidentzialtasun-baldintzenak izaten dira. Aldiz, abantaila teknologiko hauek ez dira ez Ezkutuko Ekonomiarentzako ez eta Paradisu Fiskalantzako ere ezaugarri guztiz onuragarriak izango; aurrerapen teknologikoen, nahi eta nahi ez, kontrol handiagoa suposatzen baitute.

6. Herrialde ezberdinen arteko hitzarmenak gero eta ugariagoak dira.

Paradisu Fiskal idilikoen murriztapena ere nabarmena da jada, herrialdeen arteko hitzarmenak gero eta ugariagoak baitira; hitzarmen hauek inbertitzaileen inbertsio-askatasuna murrizten dutelarik. Modu honetan, Paradisu Fiskaletan kokatzen diren gaur egungo bankuek espezializazioa bilatzen dute, bezeroei ahalik eta zerbitzu garatuenak eman ahal izateko. Hala bada, hitzarmen bidezko neurriek Paradisu Fiskalak kaltetzen dituen heinean, Ezkutuko Ekonomiaren baitan egon daitezkeen jarduerak ere agerian gera daitezke zenbait kasutan.

7. Urteen poderioz, Paradisu Fiskalen mapa aldatuz doa.

Puntu geografikoen baitan, Paradisu Fiskalen mapa urteen poderioz aldatuz doala nabarmena da; lehen Karibe inguruko herrialdeak famatu ziren moduan, gaur egun herrialde ere Asiatikoak gero eta indar gehiago ari baitira hartzen. Honi esker, betidanik Paradisu Fiskal modura ezagutu izan diren herrialdeek garrantzia galdu dezakete, herrialde berriei lekua utziz. Hala ere, aldaketak aldaketa, abantaila fiskaldun bezala famatua den herrialde batek izenpe hori gainetik kentzeko gardentasunean oinarrituriko hainbat zuzenketa egin beharko ditu.

8. Ezkutuko Ekonomia eta Paradisu Fiskalen arteko erlazioa, erlazio guztiz zuzena da.

Bi kontzeptu hauen arteko erlazioa zehazterako garaian, Ezkutuko Ekonomiaren barne dauden jarduerak sortzen duten fruituaren ihesbide dira Paradisu Fiskalak. Ezkutuko Ekonomiak Kontabilitate Nazionalean aitortzen ez den guztia biltzen du eta bilketa hori gordepean mantentzeko tresna onenak Paradisu Fiskalak dira. Kontrako muturrean, Paradisu Fiskalen aurka ezarritako neurri oro Ezkutuko Ekonomiaren aurka joango da baita.

9. Orokorrean, Ezkutuko Ekonomiaren partaide dena, Paradisu Fiskalen erabiltzaile izango da.

Bien arteko erlazioari jarraiki, Ezkutuko Ekonomian mugitzen den jende boteretsua Paradisu Fiskalen erabiltzaile izango da orokorrean, Ezkutuko Ekonomia bezala izendatzen diren jardueretan parte hartzea erabakitzen duenak Paradisu Fiskalen batetan kontu-depositu bat ireki edo sozietate bat eratzeko aukera handiak izaten baititu. Modu honetan, neurriak neurri, Ezkutuko Ekonomia desagerrarazi edota Paradisu Fiskalen izatea murrizteko helburua, epe luzeko helburua izango da, Legearen hutsuneen baitan arakatzuz lortzen diren trikimailu ekonomiko eta fiskalak desagerraraztea ez baita gaurtik biharrerako epean lortu daitekeen zerbait.

Guzti honekin, bada, lehenengo eta bigarrenengo atalean jorratu dugun guztiaren ondorioak atera ditugu, bi atalek deskribatzen dituzten kontzeptuen arteko erlazioa zein den ere zehaztu dugularik.

3.2 Ikerketa-mugak

Lan honi behar bezalako bukaera eman ahal izateko, lan honen garapenean izan ditugun mugak aipatzea interesgarria izan daiteke. Aurretik jada aipatua dugun moduan, lan hau egiteko bertan esapide diren kontzeptuei buruzko analisi sakona egin behar izan dugu, ondoren sintesi batekin laburbildu duguna. Honela bada, analisi hori egiterako garaian, hainbat ikerketa-muga izan ditugu:

Batetik, *Ezkatuko Ekonomia* herrialde guztietako Autoritate edo agintariak ekidin nahi izaten duten gaia da orokorrean, eta horren ondorioz, fenomeno honi buruzko datu estatistiko eguneratuak lortzea ez da lan erraza izaten.

Bestetik, bai *Ezkatuko Ekonomia* eta baita *Paradisu Fiskalen* gaia ere, biak irizpide subjektiboei loturik joan ohi diren kontzeptuak dira, eta horrek informazio objektiboa lortzeko zailtasunak sortzen ditu.

Honela bada, gai hauei buruzko ikerketa egiterakoan zentzu handiz jokatzeko ezinbestekoa izan da, denboraren poderioz ahalik eta informazio garatuena eskaintzea bilatuz.

3.3 *Etorkizunerako ikerkuntza-lerroak*

Lan honen helburu nagusia *Ezkutuko Ekonomia* eta *Paradisu Fiskalen* kontzeptuak barneratzea eta bien arteko erlazioa ulertzea zen. Hala bada, helburu hauek betetzat jo genitzake, lan hau egiten hasi aurretik baino ezaguera zientifiko askoz hobea eta argiagoa izatea lortu baitugu. Aldiz, inoiz ez da nahikoa jakiten, jakituriak ez baitu mugarik izaten; horregatik, etorkizunera begira jarriko bagina, oraindik hainbat ikerkuntza-lerro ditugu irekiak.

Lan honek definizio eta termino aldetik jakin daitekeen oinarritzkoa bete du, baina lan hau luzatzeko aukera izango balitz, xehetasun-maila zabalagoko ikerketa bat egitea izango litzateke hurrengo pausua. Xehetasunak esatean, *Ezkutuko Ekonomiaren* barneko jardueren gaia jorratzea izango litzateke, Lan Merkatu Beltza adibidez. *Paradisu Fiskalen* kasuan, berriz, diru zuritzeak, narkotrafiko eta ustelkeria politikoen inguruan mugitzen den dirua nondik norakoa izaten den aztertzea ikerkuntza-lerro interesgarria izan liteke.

Horretaz gain, edonolako kontzepturen definizioa guztiz ulertu ahal izateko bere eboluzioa, aldaketak eta prozesua ezagutzea ezinbestekoa denez, etorkizunerako ikerketa-proposamena izango litzateke hori: *Ezkutuko Ekonomia* eta *Paradisu Fiskalek* aurrerantzean izango duten jarrera eta indarra aztertu, denboraren araberako analisia eginez.

3.4 Bibliografia

- Benito, S.M. (1988). *Al Otro Lado de la Economía*. Madrid: Ediciones Pirámide, S.A.
- Círculo de Empresarios (2010). *Implicaciones de la Economía Sumergida en España*. Madrid: Edición del Libro Marrón.
- Chambost, E. (1978). *Guide des Paradis Fiscaux*. (J.M. Ranero, Ed.) Madrid: Ediciones Pirámide.
- El Economista. “La Fiscalía presenta una querrela contra Messi y su padre por fraude fiscal”. (2013ko Ekainak 12). <http://ecodiario.eleconomista.es/futbol/noticias/4904301/06/13/La-fiscalia-presenta-una-querrela-contr-Messi-y-su-padre-por-fraude-fiscal.html> helbidetik eskuratua.
- El Diario Vasco. “Inspectores de Trabajo inician una campaña para hacer aflorar economía sumergida”. (2015eko Urtarrilak 26). <http://www.hoy.es/extremadura/201501/25/empieza-campana-trabajo-para-20150125003219-v.html> helbidetik eskuratua.
- El País. “Un Paraíso Fiscal de lujo en el corazón de Europa”. (2014ko Maiatzak 5). http://internacional.elpais.com/internacional/2014/05/05/actualidad/1399317478_562919.html helbidetik eskuratua.
- Eurofound. (2013). *Tackling undeclared work in 27 EU Member State and Norway*.
- Gutierrez, R. (2013.eko Ekainak 14). “Deportistas españoles que huyen para no pagar impuestos”. *Diario Crítico* <http://www.diariocritico.com/e-xclusivo/hacienda/deportistas-espanoles/fraude-fiscal/436876> helbidetik eskuratua.
- Jimenez, A. (2013). *La Economía sumergida en España*. Fundación de Estudios Financieros.
- Kepler, J. (2013). *A.T.Kearney Análisis*. Austria: Linz Unibertsitatea.
- Lomba, P. eta Pozuelo, F. (1996). *Práctica Fiscal Internacional*. Zaragoza: Asesoría Ruiseñores.
- Martínez Selva, J. (1998). *Los Paraísos Perdidos: Banca Offshore, Fiscalidad y Servicios Bancarios en el Exterior*. Madrid: Dostavat.
- Martínez Selva, J. (1998). “España, ¿un paraíso fiscal para las compañías holding?”. *La Verdad*, uztailak 6.
- Martínez Selva, J. (2009). *Los Paraísos Fiscales: Uso de las Jurisdicciones de Baja Tributación*. Madrid: Ediciones Jurídicas Difusa.
- Rodríguez, A. (2006). “Fundamentos científicos de la economía de la empresa”. *Metodología para la investigación y el desarrollo del conocimiento en gestión empresarial*-ikastaroa, Euskal Herriko Unibertsitatea (Bilbo), 1-39.

- Sardá, Jordi (2013). *La Economía sumergida pasa factura*. Madrid: Técnicos del Ministerio de Hacienda (GESTHA) eta Universitat Rovira i Virgili.
- Schneider, F. (2013). *The Shadow Economy in Europe*. AT Kearney.
- Soldevilla, E. (1995). "Metodología de investigación de la economía de la empresa". *Investigaciones Europeas de Dirección y Economía de la Empresa*, 13-63.
- Spitz, B. (1999). *Guía de Paraísos Fiscales, fuente de información para profesionales sobre inversiones Offshore*. Madrid: Ediciones Harcourt.
- UNED: *Convenios y doble imposición internacional*.
<http://www.uned.es/435130/apuntes09/TEMA12.pdf> helbidetik eskuratua.
- Unión Sindical de Madrid-región CC.OO. (1994). *Economía Sumergida*. Madrid: Ediciones GPS Madrid.
- Vernay, A. (1970). *Los Paraísos Fiscales*. (J. Aleu, Ed.) Barcelona: Editores Paza & Janes, S.A.

- **Web orriak**

BOE: www.boe.es/

Brunnquell, F. (Zuzendaria). (2008). *Paradis Fiscaux, la grande évasion* [Filma]. Documentos TV, rtve. <http://www.youtube.com/watch?v=zIs9gMqKuyw> helbidetik eskuratua

Eurofound: <http://www.eurofound.europa.eu>

Eurostat Datu Estatistikoak: epp.eurostat.ec.europa.eu

GESTHA: <http://www.gestha.es>

Google Maps: <https://maps.google.es>

Nazioarteko datu makroekonomikoak: <http://www.datosmacro.com>

MINHAP: <http://www.minhap.gob.es/>

Ogasun eta Finantza Saila. *Eusko Jaurlaritza*: <http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net>

Paradisu Fiskalen zerrendak: <http://www.paraisos-fiscales.info/>

Parejo, G. No hay Nadie que no haya hecho una factura en negro. *Salvados*. (J. Évole, Elkarrizketatzailea) La Sexta.
http://www.lasexta.com/programas/salvados/noticias/hay-nadie-que-nunca-haya-hecho-factura-negro_2012120200102.html helbidetik eskuratua

